# Goienkaria

2009ko martxoaren 20a > Egubakoitza > IX. urtea > 369. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net




"Egindako ikerketek diote gaixoak azkarrago errekuperatzen direla etxean"

**Arantzazu Ugarte**
Familia-medikua > 07

**G2a** **Birziklapena eta artea uztartuta Oñatin** > 31

**ARANTZAZU**
**Beste 12 artzain atera dira Arantzazuko Artzain Eskolatik** > 05

**ARRASATE**
**Alkatearen kalitateko botoarekin onartu dute aurrekontua** > 12

**BERGARA**
**Argi kutsaduraren gaineko azterketa egin du Udalak** > 17

**HEZKUNTZA** > MONDRAGON UNIBERTSITATEA

# Eskola Politeknikoaren eraikin berriak 900 ikasle hartuko ditu

**GARAIAN** Arrasateko Berrikuntza Gunean dihardute eraikitzen eta datorren urteko irailean irekiko dute

**900 IKASLE** Bikoiztu egingo du gaur egungo eraikinaren ahalmena: pasatuko da 574tik 900 ikaslerendako lekua izatera

**INBERTSIOA** 18 milioi eurotik gorako inbertsioa du; 13.000 metro koadroko azaleran, lau solairu eraikiko dituzte > 06

**EKONOMIA** > ENPRESAK

## Arcelorren etorkizuna kolokan

ELAk uste du Bergarako lantegia ixteko arriskua dagoela > 06

**AZPIEGITURAK** > AHT

## AHTren beste zati bat abian

Arrasate eta Elorrio arteko lanak hastear daude; bailarako bigarrenak > 04

**AZPIEGITURAK** > AP-1

## AP-1, ekainerako irekita

Eibar-Gasteiz autobidea ekainerako erabilgarri egongo dela aurreratu dute Arabako eta Gipuzkoako aldundiek; bi tartetako lanak falta dira bukatzeko. Hamabost egun barru Arlaban eta Eskoriatza artekoa irekiko dute eta Arrasate eta Eskoriatza artekoaren bukaera ekainera atzeratu da, luizi baten ondorioz. > 04



**EIBARREN** Josu Uribe eta Aitor Lopez Rekarte Eibar futbol taldera iritsi berri dira; biek dute erronka bera, kategoriari eustea. XABIER URTZELAI

## Josu Uribe: "Baliteke Kordoban Aitorrek hasieratik jokatzea"

Aitor Lopez Rekartek Eibarren jokatuko du denboraldi amaierara arte. Realeko kapitain ohiak orain dela hiru aste aitortu zion GOIENKARIAri futbola uzteko erabakia hartu zuela. Arrasatekoak, baina, eguaztenean jaso zuen Eibarko proposamena eta atzo Ipuruan zen, Uriberen agindueetara lanean. > 30

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-06
**Iritzia** > 08
**Elkarrizketa** > 07
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-27
**Kirola** > 28-30
**Kultura** > 32-33
**Sailkatuak** > 34
**Berri-zakua** > 35
**Eskelak** > 35
**Gazteak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Non-zer** > 38-39


**JENDARTEA** > ZERBITZUAK

## Hileta zibilak gure bailaran

Arrasateko eta Bergarako udalak hileta zibilak arautzeko urratsak egiten hasi dira > 02

**POLITIKA** > EUSKAL PRESOAK

## Presoen aldeko mezuak

PSOEk euskal presoen kolektiboa "ezabatu" nahi duela salatu du asteon Arrasaten Amnistiaren Aldeko Mugimenduak, eta herritarrei dei egin die "herriko bazter guztiak presoen aldeko mezuz betetzeko". > 05


FAGOR sukaldeko altzariak
%25eko deskontua
4 modelotan.
IKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

**ZERBITZUAK** > HILETA ZIBILAK

# Ibarreko bi udal hasiak dira hileta zibilak arautzeko lehen pausoak ematen

**HILDAKOA** Hileta erlijiosoetan Jainkoa eta betiereko bizitza dira oinarri; bestelako hileta ekitaldietan, aldiz, hildakoa bera da protagonista ingurukoen berbetan

**ESKARIA** Inguruko hileta zerbitzuetakoek diote apenas dagoela eskaririk hileta zibilak egiteko; hortaz, eurek ez dutela horrelako eskaintzarik egiten



Malen Errasti arrasatearraren hileta zibila San Kristobalgo hilerriaren aurrean egin zuten hurbil

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

*Hil eta gero, dena soberan,* dio esaera zaharrak, baina hil osteko ekitaldiak badirudi ez daudela soberan. Izan daitezke ekitaldi erlijiosoak, hileta elizkizunak, alegia, edo bestelako ekitaldiak, hileta zibilak edo errautsak haizatzea, edo biak batera, esaterako.

Askok ez du pentsatu seguru aski beretzako nolako hileta nahi duen; beste batzuek, ordea, ingurukoei aurrez jakinarazten diete hildakoan hileta elizan nahi duten edo erraustea eta errautsak itsasoan zein mendian haizatzea nahi duten inolako abaderen berba barik…

Hileta erlijiosoetan Jainkoa eta betiereko bizitza dira oinarri; hileta zibiletan, ordea, hildakoa bera da protagonista eta hari buruz egiten da berba, besteak beste musika, argazkiak edo poesia lagun direla. Gurean ez dago joera handirik hileta zibiletarako, pixkanaka bide hori hartzen duenik baden arren.

**"Paper guztiak, epaitegikoak-eta berdin-berdin egin behar dira pertsona bat hiltzen denean, hileta zibila ala erlijiosoa izan"**

**"Arrasaten Udalak oraingoz ez dauka protokolorik zehaztuta; hortaz, familiakoek edo lagunek erabakitzen dute ze ekitaldi egin"**

### HILETA ZERBITZUEK ESKARI GUTXI

Heriotza eta hiletak berba tabuak ohi dira gehienendako, penaren eta minaren iturri diren heinean, baina, gizartea gero eta laikoagoa izanik, hileta zibiletarako joera handituz doan neurrian, horren gainean berba egin dugu ibarreko hainbat lagunekin.

Arrasateko San Felipe Apostol Elkarlaguntzako elkarteko Alberto Ojangurenek esan digu eurenean oraingoz ez dutela hileta zibilerako eskaririk izan; hala balitz, bideratuko luketela. "Behin Eibarren izan nintzen hileta zibil batean, eta han kanposantuko atean egin zuten irakurketaren bat, baina gurean ez zaigu tokatu. Hileta zibiletan lagunak edo senideak elkartu, idatzi bat irakurri eta elizatik pasa gabe egiten da hil ondorengo ekitalditxoa. Gainontzean, paper guztiak, epaitegikoak-eta berdin-berdin egin behar dira pertsona bat hiltzen denean, hileta zibila izan ala erlijiosoa izan", esan digu.

Euskalduna hileta zerbitzuko Joana Muñozek ezagutu ditu kasuren batzuk, non familiak ez baitiren sinestunak eta ohikoak ez diren agurrak egin baitituzten. "Elizak jarraitzen dituen hainbat ohiturarekin ez datoz bat eta ez dituzte egiten. Esaterako, gurutzerik ez dute ipintzen eta hildakoa ez da elizara eramaten, ezta haren errautsak ere. Batzuetan, apaiza beilatokira etorri eta errespontsu bat egiten du, eta gero zuzenean lurperatzera edo erraustera eramaten da elizatik pasa gabe. Izan ere, hildakoaren familian edo lagun artean egon daitezke sinestunak ere. Ehorztetxean bertan hileta zibiletarako jarraibide zehatzik ez dago, familia bakoitzak erabakitzen du nola egin nahi dion hildakoari azken agurra", azaldu digu.

### HILERRI KANPOAN OMENALDIAK

Hileta zerbitzuek, hortaz, eskarien arabera egiten dute hileta, baina eurek ez dute eskaintzen hileta zibilak egiteko oinarririk. Ehorztetxeetan bertatik bertara ezagutzen dituzte kasuak, baita hilerrietan ere.

Arrasateko hilerriko langilea da Itziar Zubiaga, eta han diharduen hamaika urteetan hileta zibil gutxi tokatu zaizkio: "Familiakoek edo lagunek jakinda hemen horrelakorik egiteko biderik aurrez zehaztuta ez dagoela, euren kabuz pentsatzen dute zer egin: hilkutxaren aurrean aurreskua dantzatu, bertso batzuk abestu… ekitaldi txikia izan ohi da, besterik gabe hildakoa hilerrian ez uztearren. Nahiko ekitaldi xumeak eta etxekoen edo lagunen artekoak izan dira orain artekoak, ez protokolo bat jarraituz egindakoak".

Haren esanetan, eskaera handirik ez dago: "Gainera, ohitura zaharra izanik, elizan sinesmen handirik ez izan arren askok eta askok jarraitzen dute hileta elizkizuna egiten. Bestalde, orain gero eta gorpu gehiago errausten dira, eta joera dago errautsak haizatzeko toki berezi edo politen batean, eta hori egiten denean omenaldi edo ekitaldia egiteko".

### ARRASATE ETA BERGARAN HASIAK

Ehorztetxeek eskaintzen dute hileta zerbitzua, baina hileta zibilak ez dituzte egiten. Badira, ordea, udalak ibarrean gai hori aztertu dutenak, hainbat herritarren artean nolabaiteko kezka dagoela sumatuta. Debagoieneko herririk gehienetan, ordea, ez da eskaerarik izan eta ez diote gaiari eutsi, nahiz eta jakin badakiten lurperatu direla hildakoak elizatik pasa gabe edo elizkizunik egin gabe euren errautsak haizatu dituztela.

Bergarako Udalean badihardute gaia aztertzen, baina oraingoz ez dute ezer zehaztu, Enara Mingez zinegotziak esan digunez: "Asmoa da leku bat izatea hileta zibiletarako eta behin lekua aurkituz gero, protokolo bat gertatzea. Inoiz egin da omenaldi modukoren bat, baina ez protokolo zehatzei jarraituz, eta eskaera formalik ere ez dut uste jaso denik. Arau edo jarraibide batzuk zehaztuz gero eta toki bat egokitzen bada, eskaerak areagotu egin daitezkeela iruditzen zait".

Arrasateko Udalean Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzordeko teknikari Moises Altunak esan digu Udala lantzen ibili dela gai hori, baina orain momentuan kontua geldi dagoela. "Hainbat arazo ikusi genituen kokapenari dagokionez. Ez da erraza horrelako ekitaldi baterako kokapen bat aurkitzea hilerritik kanpo. Gu saiatu ginen tokiren baten bila udal eraikinen baten, edo herriko guneren batean, baina denetan zegoen trabaren bat. Ezin da herriko azken bazterrean egin, baina herriko erdigunera ekarrita ere, ez lioke oztoporik eragin behar beste jardueraren bati; hortaz, zaila da plaza batean, parkeren batean… egitea", azaldu digu Altunak.

Arrasaten egin izan diren hileta zibilak hilerrian bertan egin direla gaineratu digu: "Udalak ez dauka protokolorik zehaztuta; hortaz, familiak edo lagunek erabakitzen dute nolako ekitaldia egin. San Kristobal sortu zenean Udalak egin zuen saiakera hileta zibiletarako protokoloren bat egiteko, baina gaiak ez zuen aurrera egin eta gero, azken aldiz berriz eutsi diogu gaiari Aralarrek idatziz egindako eskari baten harira". Aralarrek zerbitzu publiko legez ulertzen du hileta zibila eta euren proposamenak eskaria egiten dutenei erantzuna emango liekeela diote alderditik.

Ezker Batua-Zutik taldeak ere egin du eskaririk hileta zibilak arautzeko, eta San Kristobal proposatu zuen kokaleku



ekoek, bere hilotza han zela, erraustu aurretik. GOIENKARIA

moduan, baina urruti egotea izan zen oztopoetariko bat.

Heriotza edozeinendako da une tristea eta gogorra, eta hortik aurrera zer dagoen inork ez dakien arren, hil eta geroko lehen uneak nola edo hala pasa beharrekoak dira. Elizan, hilerrian, beilatokian, mendian edo itsas ertzean, bakoitzak aukeratzen duen lekuan edo gertukoek egokien ikusten duten tokian. Agurtzeko modua ere bakoitzaren edo bere inguruaren araberakoa. Baina argi dagoena da gaur egun Debagoienean ez dagoela oraindik inolako araudirik hileta zibilak egiteko.

## Hileta zibiletarako tokiren bat egokitzea eskatu dute

Joxe Mari Muxika arrasatearrak hainbat lagun agurtu ditu elizatik kanpo egindako hileta ekitaldietan, eta badu kezkarik hileta zibilen gainean. Bere esanetan, "Debagoienean ez dago hileta erlijiosoa ez den beste zerbitzurik heriotza bat gertatzen denerako; hortaz, derrigortua dago jendea hileta erlijiosoa egitera".

Heriotza ez dago aurreikusita eta momentua ailegatzen denean arazoa bikoiztu egiten da batzuendako, "ez dagoelako bestelako eskaintzarik. Ez dago horretara dedikatzen den hileta-zerbitzurik edo besteekin batera hileta zibil zerbitzuak eskaintzen dituenik", dio Muxikak.

"Senide bat edo lagun bat hiltzen denean eskaintza da ehorztetxeak eskaintzen duena, saio erlijiosoa bera; horretaz gainera, loreak, kutxa, eskelak... Horrekin batera beste arazo bat da ez dagoela espaziorik. Egin daiteke eta egiten da San Kristobalen, hilerri kanpoan, eta egin liteke Larrinon, Gesalibarren... Baina ez dago espazio bat horretarako gertatua, hileta erlijiosoetarako elizak dauden moduan. Horretarako egokitzapena Udalak egin beharko luke".

Bestalde, ez dago zehaztuta zeinek egin behar duen funtzioa edo ekitaldia bera. "Nik gertuko bi lagun hil direnean prestatu izan dut omenaldi edo hileta ekitaldi hori, baina oinarririk gurean ez dago".

Arazoa sumatu duen arren, arazoaren aurrean eskari formalik ez du egin; udaletxean, esaterako. "Baina falta da eta behar da lokal bat. Espazio itxia izan behar du, aterpea, horrelako ekitaldietarako. Nik parte hartu izan dut San Kristobalen egindako ekitaldietan, baina kanpoan egiten da, hilerriaren aurreko aldean, eta, euria eginez gero, arazo bat gehiago dago. Bestalde, izan behar du toki goxoa, momentua ere horrelakoa delako".

Joxe Mari Muxikak esan digu gertu legokeela berak bezala hileta zibilen gaineko kezka duen jendea egongo balitz herrian bat egiteko eta bidea zabaltzeko: "Elkartuta, ehorztetxeei esan geniezaieke hileta zibilen inguruko zerbitzua eskaintzeko, Udalari eskatu leku bat egokitzeko... Izan ere, hileta erlijioso batean badakigu funtzioa nolakoa den, loreak, eskelak..., baina nik ez dakit zer eskainiko lidakeen hileta zibilerako ehorztetxeak, eta hori arautzea denon artean egin beharreko lana da. Egongo balitz hileta zerbitzuren bat horri heltzeko gertu, ni gertu nengoke laguntzeko eta nik uste dut beste batzuek ere bat egingo luketela asmoarekin".

Hildakoak agurtzeko moduak askotarikoak izan daitezke, oraindik gehienek hileta erlijiosorako joera izan arren. "Nik ez dut esan nahi hileta erlijiosorik ez egiteko, ezta gutxiago ere; baizik eta beste eskaintza bat ipintzeko aukeran. Guk, esaterako, eskema bat gertatzen dugu: lagunen hitzak, kantuak, lore-eskaintza... baina hori behin-behineko moduan egiten da eta protokolo bat esku artean izateak edonori erraztuko liguke hiletaren une gogor hori".

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Martxoko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
*harpidetza@goiena.com*
Kuota: 40 euro

SARRERAK
Bruesa GBC- MTT Estudiantes partidurako sarrerak.
BIDALI AG BRUESA 5533 zkra

ZIRA

Euskal Kirol Federazioaren zira.
BIDALI ZIRA 5533 zkra.

LIBURUAK

Pamiela argitaletxearen umeentzako liburuak.
BIDALI AG LIBURUAK 5533 zkra

KAMISETAK

Korrika-ko 4 kamiseta.
BIDALI AG KORRIKA 5533 zkra.

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT

www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

**AZPIEGITURAK** > AP-1

# Eibar eta Gasteiz arteko autobidea ekainerako guztiz irekita egongo da

Arlaban-Eskoriatza tartea apirilaren hasieran zabalduko dute; Arrasate-Eskoriatza zatia, berriz, ekainean, luizi bat gertatu da-eta


Eguaztenean ateratako argazkian, langileak Arlabango tunelaren aurrean. 15 egun barru amaitu behar dute. XABIER URTZELAI

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Arlaban-Eskoriatza tartea apirilaren hasieran irekiko dute eta Eibar-Gasteiz autobide guztia ekainerako izango da zabalik, Arabako eta Gipuzkoako aldundiek adostu dutenez, lehenengoak aditzera eman duenez.

**ESKORIATZATIK GASTEIZERA, DOAN**

Bi tarteen irekierarako egutegi bat adostu dute erakundeek, azpiegitura osoa zerbitzuan jartzeko. Arlaban eta Eskoriatza arteko zatia apirilaren hasieran irekiko dute, Aste Santua baino lehen. Horrela, Isuskitza tunelaren bidez Gipuzkoa eta Araba lotuko dituzte. Tunelak hiru kilometroko luzera du. Arlaban-Eskoriatza tartea irekita eta Arrasate-Eskoriatza zatia amaitu arte, hau da, AP-1 guztiz zabaldu bitartean Arlaban-Eskoriatza tarteko erabiltzaileek ordaindu behar ez izatea adostu dute bi aldundiek. Arrasate-Eskoriatza tarteari dagokionez, luizi batek obren amaiera atzeratu du. Luizia Apotzaga tuneleko hegoaldeko sarbidetik hurbil gertatu zen, duela aste batzuk. Bada, kalteen konponketak Arrasate-Eskoriatza zatia amaitzeko lanak atzeratuko ditu. Horregatik, ekainean irekitzea espero dute. Orain arte amaituta eta zabalik dauden autobidearen hiru zatiak 300 milioi euro kostatu dira: Maltzagatik Epele artekoa, hain zuzen.

### AP-1 autobideko datuak gurean

**Maltzaga - Bergara iparra**
2003ko abendutik zabalik.
Luzera: 7 km.

**Bergara iparra - Hegoa**
2004ko ekainetik zabalik.
Luzera: 4 km.

**Bergara hegoa - Epele**
2005ko uztailetik zabalik.
Luzera: 3 km.

**Arrasate - Eskoriatza**
2009ko ekainean zabalduko dute.
Luzera: 6 km.

**Eskoriatza - Arlaban**
2009ko apirilean zabalduko dute.
Luzera: 11 km.

**AZPIEGITURAK** > AHT

# Arrasate eta Elorrio arteko lanekin laster hasiko dira

Datorren eguaztenean egingo dute azken akta sinadura; orain arte, Gesalibar inguruko lurretan zuhaitz batzuk bota dituzte eta eremuak markatu


Gesalibarko gune horretan, Etxebarri, San Jurgi eta Parraia baserrien artean, oraindik ez dira lanekin hasi. IKER ISASMENDI

**JASONE ZABLA** > BERGARA

Adif enpresak Abiadura Handiko Trenaren Arrasate-Elorrio zatiko lanak hasi dituela adierazi zuen martxitzenean banatu zuen prentsa oharrean. Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkideagoan duen ordezkari Mikel Cabiecesek adierazi zuen albiste "ezin hobea" dela Arrasate eta Elorrio zatiko lanak hastea; baina gauza da oraindik ez direla lan horiekin hasi; orain arte egin duten bakarra izan da zuhaitzak moztu, lurra mugitu eta zubi-bidea egingo duten zati hartako hainbat puntutan eremuak markatu. Ildo horretatik, AHT Gelditu! Elkarlaneko Mila Elortzak adierazi duenez, lan horiek ez dira hasi, hasteko baimenik ez dutelako, azkeneko akta sinadura egin gabe dagoelako oraindik; hau da, AHT egiteko makinak sartu behar dira lurretara, baina makinak lur horietara sartzeko, lur jabeen baimen hori behar dute.

**AKTA SINADURA**

Horrela, akta sinadura datorren asteazkenean, martxoak 25, egingo da. "Jokabide horrekin lortzen dutena da kaltetuak direnak gehiago beldurtzea eta modu batez presionatzea", adierazi du Elortzak. Cabiecesek, horren harira, prentsa oharrean adierazi du gizartearen "parte handi bat" AHTren alde dagoela eta lanek aurrera jarraitzen dutela, nahiz eta, Arrasate-Elorrio zatian, oraindik ez diren hasi.

DATUA

**4.400**

**METRO**

**Horiek izango dira Arrasate-Elorrio zatiak izango dituen metroak. Horietatik %81,6 bi tunelen barrutik joango dira, Karraskain eta Udalatxekoetatik.**

**IA DENA LUR AZPITIK**

Arrasate-Elorrio zatiak 4,4 kilometroko luzera izango du eta Arrasate eta Elorrio eta Aramaio zeharkatuko ditu; tarte horren guztiorren %81,6 bi tunelek zeharkatuko dute. Bidearen zati horretan mendebaldeko eta ekialdeko adarrak banatuko dira; Donostiarako eta Bilborako bideak, hain zuzen ere. Zati horretan aipa daitezke, besteak beste, Kobaten egingo duten Zubi-bidea eta Udalatxen egingo duten tunela (3.185 metro). Bestalde, joan den astean hasi zituzten Aramaio eta Eskoriatza arteko zatiko lanak –Induspeko tunela–. Eskoriatzako Mazmela auzotik Aramaiora bitartean egingo dute tunela, eta 5,58 kilometroko luzera izango du eta hiru zubi-bide. Induspekoa bi bideko tunela izango da. Horrez gainera, GI-3343 errepidearen, Zarimutzen eta Uriarteren gaineko zubi-bide bana eta bi noranzkoko tunelak: Uruburu-1, Uruburu-2, Mazmela eta Induspe. Aramaion trena geldi egoteko postu bat (PAET) egitea ere aurreikusita dago.



Argazkian, Artzain Eskolako azken promozioko ikasleak, eguaztenean jasotako diplomekin. MIREN ARREGI

**NEKAZARITZA** > ARTZAIN ESKOLAREN 12. PROMOZIOA

# Beste hamabi artzain atera dira Arantzazuko Artzain Eskolatik

Bost hilabeteko ikastaroa burutu ondoren, diploma jaso zuten eguaztenean

Andres Etxeberria Berastegiko artzaina eta Ardiekin enpresa omendu zituzten Arantzazun

**EDU MENDIBIL** > OÑATI

Artzain Eskolako azken promozioak ikasturte amaiera ekitaldia egin zuen eguaztenean Arantzazun, Gandiaga Topalekuan. Hamabigarren ikasturtea izan da eta ikasle gehienak Euskal Herrikoak izan dira: lau gipuzkoarrak, bizkaitar bat eta beste bi nafarrak. Kataluniar bat eta lau atzerritar ere badira: hiru txiletar eta mexikar bat, hain zuzen. Bost hilabeteko ikastaroa burutu ondoren, diploma jaso zuten eguazteneko ekitaldian. Teoriazko eskolez gainera, ekintza praktikoak burutu dituzte: laborategiak, instalazioak, kudeaketa zentroak eta nekazaritza eskolak bisitatu dituzte. Era berean, 50 ardiko artaldea zaintzeko ardura ere izan dute. Ikasleek praktikak egin dituzte hamar astean zehar artzain profesionalen baserrietan.

Hiru emakume izan dira ikasleen artean, tartean Karina Mondragon txiletarra. "Ezagutzaz gain, familia handi bat daramagu gurekin esperientzia honen ostean", adierazi zuen Mondragonek. Aurreikuspenen arabera, ikasketak amaitu dituzten gazteetako zazpik inbertsioak egingo dituzte sektorean sartzen hasteko edo euren instalazioak egokitzeko, zabaltzeko eta modernizatzeko. Beste lauk, berriz, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru aldundiek emandako formazio beka batekin prestakuntzarekin aurrera jarraituko dute.

DATUA

**166**

**IKASLE IGARO DIRA**

Arantzazuko Artzain Eskolatik 166 ikasle igaro dira azken 12 urteotan: 113 Euskal Autonomia Erkidegotik etorritakoak; 26 Estatuko beste komunitateetatik; eta beste 27 ikasle atzerritik.

**BI OMENALDI**

Andres Etxeberria omendu zuten eguaztenean. Berastegin bizi da, Armuño baserrian, eta artzaintza izan da haren ogibidea betidanik; gaur egun Eneko semea da familiaren ustiapen arduraduna. Nikolas Segurolaren hitzetan, "eskolako kolaboratzaile onena izan da, hasieratik ikasleren bat hartu duelako praktikak egiteko". Bestetik, Ardiekin enpresa ere omendu zuten, 25 urte bete baitira ardi latxa arrazaren hobekuntza genetikoaren eskema martxan jarri zuenetik.

**POLITIKA** > AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA

# Euskal presoen aldeko mezuak eskatu dituzte



Martitzenean emandako prentsaurrekoko irudi bat. T.M..

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek, preso ohiek eta preso eta iheslarien senideek agerraldia egin zuten martitzenean, joan den astean Ertzaintzak kartelak kendu zituen lekuan, hain justu ere. Ertzaintzaren azken ekintzetako batzuk kritikatu zituzten komunikabideen aurrean; besteak beste, Arrasateko presoen argazkiak kendu izana. Hala, Ertzaintzaren jarrera poliziala EAJren jarrera politikoari guztiz lotuta dagoela gaineratu zuten Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek.

**PRESOEN AURKAKO NEURRIAK**

Euskal presoen kolektiboa ezabatzeko PSOEren gobernuak espetxeetan salbuespenezko neurriak ezarri dituela salatu zuten. Neurri horien artean aipatu zituzten minbizia duten presoak espetxean mantentzea, biziarteko espetxe zigorra praktikan ezartzea, sakabanaketa eta bakartzea.

Azpimarratu zuten azken euskal preso politikoa etxean egon arte Amnistiaren Aldeko Mugimenduak ez diola amnistiaren alde borrokatzeari utziko eta herritarrei dei egin diete Arrasateko bazter guztiak euskal preso politikoen aldeko mezuz betetzeko. Datorren zapaturako, martxoaren 27rako, elkarretaratzea deitu dute Arrasateko plazan.

> GERTAERA

### Lau proiektil, Obenerreka enpresaren eraikinean

Metro erdiko lau jaurtigai aurkitu dituzte Obenerreka enpresaren eraikinean, Gipuzkoa etorbidean. Eraikineko bulegoetan lanean dihardutenek eman zuten abisua martitzen goizean, Ertzaintzari ganbaran material susmagarria zegoela adieraziz. Lau jaurtigai zeuden egurrezko kaxa batean. Artezilariek kaxan zeuden hiru jaurtigai zabaldu, eta hirurak hutsik zeuden; laugarrena ezin izan zuten ireki, baina hutsik egongo delakoan daude. Artezilariek eraman egin zituzten lau jaurtigaiak.

Bestalde, egubakoitzean Arraten obus bat manipulatzen zauritutako 36 urteko oñatiarra egoera oso larrian dago.

> JARDUNALDIAK

### Elikagaien subiranotasuna aztergai

Elkarhezitzen Debagoieneko Garapenerako Hezkuntzarako Lan Taldeak antolatuta, elikagai subiranotasunari buruzko jardunaldiak izango dira Arrasaten eta Oñatin martxoaren 23tik apirilaren 7ra. Jorratu dituzten gaiak honako hauek izango dira: *Petroelikagaiak* (martxoaren 23an Arrasaten, apirilaren 1ean Oñatin); *Tokiko alternatibak, eragin globalak* (hilaren 25ean Arrasaten eta apirilaren 3an Oñatin); eta *Elikadura ekonomikoa, osasungarria eta segurua* (hilaren 26an Arrasaten eta apirilaren 7an Oñatin). Saioak 18:00etan izango dira, Arrasaten Kulturaten eta Oñatin kultura etxean. Haurtzaindegi zerbitzua jarriko dute antolatzaileek, eta aurrez abisatu beharra dago (Elkarhezitzen: 943 77 17 38).

> HUHEZI

### Ikasle Abertzaleak, Euskal Curriculumaren alde

Eskoriatzako Ikasle Abertzaleak-ek deituta, Huhezi fakultateko Irakasle Eskolako ikasle eta irakasle talde batek agerraldia egin zuen klaustroan eguaztenean, hilaren 18an, Euskal Curriculumari atxikimendua adierazteko. Hauxe esan zuten: ikasle bezala, eta etorkizunean irakasle moduan, Hezkuntza Sistema Nazionalaren eraikuntzan parte hartuko dutela eta Euskal Curriculuma ikasgeletan errealitate bilaka dadin euren esku dagoen guztia egingo dutela. Era berean, beste irakasle eskoletako ikasleei dei egin zieten pauso berak jarraitzeko eta elkarlanean jarduteko.



Eraikin berriaren maketa. Lanak datorren urte hasierarako amaitu nahi dituzte eta 2010eko irailean inauguratu. MU

**HEZKUNTZA** > MONDRAGON UNIBERTSITATEA

# Unibertsitate berria 900 ingeniarirendako

## Elektronika eta ingeniaritza adimendunak garatzea izango du helburu eraikin berriak eta 18 milioi eurotik gorako inbertsioa izango du

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak eraikin berria egingo du Arrasaten: Elektronika eta Sistema Txertatuen Ikerkuntza eta Teknologi Berrikuntza Zentroa, hain zuzen ere. MUko errektore Josu Zabalaren arabera, Estatu mailan zentroa erreferentziazkoa izatea da helburua. "Bertako ekonomiarendako funtsezkoa den erronkari helduko dio MUk; teknologia propioa garatzeari. Lehiakortasuna indartzeko zentro berriak I+G arloko bikaintasunezko gune bilakatzea dugu helburu", gaineratu zuen Zabalak.

**18 MILIOIKO INBERTSIOA**

Garaia Berrikuntza Gunean egongo da zentro berria. Proiektuak 18 milioi eurotik gorako inbertsioa izango du, eta eraikina 13.000 koadroko azaleran altxatuko dute. Lanak datorren urte hasierarako amaitu nahi dituzte eta inaugurazioa 2010eko irailean egingo litzateke.

Beheko solairua eta beste hiru izango ditu eraikin berriak eta Goi Eskola Politeknikoaren ikasle kopurua bikoiztu egin ahal izango du elektronikan, informatikan eta telekomunikazioetan. Gaur egun 574 ikaslerendako tokia du Goi Eskola Politeknikoak, eta zentro berriak 900 hartu ahal izango ditu etorkizunean. Proiektuak osagarriak diren lau jarduera-esparru uztartuko ditu: ikerketarako jarduerak eta laborategiak; transferentzia teknologikoko eta berrikuntzako proiektuak; aholkularitzako eta ingeniaritzako jarduerak; eta oinarri teknologikoa duten enpresa berriak sustatzeko arloa.

Elektronika eta sistema txertatuen teknologien garapenean, metodologian eta diseinuan MU lider eta sustatzaile izatea nahi dute arduradunek: "Gaur egun teknologiek ematen dietelako produktuei erantsitako baliorik handiena. Izan ere, aipatutako produktuak Asiako herrialdeetan fabrikatuko dira gero eta gehiago etorkizunean, eta alde horretatik oso zaila da haiekin prezioan lehiatzea".

etxeko leihotik



**Monika Belastegi** > 'mbelastegi@goiena.com'

# Autopista bisitariak gurera erakartzeko

Azken urteetan egindako azpiegiturei esker Debagoienera etortzea, batez ere autoz, gero eta errazagoa da. Eta errazagoa izango da ekainetik aurrera, Eibar-Gasteiz autobidea erabat zabaltzen dutenean. Gasteiz Debagoienetik ordu laurdenera izango dugu.

Hori ez da albiste txarra gaur egun bizi dugun gizartean, gero eta gehiago dira-eta lan kontuengatik, batez ere, Debagoienetik kanpora joan edo Debagoienera lanera etorri behar dutenak. Horiek asko igarriko dute aldaketa. Baina zer gertatuko da aste bukaeretan? Gaur egungo ohiturak ikusita, autopista Debagoiena asteburuetan husteko bide azkarra izan daiteke. Hala, eta hori ekiditeko, gure bailaran dinamika berriak bultzatzea ezinbestekoa dela uste dut. Autopista guregana etortzeko eta ez gugandik alde egiteko bide azkar eta erosoa izan dadila nahi badugu, behintzat.

**"Autopista Debagoienera etortzeko bidea izatea lortu behar dugu"**

Ez autopistatik ezta autoz ere ez datorren arren, laster iritsiko da gurera, ttipi-ttapa Korrika, horrek sortzen duen herri dinamika positibo eta bateratzailearekin. Debagoieneko errepide kaxkarrak bi hankako ibilgailu alai eta indartsuz beteko dira. Eta, besteak beste, erakutsiko du autopistak ez direla txarrak, baina gogoa eta grina baldin badago gauza xume eta txikiekin ere gauza handiak egin daitezkeela.

**> Hileta zibilak** **arautzeko lehenengo urratsak egiten hasi dira Arrasateko eta Bergarako udalak. Oraindik ez dute protokolorik zehaztu; hortaz, familiakoek edo lagunek erabakitzen dute ze ekitaldi egin. Baina iritsiko da.**

**> Kondoia.** **Erabiltzen ez duenak jakingo du zergatik ez duen haren beharrik. Baina gauzak bereizten jakin behar da eta Aita Santuak hobe du Vatikanoan lasai-lasai geratu Afrikan egindako adierazpenak egin baino. Hiesa sexu-transmisioko gaixotasuna da.**

**ENPRESAK** > ARCELOR MITTAL

# Altzairu lantegiaren etorkizunarekin kezkatuta dago ELA

## Arcelor Mittaleko zuzendaritzaren arabera, altzairu lantegia ixtea aldi baterako izango da

**TXOMIN MADINA** > BERGARA

ELA sindikatuak kezka adierazi du Bergarako Arcelor Mittaleko altzairu lantegiaren itxiera dela eta. Sindikatutik esan dute euren beldurra dela enpresak iragarri bezala itxiera aldi baterako izan beharrean betiko izango ote den. Bergaran inbertsio gutxi egin direla gaineratu dute. Bergarako Arcelor Mittal fabrikan laminazio lantegia eta altzairu lantegia daude, eta, egungo egoera ekonomikoa dela-eta, azken hori aldi baterako ixteko asmoa du zuzendaritzak. Ematen duten azalpena da Zumarragan eta Bergaran, bietan daudela altzairu lantegiak eta, krisia dela eta, euren ahalmenaren erdira lanean ari direla. Hori dela eta, gauzak hobera egin arte, Bergarako altzairu lantegian dauden 70 langileak Zumarragara joatea proposatzen dute.

**64 MILIOI EUROKO IRABAZIAK IAZ**

ELAren arabera, iaz Bergarako lantegiak 64 milioi euroko irabaziak izan zituen eta horietatik 30 akziodunen artean banatu zituzten. Bergaran ez dela inbertsio nahikorik egin salatu du ELAk.

Arcelor Mittaleko zuzendaritzako iturriek diotenez, altzairu lantegia ixtea aldi baterako izango da, egungo egoera ekonomikoa suspertu arte, eta gaineratu dute horrek langileei egonkortasuna emango diela. Inbertsioen inguruan esan dute 14 milioi inbertitu dituztela bi urtean Bergaran.




Bergarako Arcelor Mittal lantegiko sarrera, Labegaraietan. GOIENKARIA

Iaz ekainean jarri zuten martxan Debagoieneko ospitalean etxez etxeko ospitalizazio zerbitzua. Hiru mediku, bost erizain eta administrari batek egiten dute lan zerbitzuan. Bi autotan, etxean dauden gaixoak bisitatzen dituzte. Julio Cesar Sandoval da zerbitzuko koordinatzailea. EAEko beste ospitale batzuetan, esate baterako, aspalditik dihardute zerbitzua ematen.

**Arantzazu Ugarte** > Familia eta komunitateko medikua

# "Ikerketek diote gaixoak azkarrago errekuperatzen direla etxean"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

**Arantzazu Ugarte medikuak argi utzi gura izan du borondatezkoa dela etxean ingresatuta egotea. Lanean hasi zirenetik gora egin du etxean ingresatuta dauden gaixo kopuruak. Gaur egun, batez beste, 17 bisita egiten dituzte eguneko.**



Ugarte medikua, Debagoieneko ospitalearen aurrealdean. A.E.

**Zer dela eta sortu zen etxez etxeko ospitalizazio zerbitzua?**

Osakidetzak bere zerbitzuen barruan plan bat egin du, ospitaleratzeez gain beste ospitalizazio mota batzuk eskaintzeko. Betiko ospitaleratzeez gain, beste ospitalizazio mota batzuk sortu dira; izan daitezke eguneko ospitaleak –egun bateko ospitaleratzeak egiten dituztenak– edo etxez etxeko ospitalizazioa; kasu horretan, norberaren etxean egingo litzateke *ospitaleratzea*.

**Ze gaixo motari zuzenduta dago zerbitzua?**

Hiru talde bereizten ditugu: batetik, kirurgia osteko gaixoak daude. Ebakuntza baten errekuperazio prozesuan daudenak izango lirateke horiek. Baita ebakuntzan zerbait okertu eta tratamendu luzeagoaren beharra dutenak ere.

Bestetik, gaixotasun kronikoak dituzten gaixoak daude. Garai batzuetan okerrago jartzen direnak, pneumonia harrapatzen dutelako edo infekzio bat dutelako, adibidez. Bestalde, gaixotasun kronikoa izan barik, gaixotasun ezkutuak dituzten pertsonak daude. Giltzurrunetako infekzioa, txiza infekzio konplikatua... batez ere dira gaixotasunak bizitza arriskuan jartzen ez dutenak, baina tratamendua zainetatik jaso behar dutenak.

Hirugarren bloke printzipala izango litzateke zaintza aringarriaren beharra duten gaixoak, paziente terminalak izaten direnak. Gaixo terminal bat da tratamendu aktibo baten aurrean hoberako erantzunik ez duen pazientea. Hau da, osatuko duen tratamendurik ez dagoenean.

**Ze abantaila dauka etxez etxeko zerbitzuak gaixoarendako?**

Ikerketa ezberdinen bitartez ikusi da gaixoaren errekuperazioa azkarragoa dela. Bestetik, ospitalean egoteak sor ditzakeen arazoak ekiditen dira; adibidez, adinduak galduta egon daitezke ospitalean, burua joanda. Eta, ospitalean bertan egoteak ospitaleko infekzioak hartzeko ematen duen arriskua ere ekiditen da. Beste alde batetik, norberaren etxean egoteak pribatutasun eta autonomia handiagoa ematen du; kontuan hartu behar da ospitalean beste pertsona batzuekin partekatu behar dela logela.

Gainera, etxekoek ez dute zertan ospitalera mugitzen ibili; ohiko bizimodua egiteko aukera handiagoa ematen du; eta, gizarte mailan, dirua aurrezten da; izan ere, ekonomikoagoa da pazientea etxean egotea.

**Derrigorrezkoa da gaixoak etxean zaintzailea izatea.**

Bai, hala da. Etxeko ospitalizazio zerbitzuan derrigorrezkoa da etxean zaintzailea izatea. Ez du inporta familiartekoa den edo beste pertsonaren bat den. Guk ez diogu lan karga handirik ematen; gauza tekniko guztiak guk egiten ditugu. Etxekoek egiten dituzten gauzak samur egitekoak izaten dira.

Bestalde, derrigorrezkoa da Debagoieneko ospitaletik autoz 30 minutura egotea etxea; Debagoieneko eta Aramaioko gaixoak hartzen ditugu. Gainera, eskura telefonoa izatea ere derrigorrezkoa da. Baina azpimarratu behar da etxeko ospitalizazioa boluntarioa dela: gaixoak ez badu gura, ez dugu etxera bidaltzen.

GIZARTEA

**"Gizarte mailan dirua aurrezten da; ekonomikoagoa da gaixoa etxean egotea"**

ZAINTZAILEA

**"Derrigorrezkoa da gaixoak etxean zaintzailea izatea; eta baita telefonoa ere"**

ORDUTEGIA

**"Astean zehar goiz eta arratsalde ematen dugu zerbitzua eta aste bukaeran goizez"**

**Nola egiten duzue lan?**

08:00etan elkartzen da goizeko taldea: bi mediku eta hiru erizain. Horiek eguneko planteamendua egiten dute eta irteerak egiten hasten dira. 14:00etan ospitalera itzultzen dira eta arratsaldeko taldearekin elkartzen dira. Arratsaldean, 20:00ak arte egiten ditugu bisitak. Zapatuetan eta domeketan goizez ibiltzen da talde bat lanean.

Saiatzen gara egunero medikuaren bisita jaso behar duen gaixoari medikua mantentzen; aste baten goizez egiten diogu bisita eta hurrengoan arratsaldez.

**Eta norberak etxean izaten ditu medikuaren informeak.**

Bai, medikuak egiten duen informea etxean izaten du gaixoak. Hor idatzita dago zergatik ospitaleratu duten, zertarako, ze tratamendu eman dioten, aurrekaririk duen edo ez... Azken finean, larrialdi baten aurrean gure zerbitzukoa ez den mediku bat doanerako da egokia informea etxean izatea. Bestalde, gaixoak hartu beharreko tratamendua ere idatzita uzten dugu.

**Medikamentuak nola eramaten dituzue etxeetara?**

Medikamentuaren arabera izaten da. Norbaitek 15 egunez hartu behar badu antibiotiko bat, etxera eramaten dizkiogu 15 dosi eta han uzten ditugu gu goazenerako. Bestelako materiala erizainek eramaten dute poltsa batean. Gainera, auto bakoitzak maletategian kit bat dauka: sendaketak egiteko, analisiak hartzeko... araudiaren araberako neurriak hartzen ditugu. Baina esan behar da ez dugula medikaziorik autoan eramaten.



zabalik

**Diego Martiartu**

# Enkontrua

Erabateko errebelazioa izan zen niretzat, eta zubi batean gertatu zen, Roneoko plaza eta Zerrajerako etxe berriak lotzen dituen egurrezko zubi berri eta berdekaran, Egube-rri aurretxoan. Orain zalantzan nabil, ene begiokin ikusitako hark Iker Jimenezek bere liburuetako batean aipatzen duen Arrasateko gertakari paranormal batekin erlaziorik izan ote zuen, non Santamainako bi emakumeri halako mamu itxurako izaki etereo bat agertu baitzitzaien airean zintzilik, inolako euskarri barik, Zerrajerako inguru harexetan bertan!

Despistatu xamarturik nindoan ba, inoiz guardia zibilaren kuartel izandako eremu zabalean zubirantz ibilki, txinatar gizon bi ikusi nituenean zubiaren mutur banatan oina jartzen, bata Zerrajeratik plazarantz zetorrela, bestea plazatik zubirako zebra bidea igarota Zerrajerarako etxe zurietarantz zihoala. Bien arteko enkontrua, gurutzamendua, tril eta topo egin beharra saihestezina zen, beraz. Bi txinatar, bata bestearen aurrez aurre, Arrasateko zubi baten erdian ezinbestean elkarrekin gurutzatzeko puntuan.

> **"Txinatar bien artean, zubiaren gainean, ez zen ez berba ez keinurik txikiena ere trukatu"**

Ene erroetatik erauzteraino durduzatu ninduena orduantxe jazo zen: txinatar bion artean, zubiaren gainean –aldamenetan ur handiak lasterka– ez zen ez berba ez agur ez bekain goratze ez konplizitate nahiz erdeinuzko keinurik txikiena ere trukatu. Elkar ezagutu ez eta Shangain, Beijingen edo Guangzhoun egunero-egunero elkarrekin gurutzatzen diren milioika eta milioika txinatarrek bezalaxe egin zuten aurrera halabeharrak Arrasateko zubi batean elkartutako txinatar bi haiek. Eta bata bestearen ondotik pasatzean aire astindu ezdeus bat igorri zioten elkarri, ez besterik.

usteak uste

**Mirari Altube**

# Bidesari barik ere garestiegia

Oraintsu arte Gipuzkoako zulo baten bizi ginen debagoiendarrok Donostia aldeko askorendako; non zegoen seguru ere ez zekiten askok. Orain, baina, autobide dotorea egin digute eta ekainetik aurrera zabalik izango dugu Euskal Autonomia Erkidegoko tokirik garrantzitsuenetara ailegatzeko: Bilbo, Donostia eta Gasteiz. Eskertzekoak dira errepide onak, zelan ez, baina egin diguten hori uste dut garestiegi atera zaigula debagoiendarroi. Eta ez dut peaje edo bidesaririk aipatu.

marrazkiz

**Alex Ugalde**




blog-top

# Krisialdi ekonomikoa

**Joana Albret**
www.eibar.org/blogak/joana-albret

Barañaingo liburutegian *Gara* eta *Berria* egunkariak erosteko debekua politikoek eman ondoren, bazter guztietatik azaldu dira kritikak, batez ere ikusi dugunean Barañainen egindakoa Nafarroako herri liburutegi guztietara zabaldu nahi dutela, dagoeneko Iruñeko liburutegietan ere erosteko debekua eman baitute. (...).

EAEn duela urte batzuk, herri batzuetan, antzerako jukutria gertatu zen. (...).

Unescoren liburutegien adierazpenek informazioa eta ideiak eskuratzeko askatasuna bermatzea daukate oinarri. Ikus ditzagun zer nolako agindauk diren: liburutegietako zerbitzuak hiritar guztiei eskaini behar zaizkie, hiritartasuna, erlijioa, kultua, iritzi politikoa, sexua kontuan hartu barik; fondo publikoekin finantzatutako oinarrizko informazio zerbitzuak, materialak eta tresnak doan eskuratzeko aukera izango dute erabiltzaileek, eta erosteko ahalmena edozein izanda ere, erabiltzaile komunitateko kide guztiek eskubide berak izango dituzte; materialak eta baliabideak aukeratzerakoan, bertako komunitateen aniztasuna hartu beharko dute kontuan, eskainitako formatuei, hizkuntzei eta edukiei dagokienean; liburutegi bateko bildumaren garapena, liburuzainaren irizpide profesional independentean oinarrituko da, eragin politikoak, alderdikoiak, komertzialak edo beste motakoak kontuan hartu gabe, gutxiengoei, euren hizkuntzan dagoen materiala eskainiko diete, material hori, bertako kulturarekin lotuta eta euren komunitate zabalagoaren kulturan ilustratuta egongo da, hau ere bertako hizkuntzan.

Antzerako arrazoibideak ikusita Nafarroako arduradun politikoek bere horretan eusten badiote ere, beste argudio batzuk erabili dituzte. Hala, liburutegi nafarretan eguneroko prentsa erostearen ardura udalei dagokiela edo aipatutako egunkariak ez erosteko arrazoiak ekonomikoak direla adierazi du Juan Ramon Corpasek. (...)

koplak

**Manex Agirre**

# Zer da udaberria?

Horrelako zeozer
da udaberria:
emakume bat martxo
erdian jarria.

Kopeta ederraren
ertzetik hasia,
ilea du loretxo
politez josia.

Maiteak xuxurlatu
dio belarrira:
"Erle guztiak daude
Zugana begira".

Garai hontan erraza
da konturatzea
zein gauza polita den
enamoratzea.

(Parentesitan azken
bi koplak, dedio:
Hau adarjotze bat zen
ez hartu serio.

Sorta gustatuz gero
benetan, biba zu!
Baina edulkoranteekin
problema bat duzu).

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.


ALDEKO AURREZKIA ALDEAN
Primeran doakizun interesa.
Bizitza ulertzeko duzun moduari, teknologian, diseinuan eta erosotasunean azken-azkenekoaz baliatzeko duzun ohiturari doakiona. Aukera ezazu interesa zeure ohiko bulegoan, Telekutxako 901 333 555 telefonora deituz, web gunean: www.kutxa.net, edo kutxaren kutxazainetan.
Aukeratu eraman nahi duzuna
TV LCD-TDT 19"koa, eskuoihal edo toalla-jokoa, edo elikagaientzako ontzi hermetikoen sorta ere bai. Galdetu baldintzei buruz.
*****
tv
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

## Torresoroa berriz inauguratzen

**Jose Angel Zabalo, Jose Inazio Beltran, Dina Mujika, Basili Ormazabal eta Iñigo Ramirezde Okariz**
(EAJ-PNVko 2003-2007ko agintaldiko alkate eta zinegotziak)
Antzuola

2006. urteko San Juanetan, orain gobernua osatzen duten bi taldeen inguruan dabiltzan kideak sinadurak batzen hasi ziren Torresoroa eraikina egitearen aurka. Zementuaren monumentu eta demokrazia ezaren sinbolotzat jo zuten.

Garai haietan gobernua osatzen genuenok argi ikusi genuen mugimendu hura lideratzen zutenen benetako asmoa zein zen: presio demagogiko guztiak erabiltzea proiektua geldiarazteko. Torresoroa izango zena nork eraiki behar zuen erabakitzeko prozesua irekita zegoen eta geldiezina zen. Eraikina non eta nola egitearen eztabaida sei hilabete lehenago bukatu baitzen Antzuolako arauen aldaketarekin. Aho batez herriko udalak onartutako proiektua zen, gainera. Beraz, Antzuolaren onura bilatu baino, onura propioa bilatzen zuen mugimendu politiko baten aurrean aurkitzen ginen. Aurrera jotzea erabaki genuen eta 2008. urteko udazkenean erabaki horren emaitza ikusi ahal izan genuen, lehendabiziko inaugurazioarekin. 2008. urteko urrian, beraz, hirurogei bat kide gonbidatu zituen oraingo gobernuak "zeinen lan ona egin zuten" erakusteko asmoz. Antidemokratiko eta inguru baten suntsitzaile jotzen zuten obra harrotasun osoz erakusten zebiltzan guztiei. Dena den, hori gutxi iruditukо zitzaien zeren pasa den igandean, eraikin berberaren beste inaugurazio bat izan dugu berriz. Hain herentzia ezatsegina hartu ondoren, ondo lideratu dute proiektu honen inaugurazioa une batean proiektu honen aurka lideratu zuten berberek. Nola esaten zaio jokatzeko molde horri?

Baina ez da honekin dena bukatu. Izan ere, herriko plazan publikoki lotsarazten saiatzen dabiltzan Joxe Joan Gonzalez de Txabarriri gure esker ona adierazi nahi diogu. Ez zuen gizonak hain lan txarra egingo bi inaugurazio merezi dituen obra baten arduradun nagusietako bat izanik.

Antzuolako herriak goza beza eraikin hau eta batez ere eskaintzen dituen zerbitzuak eta ingurua, herriaren beharretara egokitzen dela argi gelditu da-eta.

## Eskerrik asko

**Pilar Etxaniz**
(Zinegotzia Antzuolako Udalean)
Antzuola

Domekan egin zen Antzuolako Torresoroako kultura areto berriaren inaugurazio ekitaldia. Estreinaldi ezin hobean parte hartu zutenei, egindako lana aitortu eta eskertu nahi die Antzuolako Udaleko Kultura batzordeak. Hain justu ere, txistulari taldeari, aurreskua dantzatu zuten Itziar eta Andoniri, abesbatzari eta Bergarako Metal Boskoteari.

Pieza ederrak eskaini eta bakoitzaren jatorria eta testuingurua azaldu zizkiguten, bertso eta olerki hunkigarriz borobilduz.

Nota musikalak pozik airean eta denon sentimenduak dantzan areto berrian. Eta, azkenik, txalo zaparrada, lan bikainak merezi duen bezala.

Aurten Torresoroako aretoa prest egon zedin egindako lana eskertu nahi diegu udal langileei ere: teknikari, brigada eta garbitzaileei, hain zuzen.

## Animuak Rekarterendako

**Mireia Lasagabaster**
Arrasate

Enteratu berri naiz Rekartek Eibarren jokatuko duela. Eta poztu egin naiz. Beragatik eta Eibarrengatik. Rekarteren berri azkenekoz Goienaren bidez izan nuen. GOIENKARIAn irakurri nuen elkarrizketan zioen beteranoen futbol txapelketak jokatzen ziharduela Realarekin. Dotore agertzen zen argazkian, Arrasaten zabaldu berri duen taberna, denda edo dena delakoan. Futbola, maila profesionalean, utzita zeukala zioen.

Orain, ostera, goi mailako futbolean segitzeko aukera du, etxetik gertu, bigarren mailan bada ere. Eta Realaren aurka jokatzeko aukera izango du, gainera. Saiatuko naiz Ipuruara hurbiltzen Eibarren eta Realaren artekora eta Bonbaren igoerekin gozatu nahiko nuke. Izan ere, asko gozatu dut urtetan haren driblinarekin, erdiratze bikainekin, golekin... Realean eman zituen azken urtean onak ez izan arren eta Almerian ere gauzak ondo ez atera arren.

Gogoan dauzkat Reala azkenekoz ligako txapeldunorde geratu zeneko partiduak. Orduan ikusi genuen Rekarte onena, azken urteetako Real onenarekin batera, Karpinekin eskumako hegala osatuz eta Xabi Alonsok maisuki banatzen zituen baloiekin bat eginez.

Bueno, nostalgiko jarri barik, animuak hemendik Aitorrendako, zorte on, eta ea laguntzen dien Urtzelai oñatiarrari, Uribe erdi aretxabaletarrari eta gainontzeko taldekideei, mailari eusten. Eta, ea Reala mailaz igotzen den, Ipuruan irabazita bada ere. Animuak eta aurrera!

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

P.F.F.ren gaineko deskontua stockean dauden Ford autoetan, Fiesta berria, Ka berria eta Kuga izan ezik.
Hilabete bukaera arte edo izakinak agortu arte. Ikusten den modeloa ez dauka zertan izan eskaintzen dena.

Prezio horiekin
oso gutxi iraungo dute.

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Feel the difference

%20ko deskontua.







**> ARRASATE**
Krisiaren aurrekontua onartuta, jaitsierarekin **> 12**





**> BERGARA**
'Bergara solidarioa' erakusketa GKEren lana azaltzeko **> 16**





**> ESKORIATZA**
Etorkinendako euskara ikastaroak izango dira apirilean **> 23**





**> ELGETA**
Diputazioak harri-lubeta egingo du Arrotan **> 25**


**ARRASATE** > SAN JOSEPE HARROBIRAKO IDEIA LEHIAKETA

# Birentzat sari nagusia, biek ere ibaia eta auzoaren bizitza kontuan hartzen dutenak

Ezin batekin geratu eta sari nagusia bi ideiak eskuratu dute; biek proposatzen dute zumardi zabal batekin hirigunea lotzea eta harrobiko jarduera erakargarria izatea



Donostiako Asmatu arkitektura estudioko arduradunak. DV



Azkoitiko Azule Paisaia Eraketa enpresako kideak. MIREN ARREGI

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

*Harrizate* eta *Tronera* proiektuak gertatu dira irabazle San Josepe harrobirako ideia lehiaketan. Erdibana egin beharko dute, beraz, 88.000 euroko saria. Bigarren sari bat ere egon da, *Kisky* proiektuarentzat, 12.000 eurokoa. Astelehenean bertan egin zuten defentsa bost finalistek –aitatuez gain aurkeztu zituzten *Kareharria Oinarri* eta *Suelo*– eta 24 ordu ere ez zituzten behar izan epaia emateko.

**URRINEGI ETA HANDIEGI**

Horiek, hain justu, San Josepeko harrobiaren ezaugarriak. Espazio berria hirigunearekin lotu ahal izatea eta espazio handi horri bizia ematea lortzea ziren erronka nagusiak. Celia Resano Azule enpresaren *Harrizate* proiektuaren arduradunetako bat da: "Hirigunearekin loturari konponbidea aurkitzea eta hobi itzelari giza-eskalan erantzutea izan dira zailtasun nagusiak". Lehiaketak zehaztutako irizpide guztiak integratu dituelako uste du hark jaso dutela saria. Edozelan ere, erabakiaren arrazoiak datorren astean plazaratuko ditu epaimahaiak. Azulekoak "oso pozik" daude sariarekin eta gainontzeko lau finalisten proposamenak "oso onak" zirela ere onartzen du Resanok.

**HARRIZATE ETA INGURUMENA**

Baliteke, hala ere, azkoitiarrek abantailaz jokatu izana, ze, hain zuzen, Azule enpresa sortu baitzuten Zestoako harrobiaren lehengoratze lehiaketan parte hartzeko. Ingurumen aditu eta arkitektoek bat egin eta Zestoa lehiaketa eskuratu zuten. Taldearen eraketa aintzat hartuta, ulertzekoa da *Harrizate*-ren muina ingurumenarekin bat datorren hiri-habitata sortzea izatea.

*Tronera* proiektua ere antzeko ikuspegitik abiatzen da, baina arreta berezia Deba ibaiari eman diote.

**'TRONERA' ETA IBAIA**

Betiere asmoa da harrobia erreferentziagune bihurtzea, herritarrak zein jarduera ekonomikoa erakarriz dorre itxurako bost eraikinekin. Bi proiektu saridunek herriari hazteko gune berria proposatzen diote, azpiegitura kulturalei eta aisialdiari arreta berezia emanez, baina, helburu orokor horrez gain, badaude proposamen bi (*Harrizate* zein *Tronera*) bat etorri direnak. Batetik, biek ibaiari aisialdirako garrantzia eman eta *Tronera*-k, adibidez, erreka-alboko aisialdi parke handi bat proposatzen du. Bestetik, hirigunea eta harrobia lotzeko San Andres auzoa birgaitzea proposatzen da bietan. *Harrizate*-n, kasu, oinezkoentzako bulebar zabal bat proposatzen du Araba etorbidean, eta bi proiektu irabazleetan, eraikin nagusi batzuk joango lirateke San Andres auzoko zumardi horretan bertan. Ideien arrakastaren gakoetako bi izan litezke horiek, epaimahaiaren arrazoiak jakiteke oraindik.

**IDEIAK JASOTA, GEROA ZABALIK**

Ideia lehiaketa izan da San Josepekoa, planteamenduena, eta saritu dena horixe izan da: proposamena. Udalak erabaki dezake irabazle batena gauzatzea edota finalista guztien ideien konbinazioa egitea. Zabalik segitzen du, hortaz, San Josepeko harrobiaren geroak, Arrasateren aurpegi berria izan daitekeen hori.

'HARRIZATE'

## Gazteak erakarri eta aisialdi gunea izan dadila

San Andres auzotik hasten da *Harrizate*; Araba etorbidea zumardi zabal bihurtu eta harrobirako sarrera horixe litzateke. Umezaintza dagoen lekuan legoke herriarekin lotura nagusia eta han ere planteatzen dituzte eraikinak. Harrobian bertan, erdian urmaela eta gune berdeak leudeke eta ekipamenduei dagokienez, batetik, egoitza eta etxebizitzak leudeke eta, bestetik, kirol azpiegiturak eta kulturalak edota campusa. Gazteentzako etxebizitza babestuak ere planteatu dituzte, haiek herrian geratzeko. Eskaintza kulturalak inguruetako erreferente bilakatuko luke harrobia.

'TRONERA'

## Aisialdigunea ibaian, lotura zuzena eta erabilera osoa

Harrobiaz gain, eta herrian integrazioa bermatzeko, bi gune planteatzen dituzte: San Andres auzoa biziberritzea eta Intxausti baserri aurrean ibai alboko aisialdigune zabala egitea. Igogailu horizontal bat ere planteatzen dute, helburu batekin: guneak 24 orduan izan dezala bizia. Industria, dentsitate handiko etxebizitzak eta aisialdirako eraikinak joango lirateke barruan, bost dorrerekin eta argia sartzen utziko luketenak. Autobusen geltoki bat ere proposatzen dute, lotura osoa berma dadin, eta eguzki-plaken gune bi eta olioa berrerabiltzeko lantegia ere bai.

'KISKY'

## Auzo bertikal berria, abangoardiaren gotorlekua

Eraikuntza bloke oso batek hartuko luke alderik alde harrobiaren kanpo perimetroa, zizare handi edo zubi baten modura. Azpian zein gainean kalea joango litzateke. Auzo berri bat egitea planteatzen da, modu bertikalean, gainera. Eraikinzubiak mota guztietako jarduerak hartuko lituzke: etxebizitzak, merkataritza jarduera, hotelak zein bulegoak. Irudiaren museo bat ere planteatzen dute, bisitariak kanpotik ere erakartzeko. Eraikinaren kubierta zein harrobia herritarren aisialdirako gune zabala litzateke, kirol instalazioekin eta kulturalekin.

**ARRASATEKO UDALA** > 2009KO AURREKONTUA

# Krisiaren aurrekontua onartuta, jaitsierekin

PSE-EEk egin zuen kritikarik zorrotzena; EB-Zutik koalizioak, berriz, osotasunari emendakina eta beste 50 emendakin partzial aurkeztu zituen




Inbertsiorik potoloena Etxaluzen eraikitzen diharduten Abaroa berria eta San Andresko alkatetzarako eraikinerako da. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Ezusteko barik eta GOIENKARIAk iragarritako moduan, alkatearen kalitateko botoarekin onartu du udalbatzarrak aurtengo aurrekontua. Bozketaren emaitza ere, iragarritakoa: zortzi boto alde: Talde Mistoa eta EA; kontrako beste zortzi: PSE-EE, EB-Zutik eta PP; eta lau abstentzio: Aralar eta EAJ (EAJren gainean, akatsez hiru zinegotzi dituela esan genuen aurrekoan; bada, lau zinegotzi dira).

Gauzak horrela, Arrasateko Udalak badu urtealdi honetarako aurrekontua: 43.600.000 euro pasatxo. Orokorrean begiratuta, iazkoa baino %1,94 txikiagoa da; izan ere, Iturbiden izan ezik, aurrekontu orokorra osatzen duten gainerako bi erakundeetan (AUKEA eta Udala) jaitsi egin dute gastatzeko diru kopurua.

**ZENBAIT MURRIZKETA**

Izan ere, krisiaren aurrekontua da udalbatzarrak onartu duena. Horren adibide da inbertsio jakin batzuk murriztea erabaki dutela, "aurreikusitako inbertsioak egoki gauza daitezen bermatzeko". Adibidez: Udal Artxibo berria egiteko asmoa 2010erako utzi dute; eta gauza bera egin dute alde zaharrean Gazteluondo eta Ferreriasen artean egin gura zuten pasabidearekin eta Zalduspe eta Araba etorbideari dagozkien proiektuekin

Beste adibide bat: lurpeko edukiontzietarako aurreikusitako kopurua kendu egin dute, gura dutelako "eztabaidatu" zaborren bilketarako "zer sistema erabili behar" duten.

### Inbertsio nagusiak

| | KOPURUA MILIOI EUROTAN |
|---|---|
| Etxaluze (Abaroa berria eta San Andresko alkatetza) | 2,86 |
| Zerrajerako urbanizazioa | 2,65 |
| Ferixaleku-Altamira igogailua | 1,87 |
| Iturbideko erreformak | 1,10 |
| AUKEAko inbertsioak | 0,55 |
| Ur-sarea eta argiteria publikoa | 0,53 |
| Hezkuntzako inbertsioak | 0,50 |
| Udala-Besaide ibilbidea berreskuratzeko | 0,45 |
| Bide publikoan lanak | 0,36 |
| Aldaiko parke berria (Estatuko Fondotik) | 1,86 |
| Santamaina birgaitzea (Estatuko Fondotik) | 1,69 |
| **GUZTIRA** | **14,4 Udalak + 4 Estatuko Fondotik** |

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

**MAILEGU BEHARRIK EZ**

Bestela, 2009ko aurrekontuaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira: Diputaziotik datozen diru-sarreren murrizketa izango da, eta eraikuntzako jarduerarekin lotutako diru sarrerak murriztu egingo dira. Ondorioz, Udalak berak diru gutxiago eskuratuko du

Krisiak krisi, baina, inbertsioak egiteko "ahalegin garrantzitsua" egin behar dutela azpimarratu du Udal Gobernuak (14,4 milioi euro Udalaren aldetik eta beste lau milioi euro Estatuko Fondotik). Eta azpimarratu du, baita ere, 2009a hasteko "egoera ekonomiko ona" izango dela Udalean, "espero baitugu 2008ko urtealdia ixtea 6,5 milioi euro inguruko soberakinarekin, eta horrek ekarriko digu oreka 2009ko kontuetan, mailegu berririk hartu barik". Iragarri dute, bestelakoen artean, "gastu korronteari eutsi eta egokitzeko irizpidea" erabiliko dutela.

**HAURRESKOLA BERRIA**

Sailez sail begiratuta, azpimarra dezakeguna da Udaleko 13 batzordeetatik hirutan bakarrik igoko dela aurrekontua: Hezkuntzan (%56,05), Ongizatean (%18,96) eta Gazterian (%10,67).

Hezkuntzari dagokionez, sail horrek halako igoera handia izatearen arrazoia da, besteak beste, Musakolan Haurreskola berria egin gura dutela.

Gizarte Ongizateari begiratuta, berriz, ia %19 igoko da, krisiak eragindako laguntza sozialei aurre egin ahal izateko.

Bestalde, aurten igoko den beste diru partida bat da udal langileen soldatei dagokiena: KPI gehi puntu lineal bateko igoera.

Aurrekontuen proiektua jendaurrean ipiniko dute hilabetez, gura duenak kontsulta dezan.

### Aurrekontua zehatz-mehatz

| | KOPURUAK ZENBAKITAN |
|---|---|
| Udala | 40.836.525 |
| Iturbide | 2.795.575 |
| AUKEA | 1.720.000 |
| **GUZTIRA** | **43.648.987, 83** |

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

**ITURBIDE EGOITZA** > LANGILEEK PROTESTA

# Iturbideko langileei egindako eskaintza "ona" da

Ino Galparsoro alkateak jakinarazi du Udalak eskaini diela lau urtean %30,65 igotzea soldata; horrek esan gura du 2009an %10eko igoera izango luketela; oraingoz, ez dago akordiorik

**U.M.** > ARRASATE

Datozen lau urteotan soldata %30,65 igotzea, edo, bestela esanda, 2009an soldata %10 igotzea. Hori da Udalak Iturbide egoitzako lan auzian protestan diharduten azpikontratatutako langileei egin dien eskaintza.

Udaleko ordezkariek gaineratu zuten behin lau urteak pasata berriro ere egoera aztertu beharko litzatekeela erabakitzeko azpikontratarekin segitu edo zuzeneko kontrataziora pasatzea; azpimarratu zuten eurak azken puntu horren aldekoak direla..

Prentsaurrekoa egin dute asteon hori guztiori azaltzeko, Iturbidekoen protestak ikusita, Arrasateko Udalaren jarrera eta eskaintza zein den azaltzeko.

Besteak beste, Ino Galparsoro alkateak azpimarratu gura izan du Udalak azpikontratatutako langileei egin dien eskaintza "ona" dela, une honetan Gipuzkoako klinika laguntzaileek negoziatzen diharduten hitzarmenaren baldintzak baino hobea da, alkatearen esanetan. Hala ere, langileek eskaintza hori onartu ez eta datorren martitzenerako (martxoaren 24rako) iragarri duten grebarekin aurrera egitea erabakitzen badute, zerbitzu minimoak ondo finkatu beharko liratekeela uste du alkateak.

**SOZIALISTEK ETENDA**

Prentsaurrekoan, egoitzako azpikontratatutako langileen auzia aspalditik datorrela ere azpimarratu zuen Arrasateko alkateak. Aditzera eman zuen 1996anUdal Gobernuak akordioa egin zuela Alderdi Sozialistarekin, aldi baterako akordioa, apurka-apurka, langileen kontratazio zuzena bultzatzeko helburuarekin, baina bi urte geroago sozialistek akordioa eten egin zutela eta azpikontratatutako langileek enpresa sortu zutela, Untza.

**GREBA DEIALDIA, BERDIN**

Bestalde, Untza enpresako langileen ordezkariak berretsi egin dio GOIENKARIAri eurek egindako greba deialdiak indarrean segitzen duela. Juan Ramon Garaik ESK sindikatuko ordezkariak emandako xehetasunen arabera, Udalak egin dien soldata igoera baino 200 euro gehiago gura dituzte hilero Iturbideko azpikontratatutako langileek, edo, bestela esanda, Iturbiden lanean diharduten hiru udal langileek dituzten lan-baldintza berak; parekotasuna, beraz.

**UZTAILA EZKERO PROTESTAN**

Uztailean hasi ziren Iturbideko langileak Udalarekin gai horren gainean berba egin guran. Negoziaziotan ibili arren adostasunik lortu ez, eta otsaila ezkero eguerdiro elkartzen dira Herriko Plazan protesta egiteko. Gaur egun 35 bat langile ditu egoitzak; horietatik hiru bakarrik dira udal langileak; gainerako guztiak Untza enpresakoak dira, Udalak azpikontratatu egiten dituenak.

**EMAKUME TXOKOA**

## Film laburren lehiaketa deitu dute

**E.M.** > ARRASATE

Arrasateko Emakume Txokoak *Labur-laburrak* delako film labur lehiaketa deitu du.

Landu beharreko gaia hauxe da: emakumeenganako biolentzia. Lan guztiak DVD euskarrian bakarrik aurkez daitezke, eta gutunazal baten, lanaren eta egilearen gaineko datuak. Gehienezko iraupenak bost minutukoa izan behar du. Honako sariak banatuko dituzte: irabazleak 400 euro; eta euskarazko lan onenak, 300 euro.

Lanak entregatzeko epea 2009ko ekainaren 22ra arte izango da zabalik. Interesatuek Emakume Txokora edo 943 79 41 39 telefono zenbakira jo dezakete argibide eske.

**BERDINTASUN SAILA**

## Emakumeak protagonista zinema zikloan

**E.M.** > ARRASATE

Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, emakumeen gaineko IV. zinema zikloa izango da martxoaren 26tik apirilaren 23ra. Emakumeek zuzendu eta emakumeak protagonista dituzten filmak eskainiko dituzte astero Amaia antzokian.

Lehen emanaldia datorren eguenean, hilak 26, izango da. Marisa Lafuenteren *Rémoras* film laburra eta Maitena Muruzabalen eta Candela Figueiraren *Nevando voy* filma emango dituzte, 20:00etan. Hurrengo emanaldia apirilaren 2an izango da: *Pasemos al plan B* film laburra eta *Reyita* filma.

**GARRAIOA** > ESTATISTIKA

# Herriko urbanoaren bidaiari kopuruak gora egin zuen iaz

### Aurreko urtearekin konparatuta, %2,4ko igoera izan du; 180.770 lagunek erabili zuten iaz

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Iazko jardunaldiari dagozkion autobus urbanoaren gaineko datuak argitaratu ditu Udaleko Obra eta Zerbitzu Sailak. Horien arabera, bidaiari kopuruak gora egin duela azpimarratu beharra dago. Aurreko urtearekin konparatuta, %2,4ko igoera izan du. Eta zerbitzua abiarazi aurretik egindako erdiko aurreikuspenak baino %6,95 bidaiari gehiago ibili da autobusean.

Joan den urtean, guztira, 180.770 lagunek erabili zuten Arrasateko autobus urbanoa. Horien artean 86.492 bidaiari pasatxo lehenengo linean ibili ziren eta beste 85.210 bidaiari pasatxo bigarren linean.

**BONOBUSAREN ARRAKASTA**

Udalak emandako datuen arabera, bidaiarien artean gehiengoak bonobusa erabiltzen du autobusean ibiltzeko: %64,95ak hain zuzen ere. Gainerako erabiltzaileek (%35), berriz, nahiago dute txartel arrunta erabiltzea. Eta azkeneko urteetan moduan, zerbitzua gehien erabiltzen den eguna da egubakoitza eta gehien erabiltzen den hilabetea, berriz, iraila. Ordutegiaren azterketa ere egin du Udaleko Obra eta Zerbitzu Sailak: horren arabera, urbanoa gehien erabiltzen den ordua da eguerdi ingurukoa, hau da: 11:00etatik 12:00etara bitartean. Gutxien erabiltzen den ordua, aldiz, 20:00etatik 21:00etara.

Datuak aztertuta, berriz, labur esanda, bidaiari kopuruak gora egin duela azpimarratu beharra dago. Aurreko urtearekin konparatuta, %2,4ko igoera izan du, edo bestela esanda, 4.188 bidaiari gehiago ibili dira aurten. Eta zerbitzua abiarazi aurretik egindako erdiko aurreikuspenak baino %6,95 bidaiari gehiago ibili da autobusean.



Autobus urbanoa Otalora kalean. Udaleko datuen arabera, astean zehar egubakoitzetan erabiltzen da gehien. U.M.

**AISIALDIA** > APIRILAREN 14TIK 18RA

## Gazte txokoen eskutik irteerak eta ekitaldiak Pazko Astean

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Pazko Asteari begira ekintza eta irteera ezberdinak antolatu dituzte gazte txokoetatik. *Rafting* egitera eta zaldian ibiltzera joateko irteeretan plaza mugatuak dira eta apirilaren 5a baino lehen eman behar da izena, 20 euro ordainduta. Beste ekitaldiak hauek dira: saskibaloi txapelketa, afari merienda Erguinen eta zinema emanaldia (apirilaren 15ean); eta patata tortilla lehiaketa eta afrikar perkusio tailerra (17an). Gazte txokoak apirilaren 14an zabalduko dituzte, 17:00etatik 20:00etara.

**ERROBIRA ETA BARAIBARRERA**

*Rafting* egitera Errobi ibarrera joango dira gaztetxoak apirilaren 16an, eta 18an Baraibarko zalditegira. Argibideak: 943 79 54 46 zenbakia edo *www.goiena.net/blogak/gaztetxokoak*.

**bere ustez**


Maialen Gonzalez

## Bitartean aldaketen esperoan...

Mundu mailan gertatutako aldaketek, bertan bizi garenok zipriztintzen gaituzte modu batean zein bestean. Gertuago ematen diren aldaketen ondorioz, aldiz, zipriztin horrek gehiago ala gutxiago bustiko gaitu. Busti, ala, hobeto esanda, zikindu.

Martxoaren 1ean izandako hauteskundeen ondoren Ajuria Enea lau urtez etxetzat izango duena oraindik ere ofizialki esan ez den arren, batzuek besteek baino argiago ikusten dute beren etorkizuna. Eta, aldi berean, askok geroz eta ilunago ikusten dugu geurea.

> **"Askok geroz eta ilunago ikusten dugu geure etorkizuna hauteskundeen ostean"**

Lau urtetan aldaketa askoren lekuko izan gaitezke azken erabakia zein izango den arabera. Lehendakaritzan urtetan egon ez den eraldaketa gertatzea ezinbestekotzat hartzen dute askok, baina aldaketak onerako izateko ziurtasunez? Askotan, aldaketa behar duen horrek parean duen ordezkoa ez baita hobea izaten.

Lau urte berehala igarotzen direla diote batzuek; nire aburuz, ordea, lau urte egun asko dira eta azkar igaroko ote diren ez daukat hain argi. Argi daukadan bakarra zera da, Euskal Herriaren bidea euskaldunok eraiki beharrekoa dela.

**oharrak**

ERRETIRATUAK

**> Abaroa elkarteak urteko batzarra egingo du hilaren 30ean**

Abaroa erretiratuen elkartearen urteko batzarra martxoaren 30ean, 17:00etan. Presidente berria aukeratuko dute, besteak beste.

GAZTETXOAK

**> Ludoteka ibiltaria**

Ludoteka ibiltaria Garagartzan izango da bihar, zapatua, 11:00etatik 13:30era. Gurasoei eta haurrei bertara joateko gonbidapena egiten diete.




BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82


*Bidaia intimoak* dokumentalaren kartela. ARRASATEKO UDALA

**IKUSKIZUNA** > KORRIKA KULTURALA

# Film laburren zirkuitua eta 'Bidaia intimoak' dokumentala Kulturaten

Jon Maiak bere dokumentala aurkeztuko du eguaztenean eta film Laburren zirkuitua eguenean iritsiko da Kulturatera

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

Korrika kulturala programaren barruan film laburren VI. zirkuitua Arrasatera iritsiko da eguenean, martxoaren 26an, AED eta Topagunearen eskutik. Kulturaten eskainiko dute emanaldia 18:00etatik aurrera. Bertan zortzi film eskainiko dituzte eta guztira ordubeteko iraupena izango dute. Zortzi filmen artean debagoiendarrek egindako bi daude: Iban Del Campo arrasatearraren *Lo bakarrik* eta Yera Sanchez aretxabaletarraren, *P.D.: Ondo ibili*. Del Camporen filmean insomnioak jotako emakume batek dena probatu du, eta hala ere ezin du lorik egin. Ezagutzen du inork lokartzeko moduren bat, hutsik egiten ez duena? Laburmetrai honetako protagonista edozertarako gertu dago. Yera Sanchezen filmean, berriz, Leire da protagonista, eta munduari bira eman nahi dio baina ezin du. Irudimena erabiliko du bisitatu nahi dituen hiriak Donostian bertan aurkitzen. Beste sei film laburrak ondorengoak dira: *Berde, Musika, Poema baten irakurketa Euskal Herrian, Egiatik gezurrezko bizitzara, Kabia* eta *Bankuaren lapurreta*.

**JON MAIAREN DOKUMENTALA**

Korrika kulturala programaren barruan dokumental indartsu eta sakona prestatu du AEK-k, Jon Maiaren zuzendaritzapean: *Bidaia intimoak*. Eguaztenean Kulturaten ikusteko auera ziango da, 19:00etan. Euskarara gerturatu diren lau pertsonen testigantzak jasotzen ditu dokumentalak, eta herriz herri ikusteko aukera izango da Korrika Kulturalaren baitan.

**MUSIKA** > KONTZERTUAK

# Metala izango da nagusi asteburuan zehar 3.60 aretoan sei kontzerturekin

Gaurko eta biharko kontzertuak 22:30ean hasiko dira eta sarrerak bost eta 10 euro balioko dute hurrenez hurren

**J.Z.** > ARRASATE

Gaurko eta biharko gauak metal gauak izango dira 3.60 aretoan. Gaur hiru talde ikusi ahal izango dituzte aretora hurbiltzen direnek, 22:30ean. Euskal Herriko hardcore trash metal taldeak izango dira: Bermeoko Ost taldea, Andoaingo Kudai eta Bergarako Rotten Tennagers.

Hamalau urte taula gainean gitarrak astintzen ari diren bermeotarrek *Inorena ez den lurrean* laugarren diskoaren aurkezpena egingo dute gaur. Kudai taldea, berriz, duela zazpi urte sortu zen Donostian eta *Hutsa* bere diskoko abestiak joko dituzte; azkenik, Bergarako Rotten Tennagers taldekoek emango diote amaiera gaurko gauari. Sarrerak 5 euro balioko ditu eta ateak ordu erdi lehenago zabalduko dituzte.

**ESTATUKO METAL BELTZA, BIHAR**

Bihar, berriz, black metal kontzertua izango da beste hiru talderekin: Coruña aldetik Marthyrium taldea etorriko da; Kantabriatik Eldereon eta Valentziatik Profundis Tenebrarum. Sarrerak 10 euro balioko du eta kontzertu hori ere 22:30ean hasiko da.

Marthyrium taldea 2006an sortu zen eta 2007an egindako azken diskoaren aurkezpena egingo du Arrasaten: *Rites of Vengeance & Darkness*.

Kantabria aldetik Eldereon taldea etorriko da. Duela 14 urte sortutako taldea da, eta 2007an egindako diskoaren abestiak joko dituzte. Azken disko horren izena *Insane dreams of the forgotten ones* da. Azkenak taulara igotzen valentziarrak izango dira. 1997 urtean atera zuten beraien lehen diskoa –*Dark and eternal*– eta aurten zazpigarrena kaleratu dute: *Pathogenesis*. Disko horretako abestiak joko dituzte Arrasateko aretoan.

> ZINEA

### 'La clase' filma Amaia Antzokian asteburu osoan

Amaia Antzokian gaur hasi eta astelehenera bitartean, *La clase* izeneko filma– domekan ez dago saiorik– eskainiko dute.

Horrela, gaur gauean saioa egongo da 22:00etan; bihar, zapatua, 19:30ean, eta astelehenean 20:30ean. Sarrerek 4 euro balioko dute gaur eta bihar eta astelehenean 3 euro.

Laurent Cantet zuzendariaren La clase filmak Urrezko Palmondoa irabazi zuen Cannesen. Zera kontatzen da: auzo gatazkatsu batean, irakasle batek ikasleekin dituen arazoei nola egiten dien aurre. Oscar sarietarako ere izendatu zuten filma.

> ERAKUSKETA

### Homofobiaren hainbat aurpegi ikusgai domekara bitartean

Arrasateko sexologia zerbitzuak antolatuta *Homofobiaren aurpegiak* izeneko erakusketa antolatu dute. Homofobia, lesbofobia eta transfobia adierazpenak oraindik ere ematen dira, eta mehatxu bat izaten jarraitzen dute.

Horregatik, Euskal Herriko Gay-les Askapenerako Mugimenduak (EHGAM) fobia horiei buruzko zenbait aspektu erakusteko erakusketa bat antolatu du. Ehun bat kasu aukeratu ditu, bere garaian oihartzun haundiagoa edo txikiagoa izan zutenak. Domekara arte ikusgai egongo da kulturateko klaustroan.

IAMAI kafe ANTZOKIA
ARRASATE
Gaur martxoak 20
00:00etatik aurrera
Sebas "El rayo"
Umorezko kantua



UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

**ATLETISMOA** > ESPAINIAKO TXAPELKETA

# Lore Marrek zilarra eta Maialen Axpek brontzea

Oviedon egindako Espainiako Atletismo Txapelketan Arrasate Kanpanzar atletismo taldeko atletak podiumera igo ziren; gainera, euren markak hobetuta itzuli ziren


Lore Mar, Jonathan Perez (entrenatzailea) eta Maialen Axpe Oviedon. ARRASATE KANPANZAR ATLETIKO TALDEA

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE
Arrasate Kanpanzar Atletiko taldeko ordezkariak pozik itzuli ziren joan den astean Espainiako Txapelketatik, Lore Mar eta Maialen Axpe podiumera igo zirelako. Asteburua borobiltzeko urrezko domina falta izan zitzaien, Lore Marrek oso-oso gertu izan zuelako, baina hala ere emaitza ikusgarriekin itzuli ziren.

Podiumeko lehenengo mailara Raquel Cosme kataluniarra igo zen (3,41), eta bigarren sailkatu zen Lore Marrek ere marka bera egin zuen, 3,41; baina, kataluniarrak baino baliogabeko salto gehiago egin zituelako izan zen Mar bigarrena. Hain zuzen, aste bat lehenago 3,40 metroko saltoa egin zuen atleta aretxabaletarrak, eta Oviedon zentimetro batean hobetu zuen bere marka; gainera, gutxigatik ez zuen listoia 3,46 metrotan gainditu. Hala, 3,41 metroko markarekin Olatz Alkainek 2005etik duen errekorra berdindu du.

Maialen Axpek ere bere marka pertsonala hobetu zuen eta 3,36 metroko saltoa eginda hirugarren postuan sailkatu zen (ordura arte 3,30 metroko marka zeukan, pista estalian). Oraindik, baina, bi atleta horiek gazte mailako errekorrak hobetzeko tarte handia dute, izan ere, Mar eta Axpe gazte mailako lehenengo urtekoak dira eta beste urtebete egingo dute kategoria horretan.

**ESKALADA**> BOULDERREKO EUSKAL LIGA

# Arrasatekoak aurreko postuetan

Boulderreko Euskal ligako lau jardunaldi egin ostean Arrasatekoak aurrean sailkatu dira

**X.U.** > ARRASATE
Gasteizko Stadio, K2 eta Hegoalde kiroldegiekin batera Amurrion egin dituzte Boulder Ligako jardunaldiak, eta bertan egindako lanari esker Arrasatekoak aurrean sailkatu dira.

Elite mailan Mikel Velasco bigarren sailkatu da, eta maila herrikoian onena izan da Iñaki Viejo. Gizonezkoekin batera, baina Arrasatek emakumezko ordezkariak ere izan ditu, eta lan oso ona egin dute, gainera. Nahia Bizkaino lehena izan da 18 urtez azpiko kategorian, eta Miriam Mulas bigarrena izan da kategoria berean. Arrasateko Debagoiena Eskalada Taldekoak gustura geratu dira emaitza horiekin.


Velasco, Bizkaino eta Mulas garaikurrekin. DEBAGOIENEKO ESKALADA TALDEA

> ARETO FUTBOLA

## Jardunaldi barik Zaldibarreko txapelketan

San Jose eguneko zubiaren kontura, Zaldibarreko txapelketako antolatzaileek ez dute partidurik zehaztu aste bukaerarako. Hortaz, txapelketako hurrengo partiduak hilaren 27an eta 28an jokatuko dituzte.

Aurreko aste bukaeran baina, hainbat partidu jokatu zituzten emaitza hauekin: Ekaitz Taberna 7, Betrayer 2; Abokajarro 4, Cipris 3; Paulaner Dribling 6, Lasagabaster 4; Abokajarro 1, Paulaner Dribling 7; eta Mcawen Dauen 3, Dublin Irish Pub 7.

> SASKIBALOIA

## Maila mantentzeko hirugarren garaipena eskuratu gura du MUk

Mondragon Unibertsitateak jaitsiera faseko hirugarren partidua jokatuko du bihar 18:00etan, Iturripen, Goierraren aurka. Javi Zurbanoren mutilek helburu bakarra dute biharko: partidua irabaztea.

Jaitsiera fasea hasi zutenean garbi esan zuten hamarretik zazpi partidu irabazi behar zituztela. Dagoeneko lehen biak irabazi dituzte, eta hirugarrena behar dute bihar. Beste behin, zaleen animuka eskatu dituzte Ointxe! saskibaloi taldeko kideek.

> IKASTAROA

## Oinarrizko urpekaritza ikastaroa egingo dute

Arrasateko Udalak eta KSUB urpekaritza zentroak antolatuta oinarrizko ikastaroa egingo dute hilaren 24tik apirilaren 6ra arte. Eskola teorikoak Kulturaten egingo dituzte eta praktikoak Musakolako igerilekuan. Ikastaroa bukatzeko lau murgiltze egingo dituzte Getarian, itsasoan. Parte-hartzaileek urpekaritza egin ahal izateko nazioarteko titulua eskuratuko dute. Izena emateko edo informaziorako 943 14 01 85 telefonora dei daiteke.

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

**JENDARTEA** > ELKARTASUNA

# GKEek euren lana erakutsiko dute 'Bergara solidarioa' erakusketan



Inazio Arregi, Marcos Gabilondo, Mikel Gantxegi, Roberto Martinez, Leire Etxeberria eta Mila Andueza, aurkezpenaren ostean. J.Z.

## Erakundeak eta euren proiektuak

**Mundu Solidarioa Helburu**
Proiektua: gaitasun ezberdinak dituzten gazteendako irisgarritasuna eta integrazioa, Diriamban.
Non: Carazo (Nikaragua).

**Oscar Romero Solidaritza Batz.**
Proiektua: Monte Hermoso Centro baserria erabat garatzeko gizarte azpiegitura antolatzea.
Non: Tacuba (El Salvador).

**TAU Fundazioa**
Proiektua: Boliviako Beni departamenduko Marban eta Cercado lurraldeetan baliabiderik gabeko pertsona ezinduen ardura.
Non: Beni (Bolivia).

**Bubisher elkartea**
Proiektua: errefuxiatu sahararren kanpalekuetako ezgaituendako ikastetxeak.
Non: Tinduf (Aljeria).

**Komite Internazionalistak**
Proiektua: emakume liderrak trebatzeko prozedurak eta gorabehera politikoekin lotutako neurriak.
Non: Masaya (NiKaragua).

**Felix-Baltistan Fundazioa**
Proiektua: edateko ura hornitzeko sistemaren eraikuntza.
Non: Balaygone (Baltistan).

**FISC**
Proiektua: Baba Simon izeneko eguneko zentroan ikastetxeari dagokion gunea egokitzea eta modu iraunkorrean jarduten irakastea.
Non: Kamerun (Afrika).

**Mundukide**
Proiektua: CIPA kooperatibaren (hegaztiak hazten dituzte) produkzio gaitasuna handitzea.
Non: Ekuatore Ginea.

Udalak diruz lagundutako zortzi erakunderen proiektu bana egongo dira ikusgai osoko bilkuren aretoan

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Martitzenean *Bergara solidarioa* izeneko erakusketa irekiko dute osoko bilkuren aretoan. Gobernuz kanpoko zortzi erakundek Udalak emandako laguntzarekin egindako proiektuak ikusi ahal izango dira erakusketa horretan.

Roberto Martinez Ongizate zinegotziak erakusketaren aurkezpenean esan zuen moduan, "asmoa da herritarrei erakustea GKEek Udalaren laguntzarekin egiten dituzten proiektuak; azaltzea ze proiektu egiten diren eta ze elkartek eroaten dituzten aurrera".

Martinezek gehitu zuenez, erakusketaren ideia sortu zen erakundeetako eta Udaleko ordezkariek aldiro egiten dituzten batzarretan.

**ZORTZI ERAKUNDE, PANELETAN**

Zortzi erakunderen proiektuak egongo dira ikusgai: Mundu Solidarioa Helburu, Oscar Romero Solidaritza Batzordea, TAU Fundazioa, Bubisher elkartea, Komite Internazionalistak, Felix-Baltistan Fundaizoa, FISC eta Mundukide.

Hain justu ere, Udalak 2007an emandako laguntzarekin erakundeek 2008an garatu zituzten proiektuak egongo dira ikusgai. Urte hartan 62.000 euro inguru bideratu zituen Udalak elkartasun proiektuetarako eta aurten ere antzeko kopurua bideratuko dutela aurreratu zuen Roberto Martinez Ongizate zinegotziak.

Mundukideko ordezkari Mikel Gantxegik azaldutako moduan, bederatzi panelek osatuko dute erakusketa: "Erakunde bakoitzak panel bat izango du, modu sinplean 2008an egindako proiektua azaltzeko. Sei bat argazki eta informazio orokorra jasoko dute panelek".

Bestetik, bederatzigarren panel bat ere egongo da. Hori erabiliko dute "munduaren egoeraren ikuspegia" emateko, Gantxegiren esanetan.

**MARTXOAREN 30ERA ARTE**

Osoko bilkuren aretoan egongo da ikusgai erakusketa martxoaren 24an hasi eta 30era bitartean. Honako ordutegia izango du: astegunetan, 18:00etatik 20:00etara eta aste bukaeran, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etatik 20:00etara.

Astean barrena, goizez, ikasleendako bisitak antolatuko dituztela ere aurreratu zuten prentsaurrekoan.

**AZPIEGITURAK** > SAN PEDRO KALEA

# Bi enpresa espezializatu ari dira San Pedroko arazoa aztertzen

Datorren astean jasoko du Udalak azterketaren emaitza eta orduan jakingo du arazoaren muina zein izan den

**M.B.** > BERGARA

Martxoaren 1ean ireki bazuten ere, San Pedro kalea berriz itxi dute ibilgailuendako. Kalean galtzada-harriak jartzeko lanak bukatu eta ibilgailuendako ireki eta berehala galtzada-harriotako asko jasotzen hasi ziren.

Hori dela eta, Udalak kalea itxi eta bi enpresa espezializatu kontratatu ditu arazoaren arrazoia zein den jakiteko. Bi enpresaren iritzia jaso nahi izan dute, Udaletik adierazi dutenez "arazoa potoloa" da-eta.

Enpresok egunotan jardun dute morteroaren laginak hartzen eta entseguak egiten, eta, Udaletik aurreratu dutenez, emaitzak datorren astean jasoko dituzte.



Bi langile, eguenean, galtzada-harriak ipintzen. JASONE ZABALA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

**ZERBITZUAK**

## Turismo Bulegoak denboraldia ireki du

**M.B.** > BERGARA

Zubiarekin bat eginez hasi du denboraldia Turismo Bulegoak. Astelehenean, hilak 16, zabaldu zuten eta halaxe egongo da Pazko Astea amaitu arte, apirilaren 19ra arte –martxoaren 29an eta apirilaren 5ean itxita egongo da–. Bertako zein kanpotik etorriko diren bisitariei zerbitzu emango die eta doako bisita gidatuak ere egingo dituzte. Ordutegiari dagokionez, 10:30-14:00 eta 16:30-19:30 ordutegian egongo da zabalik. Jaiegunen kasuan, goizetik bakarrik egongo da zabalik, Eguen Santuan eta Egubakoitz Santuan izan ezik, egun osoan egongo da-eta.

Udako denboraldirako zabalduko dute berriro ere bulegoa: ekainaren 5etik urriaren 12ra egongo da zabalik. Abenduan ere zabalduko dute, 3tik 10era.

**ZERBITZUAK**

## Umeendako ur estimulazio ikastaroa asteburuetan

**M.B.** > BERGARA

6 eta 36 hilabete arteko umeendako ur estimulazio ikastaroa antolatu du Kirol Zerbitzuak. Aste bukaeran izango da, zapatuan eta domekan, apirilaren 25etik uztailaren 18ra. Ordutegiaren kasuan, 6 eta 24 hilabete arteko umeek bi aukera izango dituzte: 10:15-10:45 eta 11:15-11:45. Bestetik, 25 hilabete eta 3 urte arteko umeen ordutegia izango da 10:45-11:15. Izenematea da martxoaren 25etik apirilaren 7ra. Informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 77 70 95 zenbakira.



Argi dentsitate handien duen guneetako bat da Zurradero. Gainera, globo motako farola kutsakorrak ditu. GOIENKARIA

**INGURUMENA** > ARGI KUTSADURA

# Herriko kaleetan dauden farolen %44k argi kutsadura eragiten dute

Argi kutsaduraren gaineko azterketa egin du Udalak, eta orain, egoera hobetzeko neurriak hartu nahi dituzte

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Ingurumen Sailaren ekimenez energiaren eraginkortasunaren eta argi kutsaduraren gaineko azterketa egin da herrian. Azterketa horretan kaleko argiteriaren instalazioen diagnostikoa egin dute eta Naiara Corcuera Ingurumen teknikariak azaldutako moduan, "oso ondorio interesgarriak erakusten ditu lanak".

**ONDORIO INTERESGARRIAK**

Herrian barrena mota askotariko 1.672 farola daude eta argiteria publiko horrek herritar bakoitzari 12 euroko gastua eragiten dio, urtean.

Horrez aparte, farola horien %44k argi kutsadura sortzen dute; hau da, argia gorantz bidaltzen dute eta, ondorioz, zerua eta etxeen aurreko aldeak argiztatzen dituzte. Bestetik, kontuan hartu behar da, baita ere, bonbillen %27 hondakin toxiko eta arriskutsuen sortzaile direla.

Hala, azterketak zera ondorioztatu du: herriko argi puntuen %56 kutsakorrak direla eta sortzen den argi guztiaren %12 alferrik galtzen dela. Hori dela eta, Naiara Corcuerak hauxe gehitu du: "Argia kaleak argiztatzeko bakarrik erabiliz gero, 18.254 euro aurreztuko genituzke urtean".

**HOBETZEKO NEURRIAK**

Azterketaren emaitzak erronka berria ekarri dio Udaleko Ingurumen sailari eta emaitzok hobetzeko neurriak aztertzen dihardute, Naiara Corcuerak azaldu duenez: "Lehenengo neurria argia gorantz botatzen duten farolak ordezkatzea da, globo motako farolak, hain justu. Lehentasunezko guneak ere zerrendatuta daude: Zurradero eta Ibargarai pasealekuak eta Simon Arrieta eta Juan XXIII.a plazak, gune horiek direlako argi dentsitate handien dutenak.

Kutsakorrak diren bonbillak ordezkatzea da bigarren proposamena: "Zehazki, Koldo Eleizalde, Aranerreka eta Bolu kaleetan daude bonbilla horiek. Material toxikoz osatutakoak dira, energia asko kontsumitzen dute eta, gainera, animalia gautarrendako kaltegarriak diren izpi ultramoreak isurtzen dituzte", dio Corcuerak.

**ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA**

Herrialde garatuetan ohikoa da beharrezkoa baino argi gehiago duten kaleak izatea eta farolen egitura kaskarragatik beharrezkoak ez diren guneak argiztatzea –zerua eta etxeen aurreko aldeak, esaterako–. Horrek guztiak energia alferrik galtzea dakar. Hala, Corcuerak azaldu du irtenbidea ez dela argi puntuak ezabatzea. Gakoa da eraginkortasun energetikoa, hau da: "Zerbitzu bera ematea, baina kontsumo txikiagoarekin".

## oharrak

BEGIRALEAK

**> Uztaileko udalekuetarako begirale euskaldunak behar dira**

Izenematea da martxoaren 23tik apirilaren 8ra arte, Agorrosin kiroldegian dagoen Xipizaro ludotekan. Ordutegia da astelehenetik egubakoitzera, 17:00-20:00 eta zapatuetan, 10:00-13:00. Informazio gehiago 943 77 91 60 zenbakian.

BATZARRA

**> Pazkoetako sukaldaritza lehiaketa antolatzeko deia**

Pazkoetan San Martin plazan egiten den bakailao lehiaketa antolatzeko batzarra deitu du Kultura Sailak. Matxoaren 24an izango da batzarra, 20:00etan, kultura etxean.

KANTU AFARIA

**> Jardunen kantu afarirako txartelak eros daitezke**

Martxoaren 27an izango da kantu afaria. 20:00etan triki-poteoa egingo dute Pol-Poletik abiatuta eta afaria 21:30ean izango da, Artatse elkartean. Urtero bezala, kantu liburuxkak banatuko dituzte eta bertsolari eta trikitilariak ere egongo dira. Txartelak eskura daitezke 12 eurotan (15 bazkide ez direnendako) Kortazarren eta Pol-Polen

EGUN ALDAKETAK

**> 'Zeruko izarrak ezagutzen' ikastaroaren data aldatuta**

Ikastaroa izango da apirilaren 28an eta maiatzaren 5ean. Ordua eta lekua mantendu egiten dira: 19:00etan, kultura etxean. Izenematea da 15 euro herrian erroldatutakoendako eta 20 gainerakoendako, kultura etxean (943 77 91 60).

SANTOS
TIEN 21
DESKONTUAK
Renove plana etxetresnetan
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

DRAGON ORIENTAL
Jatetxea
Etxera eramaten dugu
Edaria, postrea eta tabakoa eramaten dugu
Zerbitzua Bergaran + 1,80 €
Inguruetara + 2 €
943 25 06 77
Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

**ANTZERKIA** > HELDUENDAKO IKUSKIZUNA

# 'Jaque' antzezlana eskainiko du gaur Oihulari Klown taldeak Zabalotegin

Gaztelaniaz aurkeztuko duten antzezlana 22:30ean hasiko da eta bi ordu inguru iraungo du; sarrerak bost eurotan salgai

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Helduendako antzerkia dago gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan. Oihulari Klown taldeak *Jaque* izeneko antzezlana eskainiko du gaztelaniaz. Ikuskizuna 22:30ean hasiko da eta hori ikusi ahal izateko sarrerak bost euro balioko du. Antzezlanak bi ordu inguru iraungo du.

Virginia Imaz bergararrak zuzendu du *Jaque* antzezlana. Gaur egungo gizarteari kezka eragiten dizkion gaiak jorratzen dituzte horretan: neoliberalismo ekonomikoa, arduragabeko kontsumoa, giza eskubideen urraketak, borroka armatuak, berotze globala eta hainbat herrialdeek jasaten duten kanpo zerga, besteak beste.



*Jaque* izeneko antzezlana aurkeztuko dute gaur Oihulari Klown taldekoek. GOIENKARIA

**MUNDUAREN DIAGNOSIA EGIN**

Arazo guzti horiek konpontzeko, taldeak bi heroien laguntza bilatuko du. Agertoki gainean lardaskeriak konpontzen saiatuko dira. Horretarako, gaur egungo mundua auskultatu eta diagnosia egingo dute. Mundua xakean dagoela ondorioztatuko dute eta horien aurrean, hartu beharreko hainbat neurri proposatuko dituzte.

Esandako ikuskizunean gai asko tratatzen direnez, *Jaque* antzezlanean eszenak eta pertsonaiak abiadura handiz aldatzen dira. Hala, oso zuzenak eta segituak diren sketchetan banatuta dago antzezlana; baina, tartean, tratamendu lasaiagoa behar duten gaien sketchak ere sartu dituzte.

Horregatik, lana espazio librean garatzen da; Kukuma eszenografia zaindua lortzen saiatu da, hiru atetan oinarrituta dagoena. Aldi berean, xakearekin lotuta dagoenez, eszenetan bi kolore dira protagonistak: beltza eta gorria.

Virginia Imaz zuzendariak betiko aktoreak izan ditu oraingoan ere alboan: Amaia Arriaran, Anduriña Zurutuza, Jose Carmelo Muñoz, Andoni Egaña eta Txefo Rodriguez, hain zuzen.

**SENTSIBILIZAZIOA**

*Jaque*-n jorratzen diren gai serio guztiak oinarri hartuta, Zabalotegi aretora joaten direnen artean barre algarak lortzen saiatuko dira. Barreak eragiteaz gain, baina, ikus-entzuleak sentsibilizatzen ere ahaleginduko dira Oihulari Klown taldeko protagonistak.

*Jaque* antzezlana aurrera ateratzeko Euskadiko Elkarbidea izeneko Gobernuz Kanpoko Erakundearen laguntza izan du Oihulari Klown taldeak.

**EUSKARA** > KORRIKA KULTURALA

## 'Bidaia intimoak' izeneko dokumentala, hilaren 24an

Korrika kulturalaren harira, Zabalotegi aretoan aurkeztuko dute, 19:00etan

**M.B.** > BERGARA

Gero eta gutxiago falta da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen Korrikaren edizio berria eta horren harira, ekimenak antolatzen hasi dira Korrika Kulturalaren barruan; tartean, *Bidaia intimoak* izeneko dokumentala. Bergarara martitzenean, hilak 24, iritsiko da eta Zabalotegi aretoan botako dute, 19:00etan.

**PROTAGONISTAK**

*Bidaia intimoak* dokumentalak Korrika 16ren omenaldiaren isla izan nahi du. Protagonistak euskaraz bizi nahi dutenen herrira etorritako lau lagun dira: Mixele, Rami, Jesus Mari eta Tereixa.

Mixele euskalduna da; Lapurdin jaio zen, baina ama hizkuntza frantses eskola publikoaren eraginez galdu zuen haurtzaroan. Gaztetan berreskuratu ondoren, egun irakasle da Itsasuko AEKn. Rami, berriz, Aljeriako ber-berea da, gaztetan Parisera ikasketak egitera joana. Han ezagututako Goizuetako neska batek ekarri zuen Euskal Herrira eta orain Goizuetan bizi da, euskaraz.

Jesus Marik euskara izan zuen ama hizkuntza, baina txikitan Ermuan eta gero Gasteizen bizitzearen ondorioz, galdu egin zuen, eskolaren eta kaleko lagunen eraginez. Soldaduskatik bueltan ama hizkuntza berreskuratzeari ekin zion. Tereixa, berriz, Galizian jaiotakoa da, baina, beste asko bezala, Bilbora etorri zen lan bila. Ikastoletan irakasleak behar zirela jakinda, berehala hasi zen euskara ikasten eta egun Portugaleteko Asti Leku ikastolan dihardu lanean.

Jon Maiaren zuzendaritzapean, Orio Produkzioak ekoizpen etxeak eginiko dokumentala da martitzenean, Korrika Kulturala dela eta, Zabalotegin ikusi ahal izango dena.

**ZINEA** > HAURRENDAKO ETA HELDUENDAKO FILMAK

## 'Las hermanas Bolena' eta 'El espíritu del bosque' ikusgai

Zapatuan eta domekan 'El espíritu del bosque' eta 'Las hermanas Bolena' botako dituzte

**M.B.** > BERGARA

Astero moduan, zinea ikusteko aukera izango dute aste bukaeran Zabalotegi aretora joaten diren haurrek zein helduek. Umeendako *El espíritu del bosque* izeneko filma emango dute; eta nagusiendako *Las hermanas Bolena* eskainiko dute asteon.

Emanaldiak bihar, zapatua, hasiko dira, 17:00etan, haurrendako saioarekin. Helduek bi ordu izango dituzte aukeran, arratsaldean eta gauean: 19:30ean eta 22:30ean, hain zuzen. Domekan, berriz, bi ordu egongo dira aukeran: 17:00etan umeendako eta 19:30ean helduendako.

**PREZIOA ETA LEIHATILA**

Txikienen sarrerak bi euro balioko du eta gainontzekoenak hiru. Betiko moduan, Zabalotegi aretoko leihatila filma bakoitza hasi baino ordubete lehenago irekiko da.



Scarlett Johanssonek *Las hermanas Bolena* filmean parte hartu du. GOIENKARIA

**LEHIAKETA**

## 17 talde musika lehiaketan

Musika Eskolak antolatutako Musika Moderno Lehiaketa apirilaren 26an

**M.B.**> BERGARA

Musika Eskolaren 25. urteurrenaren harira, Musika Moderno Lehiaketa antolatu dute. Dagoeneko horretan izena emateko epea amaitu da. Musika eskolatik jakinarazi dutenez, 17 taldek eman dute izena. Horietako bi bergararrak dira.

Horra hor gainontzeko taldeen jatorria: Ermuko lau; Legazpiko hiru; Erandioko eta Zumarragako bina; eta Eibarko, Usurbilgo eta Beasaingo bana. Gehienek lau eta zazpi kide bitartean dituzte eta askotariko musika-tresnak joko dituzte; tartean, trikitixa edo gitarra elektrikoa. Apirilaren 26an izango da Musika Moderno Lehiaketa, Zabalotegin.

FUTBOLA > LEHEN ERREGIONALA

# BTLSk jokalari gutxi Eibarren jokatzeko

Antzuolaren aurkako derbiko txartelengatik, BTLS taldeko bost jokalari zigortuta daude

Entrenatzaileek 12 jokalari dituzte Eibartarrak taldearen aurkako hamaikakoa egiteko

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Antzuolaren aurkako derbiaren ondorioak jasango ditu BTLS taldeak bihar, Eibartarrak taldearen aurkako partiduan. 12 jokalari bakarrik dituzte Ibai Igartzak eta Julen Aranburuk hamaikakoa egiteko. "Aldaketa bakar batekin jokatuko dugu Eibarren, bost jokalari ditugu-eta zigortuta. Antzuolaren kontrako derbian txartel gehiegi ikusi genituen", esan digu taldeko arduradun Jose Luis Beitiak.

Dena den, mahoneroak hiru puntuen bila irtengo dira zapatuan, 15:30ean, Unbe futbol zelaira. "Jokalariak gogotsu daude, eta Eibartarrak taldeko jokalariek futbolean ondo egiten duten arren, hiru puntuen bila irtengo gara. Lehen erregional mailan mantentzeko beste pauso bat eman nahi dugu", esan digu.

BTLSk 29 puntu ditu 23 jardunaldi jokatu ondoren, eta Eibartarrak taldeak 26, baina partidu bat gutxiagorekin; hain zuzen ere, atzo Zestoaren aurka jokatu zuena. "Eibarko taldeak partidua jokatu zuen atzo, eta nekatuago helduko dira biharko partidura. Horrek gure alde egin dezake. Bestela, lehia nahiko parekatua izango da".

**GOITIK BEHERA DATORREN TALDEA**
Eibarko taldea iaz jaitsi zen preferente mailatik, eta denboraldi hasierako helburua goiko postuetan egotea zen; baina ligak aurrera egin ahala beherantz etorri dira. "Talde indartsua dute, baina urte hasierako helburua bete ezingo dutela ikusita, indarra galdu egin dute", esan digu Beitiak.

BTLS, ordea, urte hasierako helburua betetzeko bidean da; alegia, mailari eustea. Baina ez dakite zenbat puntu beharko dituzten lehen erregionalean geratzeko: "Iaz 32 punturekin eutsi genion mailari, baina aurten gehiago beharko ditugu. Kontua da Bergarak partidu asko irabazi eta puntu asko batu dituela. Hortaz, sailkapenaren erdi inguruan gauden taldeen artean berdintasun handia dago. Bigarren erregionalera hiru talde jaisten dira, eta oraindik zazpi partidu falta dira liga bukatzeko", diote BTLSko arduradunek.


BTLSk eta Antzuolak derbia jokatu zuten joan den zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

**BERGARAK, ATZO**
San Jose eguna aprobetxatuz, Manu Diazen Bergara taldeak atzo jokatu zuen Lazkaoren aurka Agorrosinen.

> ARETO FUTBOLA

## Labegaraietako txapelketan ez dute jardunaldirik

Labegaraietako txapelketako antolatzaileek ez dute partidurik zehaztu aste bukaerarako. Izan ere, San Jose eguneko zubia dela-eta atseden hartzea erabaki dute.

Liga txapelketa bukatzeko bost jardunaldi falta dira, eta sailkapeneko talde onenak hauek dira: Akabaoak (60 puntu), Carboneros (55) eta Errotagain (51).

> TXIRRINDULARITZA

## Mikel Aristik irabazi zuen Azpeitiko kadete mailako lasterketa

Lokatza taldeko Mikel Aristi bergarrak Azpeitiko kadete mailako proba irabazi zuen domekan. Iraola, Lopez eta Unanue hirukotearen aurretik sartu zen helmugan, 1:11:24ko denbora eginez.

Guztira, 97 txirrindularik hartu zuten irteera, eta 48 kilometro egin ondoren 60 iritsi ziren helmugara.

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
Bergaran ere badago
Lurreko Telebista Digitala!
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu,
ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com



**LITERATURA** > SARIA

# Xabier Altube aretxabaletarrak 'Donostia, Opera Prima' saria jaso du 'Ihes-lerroak' nobelarekin

Koldobika Jauregiren 'Eskua' artelana eman diote sari gisa eta nobela argitaratuko dute Liburuaren Nazioarteko Egunerako

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

*Erein* eta *Donostia, Opera Prima* narratiba sariak banatu zituzten Donostiako udaletxean martitzenean, hilak 17. Lehiaketaren laugarren edizioa da eta aretxabaletar batek saria jaso zuen: Xabier Altubek, hain zuzen.

**MAILA ONEKO LANAK**

Erein argitaletxeak eta Donostiako Euskararen Udal Patronatuak bi urtean behin antolatzen duten lehiaketa da, literatura sustatzeko helburuarekin antolatutakoa, hain zuzen. Eta *Donostia Opera Prima* izeneko saria gazteei eta inoiz lan bat argitaratu ez dutenei zuzenduta dago. Sari hori irabazi du Xabier Altubek *Ihes-lerroak* nobelarekin. *Erein* saria, ostera, Ameriketako Estatu Batuetan dagoen Joseba Gabilondo urretxuarrari eman diote, *Apokalipsia guztioi erakutsia* ipuin bildumagatik.

Epaimahaiko kideek adierazi dute lanak maila oso onekoak zirela, eta ez dela samurra izan erabakiak hartzea. Aretxabaletarrak Koldobika Jauregi artistaren *Eskua* artelana eta 4.500 euro jaso ditu sari gisa. Erein argitaletxeak, gainera, argitaratu egingo ditu bi lan irabazleak Liburuaren Nazioarteko Egunerako; hau da, apirilaren 23rako.

**MAITASUN ISTORIOA**

Euskal Filologian lizentziaduna eta doktoregaia da Altube. 2006an beste sari bat jaso zuen: Bilboko Udalak antolatutako Gabriel Aresti saria, hain zuzen, *Aldaera#01* ipuinarekin.

*Idazlea noiz den idazle* gaiaren gainean egin du hausnarketa Altubek. Idazlea idazten dabilen momentuan bakarrik dela idazle dio, ez aurretik ezta ostean ere: "Lerroak ihes egiten dion une horretan. Horregatik *Ihes-lerroak*". Gainera, idaztea deformazio baten emaitza dela azaldu du, eta deformazioa, desbiderapena eta diferentzia klabeak direla nobelan.

Nobela, baina, maitasun istorioa da, eta hiru pertsonaia nagusi ditu. Pertsonaia horiek elkarrengana hurbiltzeko egiten duten bidea da istorioaren muina, hain zuzen ere.



Xabier Altube saria eskuan duela eta Joseba Gabilondo pantailan, antolatzaileekin inguratuta. EREIN




Kukubiltxok *Dir Dir* antzezlana eskainiko du bihar. KUKUBILTXO

**EUSKARA** > KORRIKA

# Antzerkia eta dokumentala Korrika herrian girotzeko

16. Korrikari laguntzeko kilometroak salgai daude; Arrasateko AEKra deitu behar da

**M.A.** > ARETXABALETA

Eguaztenean hasiko du ibilbidea 16. Korrikaren lekukoak Tuteran, eta, gurera ailegatu bitartean –apirilaren 5ean– hainbat ekitaldi izango dira Korrika Batzordeak antolatuta.

**'DIR-DIR' ETA 'BIDAIA INTIMOA'**

Zapatuan, hilak 21, *Dir Dir* txotxongilo emanaldia egingo du Kukubiltxo taldeak Arkupeko Zaraia aretoan (17:00). Euskararen laguna den Argitxo iratxoaren kriseilutik jaiotako argi txinparta da Dir Dir. Iluntasuna isiltasunarekin, komunikaziorik ezarekin eta argia, aldiz, berbekin, hizkuntza aniztasunarekin, parekatzen ditu Kukubiltxok antzezlanean. Ikuskizuna 3 euro da.

Eguaztenean, hilaren 25ean, ostera, *Bidaia intimoak* ikus-entzunezkoa emango dute Zaraia aretoan (10:00 eta 19:30). Jon Maia bertsolari zumaiarrak Korrikarendako egindako dokumentala da eta lau bidaia intimo aurkeztuko ditu. Hala, lau protagonista ditu Maiaren lanak: euskaraz bizi diren bi kanpotar eta hizkuntza berreskuratu duten bi euskaldun. Gogora ezazue 16. Korrikaren leloa dela *Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira* eta euskaldun berriek egindako ahalegina omendu gura dutela.

Horiekin batera beste ekitaldi batzuk ere izango dira Korrika gogoan: apirilaren 1ean, eguaztena, Leizarra musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute eta apirilaren 3an, egubakoitza, Korrika Txikia egingo dute arratsaldean eta izarrak ikusteko aukera izango da gauean, Ilatargi Astronomia Taldeko kideekin.

**KILOMETROAK SALGAI**

Bestalde, Korrika Batzordeak gogorarazi gura du kilometroak salgai dauzkatela Arrasateko AEKn (943 77 03 69). Kilometro bakoitzak 380 euro balio du, baina taldeka ere eros daitezke: "Kilometroak erdi bana, koadrilaka, familiaka... eros daitezke; hortaz, animatu guztiok!", diote Korrika Batzordeko kideek.

# Kirol 'coaching'-a lantzeko lau saio datorren astetik

Kirol *coaching*-aren gaineko berbaldia eskaini zuten martitzenean Eki Coach taldeko kideek; tartean, Igor Arenatza entrenatzaileak. Hainbat lagun elkartu ziren, kirolariak mugak gainditu eta duen onena zelan eman ikasteko. Orain, ikastaroa egiteko aukera dute interesatuek; martitzenean da lehen saioa eta hilaren 31n hurrengoa. Interesatuek Igor Arenatzarengana jo dezakete.



TXOMIN MADINA

Mobiliario Arenaza

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

AISIALDIA > UDALEKU IREKIAK

# Begiraleak behar ditu Poxpolin elkarteak udako udalekuetarako

**Gaztelekuan dagoen Gazteria Sailera bideratu behar dituzte curriculumak interesatutako gazteek; apirilaren 3a da azken eguna**


Umeak begiralearekin iazko udaleku irekietan. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Gazteria Saila eta Poxpolin elkartea dagoeneko hasi dira uztaileko udaleku irekiak gertatzen. Umeekin begirale lanak egingo dituzten gazteak behar dituzte, eta izena emateko epea zabaldu dute astean.

**EUSKALDUNA ETA 18 URTEKOA**

Gazteek derrigorrez bete beharko dituzten baldintzak bi hauek dira: 18 urte izatea eta euskaraz ondo jakitea. Bi baldintza horiez gain, beste lau kontu baloratuko dituzte lehiaketa deia egin dutenek: aretxabaletarra izatea; antzeko lanetan esperientzia izatea; zein ikasketa dituen eta begirale kontuekin zerikusia duen ikastaro edo tailerrak eginda izatea.

Horren guztiaren berri ematen duen curriculuma Gazteria Sailera bideratu behar dute interesatutako gazteek. Posta elektronikoz bidaltzeko, hona helbidea: *gazteria@aretxabaleta.net*. Eskuan eman gura izanez gero, berriz, Arkupe kultura etxean dagoen gaztelekuan dauka lokala Gazteria Sailak. Maider Etxaniz teknikaria astelehen eta eguaztenetan egoten da bertan (09:00-13:30 eta 14:00-17:00). Argibideren bat behar izanez gero Gazteria teknikariari deitu behar zaio: 943 08 10 01.

Jasotako curriculum guztiak begiratu ostean egokienak aukeratuko dituzte udalekuen antolatzaileek. Bestalde, zuzendaritza taldean lan egiteko gertu egonez gero, curriculumean adierazteko eskatu dute.

**GAZTERIA SAILA ANTOLATZAILE**

Aurten lehenengoz antolatuko ditu Gazteria Sailak uztaileko udalekuak; Kultura Saila hasi zen antolatzen eta haren ardurapean egon dira orain arte. Iaz 30en bat begiralek jardun zuten lanean, 200 umerekin, eta aurten ere antzerako taldea osatuko dute. Udalekuak uztailaren 2an hasi eta 24a bitartean izango dira. Umeek izena emateko deia aurrerago egingo dute antolatzaileek.

## oharrak

GAZTEAK
**> Irrati tailerra gaztelekuan**

Irrati tailerra egingo dute gazteek aste bukaeran gaztelekuan. Gura duten musika jarriko dute eta elkarrizketak egin hainbat musika talderi. Eguaztenean Agressive Conbat taldeko kideak izango dira eta domekan Krisis talde aretxabaletarreko kideak.

GAZTEAK
**> Mendi buelta eta sagardotegira Murrukixo MErekin**

Murrukixok martxoaren 29rako antolatu duen irteerarako izenemate epea martitzenean bukatuko da. Lokaletik pasatu behar da (19:00-20:00).

PARROKIA
**> Otoitzaldia**

Mezaren ordez otoitzaldia egingo dute martitzenean (19:00) agustindarren monasterioan. Parrokiako helduen talde batek gertatu du eta Pastoral Barruti osorako antolatuta dago.

ZINEMA
**> 'Siete almas' eta 'Street dance' filmak aste bukaeran**

Egubakoitz eta zapatuan (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00) *Siete almas* filma emango dute. Umeek, ostera, *Street dance* izango dute domekan (17:00).


Hervas, Vazquez eta Gonzalo, entrenatzaile eta *coach*-arekin. ODILO VAZQUEZ

KIROLAK > GIPUZKOAKO KARATE TXAPELKETA

# Hirugarren postuan geratu ziren hiru karate jokalari

**M.A.** > ARETXABALETA

Joan den domekan, hilak 15, jokatu zituzten kimuen eta gazteen mailako Gipuzkoako karate txapelketak Lasarteko kiroldegian eta bertan izan ziren Aretxabaleta Kirol Elkarte barruan dagoen karate taldeko hiru jokalari ere.

**HIRUGARREN POSTUAK**

Odilo Vazquezek entrenatzen dituen mutilek ondo baino hobeto jardun zuten txapelketan eta garaikurra eskuan hartuta itzuli ziren hirurak. Kimuen mailan, 12 urte dituen Oxel Vazquezek jokatu zuen eta hirugarren postuan geratu zen kata deitutako modalitatean.

Gazteen artean, ostera, Gorka Gonzalok eta Iker Hervasek jardun zuten norgehiagokan, baina horiek kumite modalitatean egin zuten. 45 kiloz azpikoen artean hirugarren geratu zen Gonzalo eta 55 kiloz azpikoetan ere hirugarren egin zuen Hervasek. Hala, gogor entrenatzen jarraitzeko animuekin itzuli ziren hirurak.

XAKEA

# Ohorezko mailara igo da Arlutz xake taldea

**M.A.** > ARETXABALETA

Joan den zapatuan jokatu zuen Arlutzek denboraldiko azken partida. Sestaon elkartu ziren ohorezko eta lehen mailako talde guztiak eta Donostiako Easo izan zuten aurkari aretxabaletarrek. Uste baino partida gogorragoa izan zen; Easok derrigorrez irabazi behar zuen mailaz igotzeko eta maisu handi bat eta nazioarteko maisu bat –biak frantziarrak– eroan zituen. Hala, Arlutzeko kide Andoni Miguelek eta Mikel Alcaide gazteak galdu egin zituzten partidak –hark galdutako lehena denboraldi guztian– eta Aitor Alcaidek eta Fran Miguelek berdindu –Franen kasuan, bost ordu jokatzen izan eta gero.

Azken partida galduta, sailkapeneko laugarren postuan geratu da Arlutz –nahiz eta aste askoan lehen postuan egon–; hala ere, ohorezko mailan izango da datorren denboraldian Iruñeko Oberena eta Easorekin batera.

ALE
ARETXABALETA
Lanbide Eskola
Goi mailako Lanbide Heziketarako
Berariazko Institutua

**Bi baldintza hauek betetzen badituzu:**
> Gutxienez 18 urte izatea
> Honako ikasketaren bat gaindituta izatea:
- 2. BBB
- LH-1
- EE-2
- DBH
- Sarbide proba gaindituta izatea

**Lan egiten duzun bitartean KARROZERIA titulu ofiziala ateratzea erraza izango da zuretzat.**

**Goi mailako heziketa zikloetarako sarbide proba prestatu nahi duzu?**
Nahikoa duzu 18 urte edukitzea.
Etor zaitez Aretxabaleta Lanbide Eskolara eta informatu
Inskripzioak apirilaren 24 arte.

Etxebarri auzoa z/g
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43
webgunea: ***www.iaretxabaleta.com***
e-posta: *ia@iaretxabaleta.com*

Astelehenean bisita gidatua egingo dute parrokiara, unibertsitatera eta Bidaurretara

Erretiratuen ikastaroetan egindako lanak erakusketa baten bilduko dituzte

**ERRETIRATUAK** > PAKE LEKU

# Udaberriari ongietorria egingo diote Pake Lekukoek

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Udaberriari ongietorria egingo diote Pake Leku elkarteko erretiratuek. Horren harira, egitarau berezia osatu dute hilaren 23tik 27ra arte; besteak beste, irteera, hitzaldia eta antzerki emanaldia egingo dituzte.

**BISITA GIDATUA**

Astelehenean, hilaren 23an, bisita gidatua egingo dute parrokiara, unibertsitatera eta Bidaurretara. 10:15ean elkartuko dira erretiratuen egoitzan. Bisita gidatuan parte hartu nahi dutenek bi euro ordaindu beharko dute. Martitzenean, berriz, herentzien gaineko hitzaldia egingo dute, 17:00etan.

Eguaztenean zinema emanaldia egingo dute, 17:00etan, baina oraindik ez dute zehaztu zein pelikula emango duten. Bestalde, eguenean bingo berezia egingo dute, 17:00etan. Antolatzaileek esan digute sari bereziak egongo direla parte-hartzaileen artean banatzeko.

**ANTZERKI EMANALDIA**

Egubakoitzean, hilaren 27an, erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak *¿Cuántos años tiene amama?* antzezlana egingo du. Sarrerak salgai jarriko dituzte aldez aurretik erretiratuen egoitzan; hain zuzen ere, hilaren 25ean eta 26an (eguaztena eta eguena) salduko dituzte, hiru eurotan, 18:30etik 19:30era. Adinarekin arazoak dituen emakume baten istorio barregarria kontatzen dute.

Ikusi Makusi taldearen hirugarren lana da, *En dos palabras: im-paciente* eta *Nos vamos de vacaciones* lanen ondoren.

**ERAKUSKETA**

Pake Lekuko zuzendaritza batzordeak osatu duen egitarauan erakusketa iragarri dute. Hilaren 23an, 24an, eta 25ean erretitatuek antolatutako ikastaroetan egindako lanak ikusgai jarriko dituzte; hain justu ere, bitxigintza eta orratz lanen ikastaroetan egindako lanak.

Herriko erretiratuek egindako lanak Pake Lekuko aretoan jarriko dute astelehenetik eguaztenera, 17:00etatik 20:00etara arte.



THE BON SCOTT BAND

## The Bon Scott Band taldearen kontzertua Errekaldeko jaietan

AC/DCren tributu-taldea den The Bon Scott Band-ek kontzertua egingo du maiatzaren 29an; hain zuzen ere, Errekalde auzoko jaietan. Dagoeneko jarri dute eguna euren webgunean: *www.thebonscottband.com*. Bada, apirilean Australiako taldea Bilbon, Madrilen eta Bartzelonan zuzenean ikusi ezin dutenendako, haien kantuen bertsioak joko ditu Bartzelonako taldeak. Eurekin batera joko dute Nuevo Catecismo Catolico donostiarrek, Never Surrender arrasatearrek eta MC5 taldearen bertsioak egiten dituen MC6 taldeak. Guztiek kontzertu erraldoia egingo dute maiatzeko azken aste bukaeran Errekaldeko jaietan.

### oharrak

MUSIKA

**> Kontzertu gaztetxean**

Gazte Batzarrak antolatuta, kontzertua egingo dute zapatuan, 19:00etan. Hain justu ere, Klinesa ta Kakarrastua Kumunzuluan oñatiarrak eta Klavo Oxidado soraluzetarrak igoko dira San Martingo gaztetxeko taula gainera.

DEIALDIA

**> Aloña Mendiko nesken futbol taldean ibilitakoek bazkaria egingo dute**

Maiatzaren 23an egingo dute bazkaria, baina aurretik partidua jokatuko dute Azkoaginen. Bazkarira joan gura duenak 30 euro sartu beharko ditu 21010057530126831502 zenbakian.

INFORMATIKA

**> Ikastaroak KZgunean**

Martxoaren 23tik apirilaren 3ra *Oinarrizko Internet* delako ikastaroa emango dute KZgunean, 16:30etik 18:30era. Interesatuek bi aukera dituzte ikastaroen gaineko informazioa eskatzeko edo izena emateko: 943 71 83 20 telefonora dei dezakete edota *www.kzgunea.net* helbidean begira dezakete.

**MUSIKA**> EMANALDI BIKOITZA

# Musika eskolakoen udaberri kontzertuak, datorren astean

Astelehenean eta eguaztenean kontzertuak egingo dituzte Santa Ana antzokian, 18:30ean

**M.B.** > OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek udaberriko bi kontzertu egingo dituzte astelehenean eta eguaztenean. Biak ala biak Santa Ana antzokian egingo dituzte,18:30ean.

Astelehenean, besteak beste, txistu, perkusio eta akordeoi taldeek, abesbatzak eta lehen moduloko ikasleek parte hartuko dute; eta eguaztenean, berriz, trikitipandero eta gitarra taldeek eta musika tailerreko ikasleek.

**AISIALDIA** > GAZTEENDAKO

# Mus eta mahai-futbol txapelketak gaztelekuan

**M.B.** > OÑATI

Gaztelekuak hainbat ekintza antolatu ditu datorren asterako; hain zuzen ere, mus eta mahai-futbol txapelketak.

Hilaren 27an egingo dute gaztelekuko I. mus txapelketa 12 eta 17 urte arteko gazteendako. Txapelketa zortzi erregera jokatuko dute, eta jokalarien arteko keinuak balezkoak izango dira. Interesatuek izena bikoteka eman beharko dute hilaren 25a baino lehen.

**MAHAI-FUTBOLA**

Bestalde, gaztelekuko kuboan mahai-futbol txapelketa egingo dute hilaren 29an, 17:00etan. 8 eta 11 urte artekoek hilaren 22a baino lehen eman beharko dute izena gaztelekuan.

> IKUSKIZUNA

## Pirritx, Porrotx eta Mari Motots: sarrerak, salgai

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek apirilaren 4an egingo duten ikuskizunerako sarrerak salgai daude dagoeneko; hain zuzen ere, bost eurotan eros daitezke Txantxiku ikastolako eta kultura etxeko idazkaritzetan.

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek *Piratak* delako ikuskizuna eskainiko dute Zubikoa kiroldegiko kantxan, 17:00etan.



2007. urtean hasi zen Eskoriatzako Udala etorkinendako ikastaroak egiten. IKER BARANDIARAN

**EUSKARA** > AISA HARRERA-IKASTAROA

# Euskara ikastaroak etorkinendako apirilean

Euskararen eta euskal kulturaren gainean informazio zuzena jaso dezaten, Udalak etorkinendako ikastaro bereziak egingo ditu HABEren laguntzarekin

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Udaleko Euskara Zerbitzuak etorkinendako euskara ikastaroa antolatu du hirugarren aldiz. Horren berri emateko, Eskoriatzan bizi diren etorkinei gutun bana bidaliko die Udalak datozen egunotan.

Interesa duten 16 urtetik gorako lagunek martxoaren 27ra arte izango dute izena kultura etxean edo Udal Gizarte Zerbitzuetan emateko aukera. Telefonoz ere eman ahalko da, 943 71 46 88 zenbakira deituta. Ikastaro horrek hamar euro balio du. Eskoletan erabiliko den materialaren gastua, bestalde, Udalak hartu du bere gain. Ikasleko 17,5 euro jarri beharko ditu.

**GUTXIENEZ, SEI LAGUN**

Eskoriatzako Udal Euskaltegian eskolak eman ahal izateko, gutxienez sei lagunek apuntatu beharko dute. Gutxiago baldin badira, Aretxabaletan izena eman dutenekin batera taldea osatzen saiatuko dira. Eskolak apirilaren 20ko astean hasiko dira eta bi hilabete inguru iraungo dute, ekainaren 20ra arte. Astean hiru egunetan egingo dira, egun bakoitzean ordu bi. Eskaera orria betetzerakoan, zein egun eta ordutan nahi duten adierazi beharko dute.

HABEk sortutako Aisa harrera-ikastaroan Euskal Herriaren eta euskararen gaineko informazio zuzena jasoko dute etorkinek.

**LEHIAKETA** > ARIZMENDI IKASTOLA

# 'Kipulandia' eta 'Definitibua', BHKlip lehiaketan sarituak

Bigarren Hezkuntza ezagutzera emateko Arizmendik BHKlip lehiaketa antolatu du aurten

**M.B.** > ESKORIATZA

Arizmendi ikastolak martxan jarritako BHKlip bideoklip lehiaketaren sariak banatu zituen martitzenean Almenen. Aurkeztutako hamalau lanak banan-banan ikusi ostean, bideoklip sarituak jakinarazi zituen.

Epaimahaiaren saria *Kipulandia* izenekoak jaso zuen; Alaitz Martinezek, Nahia Zeziagak, Haizea Fernandezek eta Itziar Arrizabalak egindako lana, hain zuzen. Bigarren Hezkuntzako kudeatzaile Elena Errastik eman zien saria. Ikuslearen saria, berriz, Mikel Alberdi, Mikel Osa eta Eneritz Urrutiaren *Definitibua* bideoklipak lortu zuen. Hori, 600 ikasleen botoen artean irten zen garaile.

Horretaz aparte, epaimahaiak hiru aipamen berezi egin nahi izan zituen: *Zer izan nahi zenuke*, *Jajaja* eta *Jauzia*.

**LEHENENGO ALDIA**

Lehen aldia da Arizmendi ikastolak BHKlip lehiaketa antolatzen duena. 12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoek hartu dute parte horretan, eta, esan bezala, 14 lan aurkeztu dituzte: hiru batxilergoan eta gainerakoak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Arizmendik abian jarritako Bigarren Hezkuntza proiektua ezagutzera emateko antolatu dute lehiaketa. Hasiera baten sari bakarra bazegoen ere, lanen emaitza ikusita epaimahaiak Ikuslearen saria ematea pentsatu zuen.

Bigarren Hezkuntzako komunikazio arduradun Maite Beitiak aipatu zuen aurtengo lanen kalitatea ikusita, aurtengoa "hasiera" besterik ez dela izan eta datorren urtean bigarren edizioa gertatuko dutela.



*Kipulandia* lana egin duen taldea, saria jasotzen. M.B.

# Itxura berria du Intxaurtxuetako sarbideak

**M.B.** > ESKORIATZA

Astebeteko lanen ostean, bukatu dute Eskoriatzako iparraldeko sarbidea. GI-627 errepidea eta Gasteiz eta Eibar lotuko dituen AP-1 autobidearen arteko lotunea dela eta, Intxaurtxuetako sarrera berritu egin dute; biribilgunea egin dute. Segurtasuna hobetu egin da inguru hartan; bereziki Eskoriatzatik irteten direnendako. Oraindik, baina, kontuz ibili beharra dago, lanean dihardute-eta.



M.B.

## oharrak

GAZTELEKUA

**> Txapa tailerra egingo dute domekan gaztelekuan**

Domekarako, martxoak 22, txapa tailerra antolatu dute gaztelekuan, 18:00etan.

HITZALDIA

**> 'Nola zaindu bizkarrezurra' hitzaldia dago martitzenean**

Ibarraundi museoan *Nola zaindu bizkarrezurra* izeneko hitzaldia egingo du martitzenean, hilak 24, Andrea Larrañaga kiropraktikoak.

KIROLA

**> Saskibaloia eta areto-futbola daude egunotan Intxaurtxuetan**

Asteon ere partiduak daude Intxaurtxueta kiroldegian. Bihar, zapatua, junior mailako saskibaloi partidua dago, 16:00etan, Eskoriatza eta MCM B artean. Jarraian, 19:00etan, kadete mailakoa hasiko da: Calasanz taldekoekin lehiatuko dira etxekoak. Bihar, gainera, 1. mailako erregionaleko areto-futbolean, Eskoriatza eta Nenikanen izango dira aurrez aurre 18:00etan; eta domekan, gazte mailako taldeak Eskolapioak hartuko du, 11:00etan.

ZERGAK

**> Trakzio mekanikoko ibilgailuen tasa ordaindu behar da**

Udalak trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga borondatez ordaintzeko epea zabaldu du, apirilaren 8ra arte.

**ADINEKOAK** > ERRETIRATUEN ELKARTEA

# Batzorderako erretiratuak behar dituzte

## Apirileko batzarrean zuzendaritzako bost kidek utzi egingo dituzte euren ardurak

Ohiko jarduerez gain, erretiratuek ekintza bereziak egiten dituzte; irteerak eta hitzaldiak, esaterako

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Torresoroa gizarte etxean erretiratuek Landatxope elkartea ipini zuten abian eta pixkanaka martxa hartzen dihardute. Hala ere, zuzendaritza batzordekoak kezkati daude, jarraituko dien herritarrik apenas dagoelako.

Florentino Lamariano elkarteko presidenteak esan digu apirilean daukatela urteko batzarra eta bileran bost kidek utziko dutela batzordea, besteak beste diruzainak eta idazkariak; hortaz, kide berriak nahi dituztela. "Pare bat lagunek esan digute gertu daudela batzordean sartzeko, baina gehiago behar ditugu. Jendeak uste du lan handia dela, eurak ez daudela horrelako kontuetara ohituta, eta ezezkoa eman digute. Haiei esango nieke ez dela horrenbesterako, ez dela aparteko lana ardura izatea eta egin beharrekoa dela batik bat ekintza zehatzetan laguntzea".



Erretiratuak Torresoroako egoitzan kinan jolasten Inauterietan. I.A.

**TABERNARAKO BOLUNTARIOAK**

Presidentearen esanetan: "Lokal berrian jendea ibiltzen da eta tabernako zerbitzurako taldeak egin ditugu. Hala ere, erosketak, kontuak… batzordearen ardura dira. Komeniko litzateke norbait horren kargu egitea, baina boluntariorik ez dago. Norbait gertu balego, gustura hartuko genuke".

Egunerako jarduerez gain, ekintza bereziak ere antolatzen dituzte erretiratuek. Martitzenean, martxoaren 24an, diabetesaren gaineko hitzaldia izango dute Landatxopen, 17:30ean. Apirilaren 2rako, berriz, irteera antolatu dute Iratxera. Izena emateko hilaren 23an eta 24an izango da aukera Landatxopen, 16:00etatik 18:00etara.

**bere ustez**



Antonio Deogracias

## Justiziarik ezak akabatuko nau

Goienatik deitu zidatenean iritzi artikuluak idaztea proposatuz baietz esan nien; baina ez nuela batxeez, estoldez edo argiteriaz idatziko, horretarako bazeudela beste batzuk. Bestelakoez jardungo nuela argi nuen, eta horrela izan da, gaur arte.

Denbora pasa arren gertaera hau burutik kendu ezinik nabil: urtarrilaren 1ean kalera atera eta ezin nuen sinetsi nire begiez ikusten ari nintzena: tentelen batzuek herriko plaza edertzen duten landareetan egindako triskantza.

Ez dakit tontakeria egin duenaren edo dutenen adina, baina, oso mozkortuta egonik ere, horrelako gauzak ez dira besterik gabe egiten, makurkeriaz eta fede txarrez baizik, mina emateko asmo hutsez. Hori egiteagatik ez dira "gizonago", hori bazen behintzat erakutsi nahi zutena.

**"Horrelako gauzak ez dira besterik gabe egiten, makurkeriaz eta fede txarrez baizik"**

Maitasuna ez da sekula iritsi euren bihotzetara eta zalantza dut horrelako jarrerekin inoiz ailega daitekeen. Euren barruan gorrotoa eta gutxiespena baino ez daude.

"Adiskide"… saia zaitez zure barrutik harago begiratzen eta baietz aurkitu gauza xumeenengatiko ilusioa. Suntsiketa bideak ez zaitu inora eramango. Ireki bihotza eta baietz maitasuna eskuratu eta zure bizitzari zentzua eman.

## Zaleak bertso giro politean martitzenean

Martitzenean hasi zuen Olaran etxean hamar laguneko taldeak bertso ikastaroa, Iñaki Gurrutxaga bertsolaria gidari zela. Asmoa da zaleen artean bertso giro polita sortzea eta bertsotan pixka bat trebatzea. Teknikan oinarrizko ezagutzak jasoko dituzte eta bakoitzak dakienetik taldeari eman. Lehen egunean, bertsolaritzaren historia errepasatu, pare bat bertso sorta kantatu, errima ariketak egin eta amaieran kopla bana kantatu zuten.



IÑAKI GURRUTXAGA

**oharrak**

KIROLA

**> Herriko Pilota Txapelketa**

Aste bukaeran jokatu zituzten Herriko Pilota Txapelketako final-laurdenak eta honakoak dira emaitzak: Iñurrigarro 22-Ota 18; Palomo 1-Irimo 22; Untzarri 22-Aitzol 19; Bida 16 - Zubi 22. Finalerdiak, aldaketarik ezean, zapatuan 10:00etan hasiko dira. Jokatuko diren partiduak: Inurrigarro-Irimo eta Untzarri-Zubi.

IKUS-ENTZUNEZKOA

**> Korrika Kulturala**

Zapatuan Korrika Kulturaleko ekitaldia izango da gaztetxean. 18:15ean *Bidaia intimoak* dokumentala emango dute eta ostean kafe-tertulia izango da.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19
INDUSTRI MANTENIMENDUA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**GAZTETXEA** > XIII. URTEURRENA

## Intxortara igoera, herri bazkaria eta kontzertuak

Zapatuan, hilaren 21ean, ospatuko dute gaztetxearen XIII. urteurrena

**L.Z.** > ELGETA
Asteon 13 urte beteko dira herriko gazte talde batek gaur egungo gaztetxearen lokala okupatu zuenetik. Eta, urtero legez, gaztetxekoek ekitaldi mordoa prestatu dituzte urteurrena ospatzeko.

Zapatuan, hilaren 21ean, egingo dituzte ekitaldi nagusiak. Goizean mendi irteera egingo dute Intxortara eta eguerdian trikipoteoa eta herri bazkaria. Gauean, lau taldek emanaldia egingo dute gaztetxean. Gaztetxetik ekitaldiotan parte hartzeko dei egin dute.

**EGUN OSOKO EGITARAUA**
Zapatuan, 10:30ean abiatuko dira gaztetxekoak Intxortarantz. Jakinarazi dute izenematea plazan bertan egin ahalko dela 10:00etan hasita. Herri bazkaria 14:30ean egingo dute, eta aurretik trikipoteoa egongo da herrian. Menuan zortzi euro da: makarroiak, solomoa piperrekin, postrea, kafea eta kopa. Bertsolariek bazkalostea girotuko dute, eta 18:00etan batukada iragarri dute antolatzaileek. Izenematea atzo amaitu zen.

Gauerako lau talderen kontzertuak antolatu dituzte gaztetxean. Skakeitan eta Jonny Gerriwelt taldeek emango diote hasiera emanaldiari. Jarraian, herriko bi taldek egingo dute saioa; Sotamano eta Ostiada Oi! taldeak, hain zuzen ere. Kontzertuak 22:30ean hasiko dira gaztetxean.

**ERRETIRATUAK** > URTEKO BATZAR OROKORRA

## Elkarteari izen berria ipintzeko proposamena

Hilaren 27an egingo dute batzarra, 17:00etan hasita, Ozkarbi elkartean

**L.Z.** > ELGETA
Elgetako erretiratuek urteko batzar orokorra prestatzen dihardute egunotan. Hilaren 27an, barikuan, egingo dute Ozkarbi elkartean, 17:00etan hasita. Aurreko urteko akta irakurri eta onartzeaz gain, 2008ko diru kontuak eta 2009ko aurrekontua ere aztergai izango dituzte.

**IZEN BERRIA ELKARTEARI**
Zuzendaritza batzordeak, bestalde, elkartearen izen aldaketa ere proposatzen du aurten. Orain arte *Zaharren biltokia* izenarekin deitua izan dena *Xalbadorpe Erretiratuen Elkartea* deitzea proposatuko dute batzarrean.

Horretaz gain, zuzendaritza batzorderako bi kide berri aukeratuko dituzte eta Udalaren zein Ozkarbi Elkartearen arteko akordioaren berri emango dute. Zuzendaritzatik batzarrera etortzeko deia egin dute. Amaieran pintxoak egongo direla jakinarazi dute.


Arrota pareko lur mugimenduak direla-eta errepidea beherantz doa pixkanaka. L.Z.

**LANAK** > ARROTA

# Diputazioak Arrotan harri-lubeta egingo du

Diputazioko teknikariak martitzenean batu ziren udal ordezkariekin eta Arrotako kaltetuekin, hartutako erabakiaren berri emateko

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA
Diputazioak lehenbailehen hasi nahi ditu egokitze lanak Arrota parean. Arduradunek ez dute egindako zundaketa geoteknikoek emandako emaitzen gaineko informaziorik zabaldu gura izan, baina jakinarazi dute eremu horretan eustorma edo harri-lubeta egingo dutela. "Emergentziazko lanak izango dira", adierazi du Elgetan egindako bileran Diputazioaren izenean egon zen Jose Antonio Navarrok. "Diputazioa arduratuko da lanen zuzendaritzaz, eta orain lurjabeekin negoziazio prozesua hasi behar dugu; izan ere, euren lur eremuetan jardun behar dugu lanean".

Udal aparejadore Ricardo Landak azaldu duenez, "Diputaziokoek identifikatu dute zein den mugitzen den geruza eta lur mugimendu hori ekiditeko 50 metroko harri-lubeta bat egiteko asmoa dute, Arrota baserrian duten abeletxetik hasi eta garajeraino". Landak gaineratu du lanek bi hilabete inguruko iraupena izango dutela eta denbora horretan bidea zabalik uzteko asmoa dutela.

**KALTETUEN KEZKAK**
Arrotan aspaldi zeuden Aldundiak erabakia hartu zain, baina hainbat zalantza dituzte martitzenean erakutsi dieten proiektuaren inguruan. "Harri-lubeta egin nahi dute, baina, hasiera batean, uste baino beherago ipini nahi dute", adierazi du Arrota Azpiko Ana Mari Urretabizkaiak.

Negoziazio prozesuaren zain daude orain kaltetuak. "Hamabi fruta-arbola kentzen dizkigute, garajea bota egiten digute eta zutik lagatzen digute lur mugimenduak direla-eta erortzear dugun oilategia. Gainera, harri-lubetaren azpiko aldean gelditzen zaigu ur depositua. Gauza asko daude zintzilik, eta ez diet lanean hasten utziko guztia ondo lotu arte".

> KIROLA

### Hilaren 29an (domeka) bi kros egingo dira herrian

Eguraldi kontuengatik hilaren 8an egitekoa zen umeen krosa atzeratu egin zuten antolatzaileek eta martxoaren 29an, domekan, egingo dute azkenean.

Aurten, gainera, eta berrikuntza moduan, Egokik eta Udalak bikotekako krosa ere antolatu dute egun bererako.

Bi kilometroko lasterketa izango da eta infantiletatik gorako bikote mistoendako dago zabalik parte-hartzea. Bai batean bai bestean izena emateko epea zabalik dago. Interesatuek udaletxera jo behar dute.

frontenis txapelketa

## Aste bukaeran zazpi partidu frontenisean

Zubiak zubi, aste bukaera honetan zazpi norgehiagoka jokatuko dira Elgetako frontenis txapelketaren barruan.

Txapelketa azken txanpan sartu da dagoeneko. Bai gizonezkoetan, bai emakumezkoetan txapelketa erregularreko bi norgehiagoka gelditzen dira jokatzeko.

Bi txapelketetako lehenengo lau sailkatuek lortuko dituzte finalerdietarako txartelak.

Lehiak zabalik jarraitzen du eta txartel batzuk *dantzan* daude.

**SAILKAPENAK**

| Gizonezkoen txapelketa | J | I | G | T.A. | T.K. |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi | 7 | 7 | 0 | 175 | 93 |
| 2. Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga | 7 | 6 | 1 | 170 | 108 |
| 3. Asier Morales-Asier Osoro | 7 | 5 | 2 | 168 | 138 |
| 4. Adrian Gorostiza-Sergio Bouzas | 6 | 4 | 2 | 128 | 117 |
| 5. Ibon Untzetabarrenetxea.-Ander Gorosabel | 7 | 3 | 4 | 144 | 147 |
| 6. Mikel Arkarazo-Josu Olasolo | 7 | 3 | 4 | 140 | 155 |
| 7. Josu Arantzabal-Fernando Zenitagoia | 6 | 3 | 3 | 121 | 114 |
| 8. Jose Monterroso-Anton Pierrugues | 7 | 1 | 6 | 107 | 165 |
| 9. Oskar Sarasua-Roberto Mora | 6 | 1 | 5 | 101 | 140 |
| 10.Josu Urizar-Jabi Gamarra | 6 | 0 | 6 | 71 | 150 |

| Emakumezkoen txapelketa | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Nagore Ojanguren-Idoia Serna | 4 | 3 | 1 | 105 | 58 |
| 2. Mireia Berriozabal-Rebeka Ubera | 4 | 3 | 1 | 95 | 77 |
| 3. Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasketa | 4 | 3 | 1 | 95 | 81 |
| 4. Nagore Morales-Janire Lazkano | 4 | 2 | 2 | 72 | 75 |
| 5. Miren Argi Zeziaga-Idoia Lasa | 4 | 2 | 2 | 69 | 85 |
| 6. Mari Carmen Salas-Izaskun Ojanguren | 4 | 1 | 3 | 61 | 95 |
| 7. Amaia Iribar-Alizia Gartzia | 4 | 0 | 4 | 63 | 100 |

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA


*Mirande kabareta* antzezlanaren momentuetako bat. GOIENKARIA

**KULTURA** > TXIRRITOLA EUSKARA ELKARTEA

# Kabareta, musika eta poesia datorren barikuan

Txirritola elkarteak antolatuta 'Mirande kabareta' antzezlana ikusteko aukera martxoaren 27an

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Txirritola Euskara Elkarteak urtero antzerki emanaldi bat antolatzen du. Bada, aurtengoa kabaret estilokoa da: *Mirande kabareta.* Antzezlan horrek kabareta, komedia, musika eta poesia uztartzen ditu; eta, nola ez, euskara hutsean egindako lana da.

Ikuskizuneko arduradunek diote "kabaret lotsagabea eta politikoki ez-zuzena" dela. Honako galderari erantzuten dio antzezlanak: "Noizko euskal kabareta?". Galdera horri erantzuteko, Edorta Jimenezek politikoki zuzena ez den testu bat idatzi zuen, eta Galder Perez eta Ane Zabala aktoreekin batera antzeztuko du idatzi hori.

Edorta Jimenezek azaldu du *Mirande kabareta* ikuskizunak II. Mundu Gerra aurreko antzerkiaren ezaugarriak berreskuratu nahi dituela; hau da, "eguneroko gauzetan oinarrituz sortzen zen antzerki haren ezaugarriak". Kabaret ikuskizuna izanda, musika da emanaldiaren beste ardatz nagusia; Txuma Murugarren eta Rafa Aceves arduratu dira zati horretaz. "Ezin da egon kabareta musikarik gabe, funtsezkoa da, zirika sozial eta politikoen artean kantatu egiten da-eta", azaldu du Edorta Jimenezek. Antzezlana 22:00etan hasiko da, kultura etxean. Sarrerek 10 euro balio dute; langabeek eta ikasleek 5 euro ordainduko dituzte. Korrika Kulturalaren barruan kokatzen den emanaldia da.

**IPUIN LEHIAKETA**

Bestetik, gogora ezazue Txirritola Euskara Elkarteak antolatutako ipuin lehiaketarako lanak aurkezteko epea datorren barikuan amaituko dela, martxoaren 27an. Ipuinak gutun-azal handi batean sartuta aurkeztu beharko dira liburutegian. Gutun-azalean honakoa idatzi behar da: *Txirritola ipuin lehiaketa*, egilearen goitizena eta ikasketa-maila.

**KULTURA** > LIBURU AZOKA

# Bigarren eskuko liburuak saltzeko azoka antolatu dute

Batutako liburuak azokan salduko dituzte euro baten truke; dirua gobernuz kanpoko erakunde bati emango diote

**A.B.** > ARAMAIO

Apirilaren 23an Liburu Eguna ospatuko da. Hori horrela, herritar talde batek erabaki du aurten ere bigarren eskuko liburuen azoka antolatzea. Apirilaren 18an egingo dute azoka, zapatua. Horretarako, baina, herritarren laguntza behar dute. Asmoa da herritarrek etxean dituzten liburuak jasotzea eta ondoren horiek apirilaren 18an egingo den azokan saltzea euro baten truke. Batutako dirua gobernuz kanpoko erakunde bati emango diote.

Liburuak martxoaren 30a eta apirilaren 17a bitartean jasoko dituzte, eta bi tokitan emateko aukera dago: goizez udaletxean eta arratsaldez liburutegian, hain zuzen ere.

Solidaritatea eta irakurtzeko zaletasuna uztartzen dituen proiektua da.

> PLAN OROKORRA

## Proposamenak aurkezteko epea luzatu egin dute

Aramaioko Plan Orokorraren aurrerakinari proposamenak aurkezteko epea 2009ko ekainaren 20ra arte luzatzea erabaki du Udalak. Otsailaren 25ean egindako osoko bilkuran erabaki zen aurreproiektua beste hiru hilabetez jendaurrean mantentzea. Stoa enpresak Udalari egindako Plan Orokorrerako proiektua udaletxeko osoko bilkuren aretoan dago ikusgai. Bertan ikus daitezke proiektuaren plano guztiak; proposamenak osoko bilkuren aretoan ipini dituzten postontzietan sartu behar dira.

**tailerrak**

## Gazteendako tailerrak

Aramaioko Udalak 12 eta 18 urte bitarteko gazteendako tailerrak antolatu ditu. Liburutegian eman beharko da izena.

**Grafiti tailerra**
Noiz: martxoak 28.
Ordua: 16:30ean.
Izenematea: martxoaren 25era arte.

**Irrati tailerra**
Noiz: apirilak 25.
Ordua: 16:30ean.
Izenematea: apirilaren 17ra arte.

**Larrugintza tailerra**
Noiz: maiatzak 30.
Ordua: 16:30ean.
Izenematea: maiatzaren 22ra arte.

Unzueta sagardotegia



sagardoa txotxetik
•
sagardotegiko menua
•
karta

eguneko menua
•
ospakizunak
•
enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95

Sei ikastaroren artean aukeratuko dute gure duten herritarrek

Labidea dendan daukate zerrenda domekara bitartean

Ikastarook datorren ikasturtean egiteko izango dira

**IKASTAROAK** > SORGINAK EMAKUME ELKARTEA

# Zein ikastaro egin hautatzeko laguntza gura dute 'sorginek'



Sukaldaritzaren gainean Gatzagan egindako ikastaro bateko kideak lanean. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Sorginak Emakume Elkartea datorren ikasturteko egitaraua osatzen hasi da egunotan. Hainbat ikastaro egiteko asmoa dauka Bizikasirekin batera, baina herritarren laguntza gura du ikastarorik interesgarrienak aukeratzeko.

**SEI IKASTARO AUKERATZEKO**

Antolatuko dituzten ikastaro horiek herritar guztiendako izango dira –ez bakarrik emakumeendako– eta zerrenda Labidea dendan daukate. Orain, herritarrek bertatik pasatu eta interesatzen zaizkienak aukeratzea gura dute *sorginek*. Hala, antolatuko dituzten ikastaro horietan nahikoa lagunek parte hartuko dutela ziurtatuta izango dute. Sei ikastarok osatzen dute zerrenda eta norberari interesatzen zaionaren alboan izena eman behar du. Hona seiak: memoria lantzeko eta garatzeko tailerra; zelan ikasi erakusten duten ikastaroa; estresa zelan saihestu eta zelan gainditu tailerra; aromaterapia zer den eta zertarako erabil daitekeen ikastaroa; kontserbak, marmeladak eta likoreak egiten irakasten dutena; eta menu osasuntsuak –umeendako, edadetuendako…– egiten irakasten duten ikastaroa. Zerrenda horretan izena emateko azken eguna domeka da, hilak 22.

**BIZITZA OSOKO IKASKUNTZA**

Sorginak Emakume Elkarteak aurretik ere egin izan ditu ikastaroak Bizikasirekin. Debagoieneko Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzako Bitartekotza zerbitzua da Bizikasi eta Bergaran du egoitza. Gure eskualdean dauden prestakuntza eskaintza guztiak –ikastaroak, berbaldiak…– jasotzen dituen gune bakarra da –eskoletakoak, lanbide heziketa zentroetakoak, akademietakoak, elkarteetakoak…–. Gainera, elkarte eta pertsonen artean bitartekari lanak egiten ditu prestakuntza arautuan sartzeko erraztasunak emanez, batez ere gizartean kaltetuenak direnei: emakumeak, langabeak, etorkinak… Hala, *sorginek* iazko azaroan sukaldaritza ikastaroa egin zuten Bizikasirekin eta loaren gaineko berbaldia ere bai otsailean.

**ZERBITZUA** > ARGINDARRA

# Transformadorea martxan hilaren 23an

Transformadore zaharreko lotuneak kendu eta berriari jarriko dizkiote astelehenean

Lan horiek egiteko argindarra kenduko du Iberdrolak 08:30etik 13:30era bitartean

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Transformadore berria datorren astean hasiko da lanean. Iazko udazkena ezkero dago Udala transformadore berriaren zain, eta, lanak uste baino gehiago luzatu badira ere, astelehenetik aurrera martxan izango da.

Horretarako, baina, hainbat lan egin behar dituzte Iberdrolako langileek; tartean, transformadore zaharrera beharrean berrira lotu argindarraren dorretik doazen kableak. Eta lan horiek egiteko argindarra kendu beharko dute astelehenean, hilak 23, 08:30etik 13:30era bitartean. Udalak jakinaren gainean jarri ditu herritarrak, ahal den eragozpen gutxien sortzeko.



Transformadore berriaren txabola, zaharraren alboan. M.A.

**BANATZAILEA BAI, SORTZAILEA EZ**

Transformadore zaharretik ere ondo jasotzen dute argindarra herritarrek etxean, baina berritze lanak egitera derrigortuta zegoen Udala. Industria Sailak exijitu zion argindar banatzailea delako; hau da, Iberdrolari erosi eta herritarrei banatzen dielako Leintzargi SL enpresaren bitartez. Haiei zorrotz egiten die jarraipena Industria Sailak. Lanok egiteko 122.000 euro gorde zituen iazko aurrekontuan Udalak.

Gatzagako Udala argindar banatzailea izan arren, ez da sortzailea –ez du argindarrik sortzen, beste herri batzuek egiten duten moduan–. Hala ere, banatzen jarraitzeko erabakia hartu du, nahiz eta jakin gero eta zorrotzagoak izango direla arauak eta trabak ere etor daitezkeela. Herritarrak pozik daude zerbitzuarekin eta Udalak hori hartu du kontuan aurrera egiteko.

**ZERGAK**

# Ibilgailuen zerga bilketa epea

**M.A.** >LEINTZ GATZAGA

Trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga ordaintzeko epea zabaldu du Udalak. Hala iragarri dute martxoaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Gainera, herriko ibilgailuen errolda ikusgai dago herritarrak jakinaren gainean egon daitezen.

Udaletxeko idazkaritzan dauzkate zergaren gaineko argibide guztiak eta ordaintzeko epea maiatzaren 5a arte, martitzena, dago zabalik. Ordainagiri helbideratuen kasuan izan ezik, gainerakoek udaletxeko zerga-bilketa bulegotik pasatu beharko dute ordaintzeko.

Herritarren bat ez badago ados zergarekin, erreklamazioa aurkezteko aukera dauka udaletxean.

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA

Jokin Antxia > UDAko presidente ohia

# "Segundo bakarra ere ez dut galduko sinisten ez dudan proiektuan"

**Jokin Antxiak bost urte egin ditu UDAko presidente, eta orain dela hilabete pasatxo dimititzea erabaki zuen, gai konkretu batean zuzendaritzako kideekin bat ez zetorrelako. Orain, hautagaiek apirilaren 3ra arte dute aurkezteko epea. Hala, Antxiak dimititzeko erabakia hartu izanaren nondik norakoak azaldu dizkio GOIENKARIAri. Ez du baztertzen berriro ere UDAko zuzendaritzarako aurkeztea.**



Jokin Antxia, Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian. XABIER URTZELAI

**UDAko zuzendaritza gidatzeko ardura hartu zenuenean proiektu bat abiarazi zenuen, eta proiektua amaitu barik utzi duzu.**

Bai, eta egia esan behar badut pena dut horregatik, abian jarri genuen proiektua amaitu ez izanagatik, alegia.

**Zergatik erabaki duzu UDAko zuzendaritza uztea?**

Labur-labur esan beharko banu, zuzendaritzako kideenganako konfiantza galdu dudalako eta presidente moduan nire iritzia ezbaian ikusi dudalako.

**Azaldu hori.**

Nire erabakiaren zergatia azaltzeko atzera egitea komeni da. Orain dela hiru urte Gipuzkoako klub gehienek, 62k guztira, hitzarmena egin genuen Realarekin –Antiguoko eta Kostkas geratu ziren kanpoan–, Gipuzkoako futbolarendako ona zena. Hitzarmen hartan, Gipuzkoako futbola piramide forman egituratzen zen, eta asmoa zen denok Realaren alde batera lan egitea.

Eta trukean, klubek kategoria txikiekin lan egiteko erraztasunak izan behar genituen: koordinatzaileak, ondo prestatutako entrenatzaileak... dena oinarrizko futbolaren alde. Hitzarmen hura martxan zegoen, baina Badiola jauna etorri zen eta pikutara joan zen dena, ondo dakizuen moduan Realak ez zigulako klubei adostutako dirua eman. Orain, berriz, abian jarri dute berriro ere hitzarmena.

**Eta hitzarmen horrek, besteak beste, kluben artean izan beharreko harremanak zehazten ditu.**

Bai, eta hortik etorri da nire dimisioaren zergatia. Hitzarmenak ondo zehazten du Gipuzkoako kluben artean izan behar dugun elkarrekiko errespetua eta harreman ona. Eta ondo zehaztuta dago jokalari gazteak klub batetik bestera joateko ze baldintza bete behar diren.

Kontua da uztailean Mondrako infantil mailan ibilitako hiru jokalari gazte etorri zirela gurera, ohorezko infantil mailan jokatzera. Ni kalean enteratu nintzen horretaz, eta jokalari horiek Mondran ez zuten euren asmoen berri eman; gauzak ez zituzten behar den moduan egin, eta Arrasatekoak haserretu egin ziren.

Mondrakoekin erabaki genuen kontu hori konpondu egin behar genuela, eta gazteen gurasoak eta bi klubetako ordezkariak batu ginen. Batzarrean zera adostu genuen, bi jokalari UDAn geratuko zirela eta hirugarrenak Arizmendiren taldean jokatu zuela, parte-hartzeko futbolean. Erabaki horrekin Realaren hitzarmenak dioena betetzen genuen, klub batetik bestera gehienez bi jokalari joan daitezkeelako. Horrela geratu zen kontua, baina ia astero irteten zen gai bera: hirugarren gaztea UDAtik kanpo utzi genuela, ezin geniola horrelakorik egin... Eta otsailaren 2an zuzendaritzako gainontzeko kideak etorri zitzaizkidan esaten hirugarren gazte horri fitxa egin behar geniola.

**Eta hortik etorri da dimititzeko erabakia.**

Bai, nik tinko eutsi diodalako Mondrarekin adostutakoari; baina zuzendaritzako kide gehienak beste iritzi batekoak badira, ni soberan nago. Izan ere, kontua ez da gazte horri fitxa egitea ala ez egitea, ez da horren sinplea. Guk hartutako adostasunak eta sinatutako hitzarmenak errespetatzen ez baditugu, gure proiektuari harriak botatzen gabiltza.

> **"Gazteekin lan egiteko teknika berriak datoz, gure filosofiarekin bat egiten dutenak; horrek animatzen nau beste ahalegin bat egitera"**

Eta nik argi daukat sinisten ez dudan proiektu batean ez dudala segundo bat galduko. Mondraren eta UDAren arteko erabakia gurasoekin batera hartu genuen, eta ez badugu errespetatzen hankaz gora jarriko dugu Mondrarekin dugun harremana, eurekin adostutakoa, Realaren hitzarmenak zehazten duena eta baita guk sinisten dugun proiektua ere.

**Maila goreneko taldeek tirabira handiak izaten dituzte harrobiko jokalarien joan-etorriekin. Badirudi egoera hori Arrasatera eta Aretxabaletara ere iritsi dela.**

Gaizki goaz bide horretatik. Dena dela, begira ibili naiz eta Aretxabaleta inoiz ez da maila txikietan Mondrako jokalarien bila joan, eta oraingoa kasu bakana izan da. Arrasateko gazte mordoa dabil UDAn, baina hasieratik hona etorri direlako jokatzera. Hala ere, gure asmoa baldin bada Gipuzkoako klub guztiek lan batera egitea, eta Realaren alde %100 jardutea, horrelako tirabirek ez digute batere lagunduko. Mondrarekin ezinbestean konpondu behar dugu ondo, baita gainontzeko taldeekin ere.

**Realak, bestela ere, nahiko lan izaten du Gipuzkoako jokalari gazteak Zubietara eramateko; Athleticen eskuak luzeak dira...**

Bai, eta egunen baten zabal egin beharko dugu berba Athleticeko begiraleek gurean egiten duten lanaren gainean ere. Izan ere, hemen badira inongo baimen barik jokalari gazteak Bizkai aldera eramaten dituztenak, baina egunen baten hemengo klub guztiak elkartuko gara, horren kontra gogor egiteko.

Izan ere, egin ezin daitezkeen gauzak egiten ari dira: klubetako kategoria txikietako jokalariak baimen barik hartu, selekzioak egin eta jokatzera Bizkaira eraman.

**Dimititzeko erabakia hartuta, aurreikusitako lan guztiak amaitu barik geratuko ziren.**

Gure helburu nagusia futbol eskola sortzea izan da, eta nire asmoa zen aurtengo denboraldian proiektua bideratuta utzi eta ondorengoei lekua egitea. Futbol eskolan 8, 9 eta 10 urteko gazteek poliki-poliki futbolean jokatzen ikastea da asmoa, eta baita pertsona moduan gazte horiek ondo heztea ere. Gure asmoa inoiz ez da izan beheko kategorietan sekulako taldeak osatzea; ez gara horrelakoekin itsutzen. Gura duguna da jokalari horiek gazte mailara arte UDAn jardutea.

Orain, ekainaren 30a baino lehenago klubek berriro ere hitzarmena sinatuko dute Realarekin, taldeek berriro dirulaguntzak izango dituzte eta normaltasunera itzuliko dira. Ea horrek guk abian jarritako proiektua egonkortzeko laguntzen duen.

**Baduzu datozen hauteskundeetara aurkezteko asmorik?**

Hori da orain baloratzen nabilena, esfortzua egin eta konfiantzazko talde bat sortuta hauteskundeetara aurkeztea. Gure proiektua erabat egonkortzeko bi urte behar ditugu, gehiago ez, eta hori da pentsatu beharrekoa.

Izan ere, futbolaren gainean gure inguruan oso mugimendu politak ikusten nabil, haize freskoa dator, eta horrek asko animatzen nau. Jokalari gazteekin lan egiteko teknika berriak datoz eta gure filosofiarekin bat egiten dutenak; horrek ematen dit indarra berriro ere hauteskundeetara aurkezteko.

**FUTBOLA** > PREFERENTE MAILA

# UDAk, lidergoan, bigarren postuan dagoen Hernani hartuko du domekan

Hernaniko jokalariak lidergoa hartzera etorriko dira Ibarrara, eta horren aurrean Gordobilen mutilek euren lana ondo egitea izango dute helburu

**LARRAITZ ZEBERIO** > BERGARA

"Kontrario oso gogorra izango dugu aurrez aurre domekan", adierazi du UDAko entrenatzaile Igor Gordobilek. "Esperientzia handiko jendea dute Hernanin. Oso onak diren lauzpabost jokalari ditu taldeak, hirugarren mailatik jaitsitakoak".

Domekako (16:30, Ibarra) norgehiagoka ikustekoa izango da. Aretxabaleta sailkapeneko liderra da 49 punturekin eta bigarren postuan dagoen Hernaniko taldearen bisita izango du. "Lehenengo postua defendatzea anekdotikoa da uneotan guretako", esan du Gordobilek. "Arro gaude orain arte egindako lanarekin, baina domekako helburua gure betebeharra ondo egitea izango da, emaitzarekin obsesionatu gabe. Argi daukagu nor izango dugun aurrez aurre, eta horren aurrean burua hotz daukagu".

**LAN GOGORRA ASTEON**

Astea oso gogorra izan dela adierazi du Gordobilek. "Entrenamendu saioak oso zorrotzak izan dira asteon, eta jokalari guztiak buru belarri aritu dira lanean". Entrenatzaileak ezingo ditu guztiak deialdian sartu eta bi kanpoan utzi beharko ditu. "Oso erabaki gogorra da niretako", esan du Gordobilek. "Oso lan exijentea egin dugu aste honetan eta denek merezi dute jokatzea, baina nire ustez onenak direnak aukeratu behar ditut eta asmatzea espero dut".

**KONTRARIOARI AURRE EGITEA**

Aretxabaletakoek orain arteko lan ildotik jarraitzea izango dute helburu domekan. "Betiko moduan gu gure lana egitera irtengo gara zelaira", esan du Gordobilek, "kontrarioari aurre egitera".



Aretxabaletak Amaikak Bat taldearen aurka jokatu zuen etxeko azken partidua, eta 3-0 irabazi zuen. ARTXIBOA

Azaroaren 11n jokatu zuten joaneko partidua bi taldeek eta Hernaniko futbol zelaian jokatutako norgehiagokan 3-0koa egin zion Hernanik Aretxabaletari. Orain, ordea, egoera bestelakoa da. Taulako lehenengo postuan egotea egindako lanaren ordaina bada ere, ezin ukatu motibazio berezia ematen duenik.

Jokatutako azken lau partiduak irabazi egin ditu Aretxabaletak, eta bosgarren garaipenaren bila irtengo dira domekan. Zalantzarik gabe norgehiagoka interesgarria izango da jarraitzaileendako, eta Ibarrak denboraldiko sarrera onenetarikoa izango du, seguru.

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**EKONOMISTAK**

**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.




Aitor Lopez Rekarte (eskuman) Ipuruan, eguenean egin zuen lehenengo entrenamendu saioan. XABIER URTZELAI

**FUTBOLA** > BIGARREN MAILA

# Rekarte: "Duda barik esan diot Eibarri baietz"

Egun batetik bestera Aitor Lopez Rekarte erretiratuta egotetik Ipuruan entrenatzera pasa da; ekainera arte sinatu du Eibarko taldearekin

**XABIER URTZELAI**> EIBAR

Horrelakoa da futbola. Aitor Lopez Rekartek futbola alde batera utzi eta beste erronka batzuetan buru-belarri zebilela kontatu zigun orain dela hiru aste, eta eguen goizean Eibarko entrenatzeko elastikoa jantzi eta bi orduko lansaioa izan zuen: "Eguaztenean deitu zidaten Eibartik eta ez nuen birritan pentsatu behar izan; alde horretatik ez nuen inongo dudarik izan".

Rekartek urte erdi darama goi mailako futbolean jokatu barik, baina traba hori berehala gainditu gura du: "Gabonak arte entrenatzen ibili naiz, eta gorputzaldi onean banago ere egia da partiduetako erritmoa falta zaidala. Dena dela, nire asmoa da taldeari hasiera-hasieratik egitea ekarpena, eta talde giroan lehenbailehen murgiltzea".

**EGOERA EZ DA ONA**

Arrasatekoak badaki Eibarren egoera zein den: "Baina aurrera egin behar dugu. Badakigu datozen jardunaldiak ez direla errazak izango, baina Uribe txispa handiko entrenatzailea da eta lan egiteko gogoarekin etorri da Eibarrera. Eta besteok ere gauza bera egin behar dugu".

Egueneko entrenamendu saioan Uribek astero jokatzen dabiltzan jokalariekin jarri zuen Rekarte, ezker hegalean, gainera. Eta, 30 minutuko partidutxoa amaitu ostean Arrasatekoak bakarkako ariketak egin zituen prestatzaile fisikoarekin batera. Hala, horrek zenbait pista eman ditzake Eibarrek bihar Kordoban jokatuko duen partiduaren aurrean, alegia, posible da Rekartek asteburuan bertan debuta egitea: "Bai, Aitor seguruenik taldearekin batera etorriko da Kordobara, eta baliteke hasierako hamaikakoan egotea. Ikusi duzue zelan dagoen, txoritxo bat bezain arin eta zelaian lekua hartu eta mantentzeko gauza da", adierazi zuen Uribek.

**FITXAKETA POSITIBOA**

Talde armaginak azken asteotan izan dituen lesioei aurre egiteko fitxaketa oso ona dela azpimarratu zuen Uribek: "Zuzendaritzakoek asmatu egin dute. Etxeko jokalaria da, inplikatuta dagoena eta esperientzia handia duena. Gainera, eskuin zen ezkerrean joka dezakeen jokalaria da Aitor".

Biharko partiduari dagokionez, bi protagonistak bat datoz: "Kategoriari eusteko lehian gabiltzan taldeen artean kontrario zuzena da Kordoba. Partidua irabaztea oso positiboa izango litzateke, baina ezinbestekoa da norgehiagoka ez galtzea; gutxienez, puntu batekin etorri behar dugu handik". Kordobatik bueltan, Uriberen asmoa da domekan UDA-Hernani zuzenean ikustea, gertutik jarraitzen du-eta Aretxabaletako futbol taldea.




Entrenamendu saioaren ostean prentsaurrea egin zuen Rekartek. X.U.

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Reala-Girona
Domeka. 17:00. Anoeta.

Kordoba-Eibar
Zapatua. 18:30. El Arcangel.

**Preferente maila**
Aretxabaleta-Hernani
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Lehen erregionala**
Eibartarrak-BTLS
Zapatua. 15:30. Unbe.

Urola-Mondra
Zapatua. 16:00. Argixao.

**Bigarren erregion. Igoera**
Bergara-Getariako Keta
Zapatua. 17:00. Ipintza.

**Ohorezko mailako gazteak, Kopa eta jaitsiera**
Billabona-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Arratzain.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**
Bergara-Hondarribia
Domeka. 12:00. Ipintza

**Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitsi.**
Zumaiako-Aloña Mendi
Domeka. 16:00. Aita Mari.

Hernani-Arrasate
Domeka. 11:00. Zubipe.

**Lehenengo kadeteak, igoera**
Hondarribia-Aretxabaleta
Zapatua. 11:00. Ondartza.

**Lehenengo kadeteak, kopa**
Aloña Mendi-Soraluze
Zapatua. 16:00. Azkoagain.

**Kadete Txiki**
Arrasate-Urki
Domeka. 12:00. Mojategi.

**Infantilen ohorezko maila, kopa eta jaitsiera**
Bergara-Zumaiako
Zapatua. 11:30. Ipintza.

Aretx.Arizmendi-Sporting
Zapatua. 11:00. Herrera.

**Infantil mailako kopa**
Billabona-Arrasate
Zapatua. 11:30. Arratzain.

**Infantil txikien kopa**
Aretxabaleta-Ordizia
Domeka. 11:30. Ibarra.

**Emakumezkoak, igoera fasea**
Beti Gazte-Mondra
Domeka. 16:30. Mastegi.

**Emakumezkoen kopa**
Elgoibar-Arizmendi
Zapatua. 16:30. Mintxeta.

**Emakumezko kadeteak F8 kopa**
Aloña Mendi-Zestoa
Domeka. 10:30. Azkoagain.

**Emakumezko kadet. F11. Txapeldunen fasea**
Bergara-Añorga
Domeka. 16:00. Ipintza.

**Emakumezko kadet. F11. Kopa txapelketa**
Zarautz-Mondra
Domeka. 15:30. Asti-Txiki.

Touring-Arizmendi
Zapatua. 12:00. Fanderia.

**SASKIBALOIA**

**Lehenengo maila. Jaitsiera**
MU-Goierri Verkol
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Gipuzkoako seniorrak**
Cafes Aitona-MU
Zapatua. 16:00. Donostia.

Aloña Mendi-Leihoak
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Aloña Mendi-Ordizia
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak**
Erroibide-Eskoriatza
Domeka. 12:00. Irun.

**Gazte maila, gizonezkoak**
Aloña Mendi-Oiarso
Zapatua. 18:00. Donostia.

Cafes Aitona B-MU
Zapatua. 18:00. Donostia.

**Gazte maila, emakum.**
Eskoriatza-MCM B
Zapatua. 16:00. Intxaurtxue.

Soraluce BKE-Bera Bera.
Zapatua. 18:00. Mariaren La.

**Kadeteak, gizonezkoak**
Aldapeta-MU
Zapatua. 12:00. Donostia.

Easo-Aloña Mendi
Zapatua. 12:10. Donostia.

**Kadeteak, emakumezkoak**
Oiartzun-Arizmendi Eskor.
Zapatua. 12:15. Oiartzun.

**Infantil, gizonezkoak**
Salleko Zarautz-LEK Ointxe!
Zapatua. 12:00. Zarautz.

Ikasi ISB-LEK Arizmendi
Zapatua. 09:30. Azkoitia.

Aloña Mendi-Hotel Castillo
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

Servimasa BKE-Antoniano
Zapatua. 10:45. Mariaren La.

Larramendi-LEK Instituto
Zapatua. 09:45. Donostia.

**Infantil emakumezkoak**
Sidenor-Aloña Mendi
Zapatua. 09:30. Azpeitia.

LEK San Viator 1-Pasaia
Zapatua. 12:00. Musakola.

Aldapeta-LEK San Viator 2
Zapatua. 10:30. Donostia.

**ESKUBALOIA**

**Euskadi txapelketa Emakumeak. Igoera**
Verkol Aloña-Kukullaga
Domeka. 10:00. Zubikoa.

**Euskadiko txapelketa, gazte emakumezkoak**
Verkol Aloña-Zuazo
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

**Euskadiko Txapelketa, kadete emakumezkoak**
Verkol Aloña-Errialdea.
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako bigarren territorial maila**
BKL-Arrasate
Domeka. 11:30. Beasain.

Aloña Mendi-Amenabar
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

**Federazio saria**
Urnietako-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Urnieta.

**Udaberriko torneoa. Gizonezko gazteak**
Egia-Arrasate Chapime.
Zapatua. 19:30. Donostia.

**Udaberriko torneoa. Emakume gazteak**
Winbel-Citroen Chapime.
Zapatua. 16:00. Gasteiz.

**Udaberriko torneoa. Emakume kadeteak**
Bergara-Ereintza
Domeka. 10:45. Labegaraiet.

**Aldundiko torneoa. Kadete mutilak**
Bergara-Jauja
Domeka. 12:15. Labegaraiet.

**PILOTA**

**2. urteko alebinak. Eskuz binaka**
Aretxabaleta 1-Txapagain
Aretxabaleta 2-Lapke 1
Euskal Jolas-Txapagain 1
Arrasate-Segurako
Zapatua. 16:00.
Aretxabaleta..

**TRIALSINA**

**Gipuzkoako Txapelketako bosgarren proba.**
Domeka. 10:30. Arantzazun.



**Trialsin proba egingo dute domekan Arantzazun (10:30)**
Hernanin, Pasai Donibanen, Urretxun eta Aretxabaletan lehiatu eta gero Gipuzkoako Txapelketako azken jardunaldia egingo dute domekan Arantzazun. Gainera, ikusleendako ere bizikletak eta kaskoak egongo dira, kirol hori proba dezaten.



**> 'MISERABLEAK'**
Emanaldien balorazio positiboa egin dute antolatzaileek **> 32**



**> BERTSOLARITZA**
Mañex Agirre aramaioarra finalerako sailkatu da **> 33**

**> EDURNE ELKORO**
Arrasateko gaztea gimnasia erritmikoko entrenatzailea da. Horrez gain, diseinu enpresa baten ere egiten du lan. Bietan ala bietan, gustura dihardu Elkorok **> 36**



**TAILERRA** > BIRZIKLATZEA

# Zaborra lehengai duten artelanak

'Gutxiagorekin gehiago egin' deritzon tailerraren bidez zaborra artelan bihurtzen ikasi dute Oñatiko gaztelekuan, hilaren 14tik 18ra bitartean

Zabor gutxiago sortzen ahalegintzea izan da ikastaroaren helburuetako bat; Ruben Fuentes artista plastiko kubatarra izan da irakaslea










Herrian bertan jasotako zaborrekin denetariko artelanak egin dituzte gaztetxoek.

OÑATIKO GAZTELEKUA

**JOKIN BEREZIARTUA** > OÑATI

Birziklapena eta artea eskutik helduta izan ziren Oñatin joan den martxoaren 14tik 18ra bitartean. Oñatiko gaztelekuak beste eskaintza berezi bat antolatu zuen herriko gaztetxoendako: *Gutxiagorekin gehiago egin* izeneko arte tailerra, hain zuzen.

Joseph Beuys artista alemaniar ezagunak zioenez, "edozein pertsona da artista bat, haren ingurua aldatu eta hobetzeko gaitasuna duen heinean". Bada, esaera famatua errealitate bihurtu da beste behin; Oñatin oraingoan. Izan ere, arte tailerretan parte hartu duten gazte oñatiarrek euren herrian bertan jasotako hondakinekin –hots, ingurua hobetuz– artea egiten ikasi dute.

**TEORIATIK PRAKTIKARA**

Ruben Fuentes artista kubatarra izan da tailerren gidaria. Lehen egunean gaia kokatu zuen Fuentesek ordu eta erdiko eskola teorikoan. Hondakinak eta material naturalak erabili izan dituzten artistak aurkeztu eta euren lanak aztertu zituzten, ikusentzunezko proiekzio baten bidez. Erakutsitako adibideek komunean zutena: lan guztiak inongo baliorik ez duten materialez osatutako artelan ederrak zirela.

Bigarren egunetik aurrera ikasitakoa praktikara eroan zuten gaztetxoek. Errekara joan ziren, Olaran ingurura, bertako zaborrak jasotzera. Aurkitutakoak harritu egin zuen Jose Mari Azpitarte tailerren antolatzaile izan den gaztelekuko arduraduna: "Aspaldi errekara joan gabe nengoen eta, tamalez, espero baino zabor poltsa gehiago aurkitu genituen". Izan ere, tailerrak badu zaborra dela-eta jendea kontzientziatzeko helburua. Fuentesek dioenez, "herrian jasotako hondakinekin artea eginez jendearengan erantzuna sortu nahi dugu, artea kontzientzia eraldaketarako tresna moduan erabiliz".

Gaztelekuan izan diren arratsaldeetan –17:30etik 19:00etara– denetariko artelanak egin dituzte: eskulturak, horma-irudiak, margolanak...

**'SAFARI ARTISTIKOA'**

Lau eguneko ikastaroari amaiera emateko, lan txikiak bilduz panpina erraldoia egin zuten. Lan horretarako lehengaia Fuentesek berak batu zuen eguazten goizean errekan, Kasablanka auzoan. Aipatu ekintzari *safari artistikoa* deitzen dio artista kubatarrak. *Ehizaldian* 23 zabor poltsa batu zituen, 20 metro koadrotan. Orain, *ehizatutako* zaborrekin egindako panpina herriari erakutsiko diote.

**BI ALDEEN BALORAZIO POSITIBOA**

Antolakuntza eta Ruben Fuentes bera pozik agertu dira ekimenak izan duen erantzunarekin. Parte hartzaile kopurua ez da finkoa izan, gaztelekuko arduradun Jose Mari Azpitartek jakinarazi duenez, "aisialdi orduko jarduera zenez etortzea borondatezkoa zelako". Hala, egunez egun parte hartzaileak ezberdinak izan dira, batez beste 20 gaztetxo egunero. Gaztelekuko ekintzetan gertatu ohi denez, arte tailerretan ere aste bukaeran izan da parte hartzaile gehien.

Bestalde, tailerren irakasleak ere eskolaz kanpoko jarduera izana nabarmendu du. Horregatik, dio Fuentesek, "gaztetxoak erakartzeko ahalegin berezia egin behar izan dut, tailerra bera joko bat balitz bezala aurkeztuz". Eta helburua bete du: "azalpenak adi entzun eta gogotsu lan egin dute lau egunetan zehar", jakinarazi du artista kubatarrak.

IRAKASLEA

## Kubatik datorren artistaren gidaritza

Zaborretara botatzen ditugun edo guretzat balio txikia duten materialekin artea egiten aditua den Ruben Fuentes izan da *Gutxiagorekin gehiago egin* ikastaroaren gidaria. Kubako Matanzas hirian jaio zen, 1980ko ekainaren 27an, eta oso txikitatik erakutsi zuen arte ederrekiko zaletasuna. Habanako Arte Institutuan Arte Plastikoetan lizentziatu zen, 2006an.

Hamaika erakusketa zabaldu ditu Kuban, bakarrik zein taldeka. Haren azken obrek lotura zuzena dute naturarekin. Erakusketetan, parte hartzaile soila baino gehiago, antolatzaile eta kudeatzaile lanak egin ditu; Oñatin argi erakutsi du antolatzen dituen ekitaldietan izan ohi duen inplikazioa. Gainera, burututako sormen lan handiagatik saritua ere izan da. Izan ere, artea ekoizteaz gain, ikerketa lanak garrantzi handia du Fuentesen bizitzan. Eta ez hori bakarrik, kultura sustatzaile aipagarria izan da Kuban. Azkenik, norberaren burua hobeto ezagutzeko irrikak budismoa sutsuki jarraitzera eroan du.



Ruben Fuentes, gaztelekuan.








Joan den zapatuko musikaleko hainbat argazki.

ARGAZKIAK: JOSETXO ARANTZABAL

**IKUSKIZUNA** > 'MISERABLEAK' MUSIKALA

# Moñux: "Entseguetan malkoren bat bota nuen 'Javerten heriotza'-rekin"

Balorazio positiboa egin dute Moñuxek eta Chirlaquek; ikusleen berotasuna eta antzezleen lana nabarmendu dute

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Zapatuan, 15 urte geroago, *Miserableak* ikuskizunak izan zuen harrera beroaren ondoren, balorazioa egiteko garaia da. Horretarako, Valen Moñux zuzendari artistikoarekin eta Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendari musikalarekin egon gara. Biek balorazio oso positiboa egin dute: "Pozarren nago; neuzkan helburu guztiak bete direlako, bai emaitza aldetik eta baita Musika Eskolak dituen asmoen aldetik", esan digu Moñuxek. Lehen emanalditik hona aldaketa ugari izan dira, eta Moñuxek batzuk nabarmendu ditu: "Teknika asko hobetu da: tresneria, soinua eta argiztapena hobea da, antzezleek esperientzia handiagoa daukate eta kantu maila ere asko igo da".

**PUBLIKOAREN BEROTASUNA**

Moñuxek positiboki baloratu duen beste gauza bat agertokia erdian jartzea izan da, haren ustez ikusgarritasuna irabazi duelako musikalak. Azkenik, *Javerten heriotza* lan berria ere azpimarratu du zuzendari artistikoak: "Entseguetan malkoren bat bota nuen *Javerten heriotza* lanarekin". Musikala bigarren aldiz borobil atera bazen ere, "herri honek erakusten duen musikarenaganako maitasunak agertoki hobea merezi du; horrela, ikuskizuna borobilagoa izango litzatekeelako; adibidez, auditoriuma izanez gero", esan du Moñuxek. Chirlaquek, berriz, musikalera hurbildutako jendearen berotasuna nabarmendu du. "Orokorrean ondo egon zen eta igarri egin zen jendearen heldutasuna, bai agertokian eta baita orkestrako musikarien artean ere. Garrantzitsua izan da duela 15 urteko jendea errekuperatu izatea eta ilusio hori mantentzea". Zuzendari musikalak nabarmendu duen beste puntu bat ikusleen berotasuna da: "Bergarako jendeak musika gertutik jarraitzen du. Interesa piztu du jende gaztearengan".

**IKUSKIZUNA** > ANTZERKIA

# 'Ahuntza edo nor da Silvia?' antzezlana domekan Amaian

Edward Albee-k idatzitako lana da Txalok egokitutakoa

Drama sutsu eta mingarria da; etzi, Amaian, 19:30ean

**J.Z.** > BERGARA

Etzi, domeka 19:30ean, *Ahuntza edo nor da Silvia?* antzerki ikuskizuna egongo da Amaia antzokian. Antzezlan hori Txalo produkzio-etxearen eskutik dator; zuzendaria Karloz Zabala da eta aktore lanetan Ramon Agirre, Asier Hormaza, Ane Gabarain eta Asier Oruesagasti arituko dira. Antzezlana Edward Albee-k idatzi zuen –joan den mendeko dramagilerik garrantzitsuenetariko bat– eta Julia Marinek euskaratu du.

**BIZITZA PERFEKTUA, HAUTSITA**

Antzezlana tragedia bat da; drama sutsu eta mingarria, maitasunaren, zeloen eta idealen muina jotzen duena zuzenean. Martin eta Elena senar-emazteak dira, bikote perfektua itxuraz, baina euren bizitza perfektua hautsi egingo da Martin Silviarekin maitemintzen denean. Baina Silvia ahuntz bat da; giza izaera aztertzen da modu suntsitzailean.

Sarrerak 10 eurotan erosi ahal izango dira Kutxanet-en, Servikutxa-n eta Amaiako leihatilan.

**ERAKUSKETA** > ARETXABALETA

# Manolo Urtubiren hainbat argazki ikusgai Arkupen

Erakusketa datorren astelehenetik apiril amaiera arte egon da zabalik Aretxabaletan

**J.Z.** > BERGARA

Manolo Urtubi aretxabaletarrak argazki erakusketa ipiniko du datorren astelehenetik aurrera apiril amaiera arte Aretxabaletako Arkupe kultura etxeko erakusketa gelan.

**HAINBAT PAISAIA IKUSGAI**

Guztira 25 argazki ipiniko ditu ikusgai Urtubik eta bertan hainbat txokotako paisaiak erakutsiko ditu; gehienbat, Euskal Herrikoak izango dira. Erakusketa ikusi nahi duenarendako ondorengo ordutegian izango da zabalik erakusketa gela: astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00ak arte eta 18:00etatik 20:00ak arte; zapatuetan, berriz, goizez egongo da aukera, 11:00etatik 13:00ak arte.

Urtubik zaletasunagatik ateratzen ditu argazkiak, eta, era berean, Aretxabaletako argazki taldeko kide ere bada.

Gabriel Gulian > Musikaria

# "Besteendako konposatzea arazoa da haien esanetara egokitu behar duzulako"

MIRIAN BITERI > OÑATI

**Gabriel Gulian musikari uruguaiarrak musika saio didaktikoa eskainiko du gaur, egubakoitza, 18:30ean, Oñatiko gaztelekuan. Datozen lerroetan gaurko emanaldiaz eta, oro har, bere ibilbideaz berba egin digu.**



Gabriel Gulian uruguaiarrak Oñatiko gaztelekuan kontzertu didaktikoa eskainiko du gaur arratsaldean. GOIENKARIA

**Nolakoa izango da gaurko musika saio didaktikoa?**

Hego Amerikan barrena bidaiatuko dut kontzertu didaktiko baten bidez. Niretako esanguratsuenak diren herrialdeek historikoki izandako erritmoez jardungo dut eta, aldi berean, adibide moduan kantu bat interpretatuko dut. Baina herrialde guztietakoak ezin izango ditut jo, ez didalako astirik emango.

**Zeintzuk dira zuretako herrialde garrantzitsuenak?**

Musika afroamerikarraren sustraietan beltzek garrantzi handia izan dute. Hortaz, Kuba eta Brasil dira ardatzak. Musika afroamerikarraren nondik norakoak azaltzean, Kubako sona, guaracha eta boleroa; Brasilgo sanba, bossa-nova eta baiaoa; Uruguaiko candombea; Venezuelako joropoa; eta Argentinako chacarena eta zamba izango ditut eredu.

**Saioa albo batera utziko dugu. Zu uruguaiarra zara. Nolatan etorri zinen Euskal Herrira?**

*Istripuz* iritsi nintzela hona esan genezake. Eta 15 urtetik gora daramatzat dagoeneko Euskal Herrian.

**Hona etorri aurretik musikan jarduten zenuen?**

Betidanik gustatu izan zait musika. Uruguain zalea eta ikaslea nintzen, oso gaztea nintzeneta orduan. Karrera musikala Europan nengoela garatu nuen.

> **"Potato utzi nuenean, Gasteizen Barraca Selva izeneko taldea sortu eta *Tabulandia* diskoa grabatu nuen"**

**Zure ibilbidea luzea da. Beste askoren artean, Potato taldearekin bi disko grabatu dituzu. Zer oroitzapen dituzu?**

Oso positiboak. Garai hartan hegoamerikar oso gutxi ikusten ziren hemen; miraria zen bat ikustea. Are gehiago, hegoamerikar bat garai hartako musika talde batean parte hartzea.

**Potatoz gain, ze beste proiektutan egon zara sartuta?**

Potato utzi nuenean, Gasteizen Barraca Selva izeneko taldea sortu eta *Tabulandia* diskoa grabatu nuen. Hego Amerikako musika nagusitzen zen horretan. Handik gutxira, Donostiara joan nintzen eta salsaren munduan murgildu nintzen. Bi taldetan jardun nuen: El Tumbadito eta La Ferreteria.

2005ean, bakarkako ibilbideari ekin nion eta urtebete geroago, *Nadie sabe nada* diskoa kaleratu nuen. Parisera joan behar izan nuen lan hori egiteko, hemen inork ez zuen-eta interesik. Orain, bigarren diskoa prestatzen nabil; ea oraingoan zorte handiagoa dudan horren harira...

**Konpositorea ere bazara...**

Bereziki, konpositorea naiz. Niretako kantuak egiten ditut. Ez dut artistendako lan egin. Besteendako konposatzea arazoa da, haien baldintzetara egokitu behar duzulako. Hala ere, filmendako lanak konposatu ditut; Bingen Mendizabalekin, esaterako, hiru edo lau filmetan egin dut lan.

**Instrumentu asko ere jotzen dituzu, ezta?**

Bai. Gitarra-jolea, baxu-jolea eta perkusio-jolea naiz. Hala ere, gitarra da gustukoen dudana.

---

BERTSOLARITZA > ARABAKO TXAPELKETA

# Manex Agirre aramaiorra finalerako sailkatuta

## Domekan Aramaion erabakiko da zein bertsolari lehiatuko diren Gasteizko Printzipal antzokian

M.B. > BERGARA

Manex Agirre aramaioarra Arabako Bertso Txapelketako finalean izango da. Joan den aste bukaeran egindako aurreneko finalerdian zuzenean sailkatu zen. Guztira, 334 puntu lortu zituen aramaioarrak. Iñaki Viñaspre (324), Rikardo Gonzalez de Durana (313), Juan Mari Juaristi (311), Izar Mendiguren (298,5) eta Serapio Lopez (260) lehiatu ziren haren kontra.

Ehundik gora bertsozalek berotu zuten Zigoitiko saioa. Bertsolariak erregular ibili ziren eta guztiek utzi zituzten ale ederrak. Dena den, aramaioarra izan zen Zigoitiko agertoki gainean nabarmen nagusitu zena. Hala, ofiziozka ederto moldatu zen eta kartzelako gaian ere fin ibili zen; habanera doinua aukeratu zuen azken horretarako.

Txapelketako datorren finalerdia domeka honetan, martxoaren 22an, egingo dute. Aramaioko kultura etxean egingo dute esandako saioa, 17:00etan. Lierni Altuna aramaioarra arduratuko da emanaldi hori behar bezala gidatzeaz.




Zigoitian egin zen joan den astean aurreneko finalerdia. GOIENKARIA

**IGOA ETA ARRIOLABENGOA**

Saio horretan erabakiko da nor igoko den, Manex Agirrerekin batera, Gasteizko Printzipal antzokiko agertokira. Sei bertsolari egongo dira aurrez aurre: Xabier Igoa eta Andere Arriolabengoa aramaioarrez gain, Oihane Pereak, Asier Otamendik, Ruben Sanchezek eta Zigor Enbeitak gogor jardun beharko dute finalerako txartela lortzeko.

Esan bezala, Arabako Bertso Txapelketako finala Gasteizko Printzipal antzokian izango da apirilaren 4an. Aramaioarren finala izan daiteke aurtengoa.

DATUA

**6**

**BERTSOLARI**

Aramaioko bigarren finalerdian sei bertsolarik parte hartuko dute: Xabier Igoa eta Andere Arriolabengoa aramaioarrek, Oihane Pereak, Asier Otamendik, Ruben Sanchezek eta Zigor Enbeitak.

## ezkontzak



Oñatiko **Andoni Elkoroiribe** eta **Agurtzane Etxeberriarteun** martxoaren 28an ezkonduko dira. Zorionak, bikote! Oso ondo ibili ezkontza egunean! Oñatiko familiaren partetik.



**Maite Zabaleta** oñatiarra eta **Igor Guenetxea** aretxabaletarra martxoaren 21ean ezkonduko dira Oñatiko San Lorentzo ermitan. Ondoren, Zelai Zabal jatetxean egingo dute bazkaria eta ezkon-bidaian AEBetara joango dira. Familiakoen partetik, zorionak eta patxo handi bana, bikote!

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN

**Zapatua, 21**

Zerua oskarbi egongo da eta iparekialdeko haizea ibiliko da. Tenperaturak gutxi egingo du behera.

**Domeka, 22**

Hodei gutxi egongo da eta iparekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da. Tenperatura gutxi jaitsiko da.

### EUSKAL HERRIAN

Giro eguzkitsua izango da, baina gauean izotza bota dezake. Ekialdeko haizea ahul ibiliko da eta tenperatura minimoa jaitsi egingo da.

### TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

**MINIMOA** Zapatua, 14 — 2º C

**MAXIMOA** Martitzena, 17 — 24º C

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — 0,6 L

| | Max. ºC | Min. ºC | Euria l/m² |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 11 | 16 | 3 | - |
| Eguena, 12 | 23 | 2 | - |
| Egubakoitza, 13 | 27 | 2 | - |
| Zapatua, 14 | 19 | 2 | 0,6 |
| Domeka, 15 | 15 | 4 | - |
| Astelehena, 16 | 23 | 3 | - |
| Martitzena, 17 | 24 | 2 | - |

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 21 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Domekaa, 22 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Astelehena, 23 | Español | Araba 14 | 943 79 18 65 |
| Martitzena, 24 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Eguaztena, 25 | Etxeberria | Zarugalde 42 | 943 77 16 30 |
| Eguena, 26 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Egubakoitza, 27 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 21 | Alvarez-Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Domekaa, 22 | Alvarez-Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 23 | Urrutikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 24 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 25 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Eguena, 26 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 27 | Alvarez-Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 21 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Domekaa, 22 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 23 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 24 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 25 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 26 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 27 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 21 | Agirre (Esko.) | Gorosarri Plaza | 943 71 48 28 |
| Zapatua, 21 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 22 | Agirre (Esko.) | Gorosarri Plaza | 943 71 48 28 |
| Astelehena, 23 | Anitua | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 23 | Anitua | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 25 | Anitua | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 26 | Anitua | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 27 | Anitua | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

## bono fotoa

Garmendia Ardoak
Larchago

Garmendia Ardoek emandako
**Ardo botila packa***
zozketatuko du GOIENKARIAk
asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008.
Larchago kriantza 2006.
Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

ERANTZUNA ..........
IZEN-DEITURAK ..........
HERRIA .......... TEL.: ..........

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Nola deitzen da 'gargola' bitxi horren modukoak ikus daitezkeen Oñatiko gunea?**
**Argazkia eta galdera** > Iñigo Biain



**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Bergarako **Sorkunde Arando**.
Zorionak!
**Erantzun zuzena: San Antonion.**

URTEURRENA

# Aritz Azpiazu Bengoa

Oñatin hil zen 2005eko martxoaren 25ean.

*Beti izango zara gurekin*



Etxekoak.
Oñatin, 2009ko martxoaren 20an.

ESKER ONA

# Maria Pilar Madina Zabaleta

Oñatin hil zen 2009ko martxoaren 15ean, 56 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2009ko martxoaren 20an.

ESKER ONA

# Teofila Arbizu Echeverria

Martin Zugastiren alarguna

Arrasaten hil zen 2009ko martxoaren 8an, 96 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2009ko martxoaren 20an.

ESKER ONA

# Teresa Mugica Alustiza

Antonio Maiztegiren alarguna

Bergaran hil zen 2009ko martxoaren 12an, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko martxoaren 20an.

Babeslea:
Euskalduna
Hileta Zerbitzuak
Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea
Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

**Edurne Elkoro** > Gimnasia erritmikoko entrenatzailea

# "Diziplina, konstantzia eta sakrifizioa eskatzen dituen kirola da gimnasia"

Kirolean asko jardun du eta gimnasia erritmikoa 10 urtez egin ostean, orain entrenatzaile lanak egiten ditu: "Nire entrenatzaileak izandakoetatik eta gimnasiarengandik ikasitakoa irakasten asko disfrutatzen dut", adierazi digu berak. Betidanik izan du gustuko marraztea ere. Etorkizunari, diseinua eta gimnasia ahalik eta ondoen uztartzea eskatzen dio.

JASONE ZABALA > ARRASATE

**Edurne Elkoro arrasatearrak, diseinu grafikoa ikasi zuen Gasteizen, baina urte askoan zehar gimnasia erritmikoan ere ibili da; orain neska gazteei irakatsi egiten die gimnasia egiten.**

**Diseinu enpresa batean egiten duzu lan. Zer da zure lanetik onena eta txarrena?**

Txiki-txikitan gelako hormak marrazten nituenetik izan dut gustuko diseinu mundua.

Horregatik diseinu grafikoko ikasketak egin ostean, praktikak bukatu eta diseinu enpresa berean lanean gelditu nintzen. Nire lanaren alderik onena, egunero gustuko dudan zerbaitetan lan egiteko aukera dudala, eta gaur egun ez da gutxi! Txarrena, berriz, diseinu berri bat egin behar dudanean, burua guztiz blokeatzen zaidan egun horietako bat!

**Etxean hiru anai-arreba eta batek ere ez dio aitaren ofizioari jarraituko. Zer dio berak?**

Etxean hiru anai-arreba gara eta gurasoek hasieratik gustuko ditugun ikasketak egiteko aukera eman digute. Ahizpa nagusiak turismo ikasketak egin zituen, nik diseinu ikasketak eta anai gazteak obra publikoeen ingeniaritza ikasten ari da. Badakigu aitaren ofizioa guk behintzat ez dugula jarraituko –etxetresna elektrikoen denda batean egiten du lan– baina beti gaude laguntzeko prest! Berak ez dio ezer… Baina badakigu berari ilusio handia egingo ziola norbaitek bide hori jarraituko balu. Aitak aitonarengandik ikasitako lanbidea da… Agian nire iloba txikiak jarraituko dio.

**Gimnasia erritmikoa urte askoan egin duzu eta orain irakaslea zara.**

10 urte nituela hasi nintzen gimnasian eta 20 urterekin egin nuen nire azken lehiaketa.

Garai polita izan zen hura niretzat, entrenamenduak, dantzak, lehiaketak... Talde ona osatzen genuen eta gaur egun lagun oso onak gara...

Nahiz eta entrenatzen eta lehiatzen ordu asko joan, primeran pasatzen nuen. Gero taldeari laguntzeko asmoz, entrenatzaile lanetan hasi nintzen. Lan gogorra da, baina aldi berean nire entrenatzaileak izandakoetatik eta gimnasiarengandik ikasitakoa beraiei irakasten asko disfrutatzen dut.












JON BEREZIBAR

PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 25 urte. **Ikasketak:** Diseinu Grafikoa. **Zaletasunak:** Gimnasia, kafea, diseinua, irakurtzea eta lo egitea. **Mania bat?** Gosaldu ostean berriz ere ohera sartzea 5 minutu... **Zer gorrotatzen duzu?** Gauza asko: faltsukeria, handikeria, gorrotoa,... **Egindako azken bidaia?** Mallorcara; uste baino gertuago ditugu paradisua diruditen hondartzak. **Irakurritako azken liburua?** Tania Lamarca gimnastak idatzitako *Lagrimas por una medalla*. **Gogoko gimnasta bat?** Anna Bessonova.

**Sakrifizio handia eta diziplina eskatze duen kirola da gimnasia erritmikoa. Balio du horrek norberaren bizitzarako?**

Gimnasia entrenatzeko orduan diziplina, konstantzia eta sakrifizio asko eskatzen dituen kirola da. Guk eskola arteko mailako txapelketetan parte hartzen dugu gehienbat. Entrenamenduen exijentzia maila lehiatzen den mailaren araberakoa izaten da. Normalean txikitatik praktikatzen da, eta benetan gustuko izan ezkero uztea kostatzen da. Balore horiek egunero transmititu eta praktikan jartzen saiatzen gara, baina norberaren bizitzan aplikatzea bakoitzaren araberako izaten da.

**Gimnasia erritmikoaz gain, kirol zale amorratua ere bazara. Zer egitea duzu gustuko?**

Klaseak amaitutakoan gimnasiora joatea gustuko dut. Aerobic eta dantza mundua ere izugarri gustatzen zait. Egun osoko buruhausteak ahazten laguntzen dit, leher eginda etxera heldu eta primeran egiten dut lo.

**Kartel lehiaketaren bat ere irabazi duzu.**

Bai egia da. Emakume txokoak Emakumearen eguna ospatzeko antolatzen duen kartel lehiaketan parte hartu izan dut. Bi urtez jarraian, 2005 eta 2006an irabazi egin nuen. Ikasketak amaitu eta lanean hasi berri nengoen... Horrelako lehiaketara aurkezteko lanak egitea gustuko dut, baina orain ez daukat lehen besteko denbora librea.

**Astean zehar entrenamendu eta lanarekin nahiko lanpetuta zabiltza. Asteburuak atseden hartzeko aprobetxatzen duzu? Zer egiten duzu?**

Lehiaketarik ez dudan asteburutan atseden hartzen saiatzen naiz. Lo egitea gustatzen zait, iratzargailu gabe esnatu, lasai gosaldu... Hortaz aparte, nire adineko edozein neska bezala: kalera irten, lagunekin eta familiarekin egon, ... Nire ilobarekin jolasten orduak eta orduak pasa ditzaket. Baina lehiaketa garaian ez da ia astebururik existitzen niretzat.

**Etorkizunari zer?**

Orain arte bezala, gustuko dudan gauzetan lan egiten jarraitu ahal izatea; ahal dudan moduan diseinua eta gimnasia uztartzen segi eta ahal bada emaitza onak lortzea.



Jakion enpresak plan estrategikoa aurkeztu du orain dela gutxi. JASONE ZABALA

# Askotariko gaiak datorren asteko 'Magazinea'-n

## Gatzagako Jakion enpresaren plan estrategikoaz arituko dira eguaztenean

**GOIENKARIA** > BERGARA
Gobernuz kanpoko hainbat erakundek osatutako erakusketa ipiniko dute datorren martitzenean Bergarako osoko bilkuren aretoan; bada, gai hori jorratuko dute, beste batzuen artean, datorren asteleheneko *Goiena magazinea* saioan. Martitzenean, aldiz, Debagoieneko jardunaldi gastronomikoez arituko dira Debagoieneko Mankomunitateko Turismo batzordeko Ana Herizekin. Eguaztenean, karapaixoaren gaineko erreportaje laburra ekarriko du Txomin Madina lankideak, eta, gainera, Gatzagako Jakion enpresaren plan estrategikoaz ere arituko dira lehen sektorearen tartean. Horiek guztiak ikusteko aukera, iluntzeko zortziak laurden gutxiagotan.

**GOITB, 'Magazinea'**
> Egunero, 19:45ean.

## telebegi

**Gorka Etxabe**
'getxabe@arteman.org'

### Telebista gutxi aspaldian

Telebista zalea naiz eta ez diot gehiegi eskatzen telebista saio bati nire arreta eskuratzeko. Etxera iritsi eta telebista aurrean pare bat ordu egotea gustuko dut, baina aspaldian ez diot jaramon handirik egiten. Hor dago, bai, betiko lekuan, baina niretzat erakargarritasuna galdu du. Besteak beste, telebistaren aurrean esertzeko ordua iristen denerako ohera joateko desiratzen egoten naiz. Aspaldian albistegiak ere ez ditut ikusten eta zer esanik ez telesailak. Eskaintza gero eta handiagoa da, telebista kateen apustuak are eta arriskutsuagoak, eta indartsuagoak, baina nirekin, jai dute. Hori bai, azken egunotan bi film ikusi ditut eta biak gomendatu behar dizkizuet. *Slumdog millionaire* asko gustatu zitzaidan, amodiozko istorio klasikoa bada ere, baditu beste film batzuk ez dituzten elementu ugari. Bestea *El intercambio* da. Aretxabaletako Arkupen ikusi nuen. Etxe ondoan zinema izatea sekulakoa da!

# Oreka TX ikusteko gonbitak

**UBANE MADERA** > ARRASATE
*Nomadak TX zuzenean* da Oreka TX txalapartari taldeak Arrasatera ekarriko duen ikuskizuna, martxoaren 29an, 19:30ean, Amaia Udal Antzokian. Irratiari esker musutruk joan gura duenak egubakoitza du sarreren zozketan parte hartzeko azkeneko eguna. Horrez gainera, asterokoari eutsi eta masaje bonua zozkatuko dute irratian. Eta, jakina, 3.60 aretoko kontzerturako sarrerak ere bai.

**Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'**
> Egubakoitza, (martxoaren 27), 11:30etik 12:00etara.




GOIENKARIA

## Anbulantzia medikalizatua 'Erreportajea'-n

Zubillagako suhiltzaileen parkean duela hilabete batzuk ipini duten anbulantzia medikalizatuaren gaineko erreportajea landu du Julen Iriondok datorren eguaztenerako. Zerbitzua Debagoieneko herrietan emateaz gain, anbulantziaren jardun-eremua Aramaio, Legutio eta Elorriora ere iristen da. Julen Iriondo zerbitzuko medikuarekin, erizainarekin eta gidariarekin izan da.

**GOITB, 'Erreportajea'**
> Eguaztena, 22:15
> Eguena, 22:45

## arrasate irratia

**FM 107.7**

### Zapatua
**10:00** Asteko gainbegiratua.

### Domeka
**10:00** Asteko gainbegiratua.

### Astelehenetik egubakoitzera
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## astea GOITBn

### Egubakoitza, 20
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** wasemak.
**21:15** Euskal herria lau haizetara.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

### Zapatua, 21
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Wasemak.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

### Domeka, 22
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** wasemak.
**21:15** Euskal herria lau haizetara.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

### Astelehena, 23
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Erlo klip.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Itsasoari begira: Berdelaren arrantza.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wasemak
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Nire herria: Zaldibia.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 24
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusten: Nafarroako topagunea.
**14:15** Eltze beroa: Onddoz egindako tosta.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Wazemak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean: Xabier Solano
**23:00** Euskal Herria lau Haizeetara: Bilbo Handia
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 25
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusmira: Aizkolaria.
**14:15** Gure saltsan
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur: Etxelekua arditegia.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Zaharrak berri.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**22:45** Euskal herria lau haizetara.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 26
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Euskal herria lau haizetara.
**14:15** Estetika
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Ikuskizuna.
**16:15** Zaharrak berri.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Musikantoi.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Erreportajea:
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

# Martxoak 20-27

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Antzerkia



ARRASATE
**> 'Ahuntza edo nor da Silvia?' antzezlana domekan Amaia antzokian**
Txalo taldeak Edward Albee egilearen lana egokitu du. Maitasunaren, jeloskortasunaren eta idealen zentrora doan tragedia horretan, Ramon Agirre, Ane Gabarain eta Asier Hormaza dira protagonista nagusiak. Domekan, 19:30ean.

## Erakusketa



BERGARA
**> Jose Luis Gonzalez Pazosen eskulturak Aroztegi aretoan**
Jose Luis Gonzalez Pazosen *Zuria* izeneko eskultura erakusketa ikusgai dago Aroztegin. Bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era izango da aretoa zabalik. Domekan, goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara.

## Musika



ARETXABALETA
**> Urko Menaia kantautorearen emanaldia martitzenean Zaraian**
Urko Menaia donostiarrak euskal kantu tradizionalak jorratzen ditu eta horren lekuko dugu haren *Herri kantak* izenburuko diskoa. Martitzenean Aretxabaletako Zaraia aretoan izango dugu, 19:30ean. Sarrera, doan.

## Musika

ARRASATE
**> Metal kontzertuak gaur eta bihar 3.60 aretoan**
Bermeoko Ost, Andoaingo Kudai eta Bergarako Rotten Tennagers gaur; bihar, zapatua. Marthyrium, Eldereon eta Profundis Tenebrarum.
Bi kontzertuak, 22:30ean. Gaurko sarrerak 5 eurotan salgai eta zapatuko kontzerturako 10 eurotan.

ARRASATE
**> 'Una tarde con Sabina' domekan Gure Lekun**
Joaquin Sabinaren tributu taldea.
Domekan, martxoaren 22an, Gure Leku tabernan, 19:00etan.

BERGARA
**> Ama Say eta Yakuzi, hurrengo astean**
Txapa Irratiak antolatutako kontzertua.
Datorren zapatuan, martxoaren 28an, gaztetxean, 22:30ean.

## Antzerkia

ARETXABALETA
**> Haur ikuskizuna**
Kukubiltxoren *Dir-dir*, Korrika Kulturalaren barruan.
Bihar, zapatua, Zaraia aretoan, 17:00etan.

## Ipuinak

ESKORIATZA
**> Umeendako ipuin kontaketa saioa**
Giza baloreak lantzeko kontaketa izango da. Bereziki umeei zuzendutako emanaldia; nagusiei ere gonbidapena luzatzen diete antolatzaileek.
Eguenean, hilak 26, Udal Liburutegian, 18:00etan.

## Erakusketak

ARETXABALETA
**> 'Emakumeak aniztasunean'**
Emakumeen Egunaren inguruan antolatuta.
Arkupen, martxoaren 22ra arte. Aste barruan: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00. Zapatuetan: 11:00-13:00.

ARETXABALETA
**> Manolo Urtubiren argazkiak**
Guztira 25 argazki ipiniko ditu ikusgai Aretxabaletako argazki taldeko kideak.
Arkupen, martxoaren 23tik apirilaren 20ra. Aste barruan: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00. Zapatuetan: 11:00-13:00.

## Hitzaldiak

BERGARA
**> Nafarroari buruzko hitzaldia Luis Mari Martinezekin**
*Navarra como paradigma* hitzaldia egingo du Luis Mari Martinez Garatek.
Eguaztenean, hilak 25, 19:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

ESKORIATZA
**> 'Bizkarrezurra eta nerbio sistema' hitzaldia**
Andrea Larrañaga kiropraktikoaren eskutik.
Martitzenean, hilak 24, 18:30ean, Ibarraundi museoan. Amuska Emakume Elkarteak eta Bizikasik antolatuta.

## Proiekzioak

BERGARA, ARRASATE
**> 'Bidaia intimoak' dokumentala**
Korrika Kulturalaren barruan.
Martitzenean, hilak 24, Zabalotegin, 19:00etan. Eguaztenean, hilak 25, Kulturaten, 19:00etan.

ARRASATE
**> Film laburren emanaldia**
Topagunearen VI. Film Laburren Zirkuituko lanak.
Eguenean, martxoaren 26an, 19:00etan, Kulturaten.

## Ikastaroak

BERGARA
**> Tokitsu-Ryu eskolako tai-chi ikastaroa**
Oscar Gutierrez Espainiako zuzendari teknikoak zuzenduko du saioa.
Martxoaren 28an Ipintza institutuan, 10:00etatik 13:00etara. Izenematea eta argibideak: 653 72 29 31.

ARETXABALETA
**> Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak**
Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak antolatu ditu Kultura Sailak.
Izena emateko Arkupera deitu behar dute interesatuek: 943 08 10 01.

ARRASATE
**> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez**
Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan 19:00etatik 20:30era.
Argibideak eta informazioa: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARETXABALETA
**> Dantza libre topaketak hilean behin**
Jaiki elkarteak dantza libre topaketak antolatu ditu. Isabel Altzola izango da irakaslea. Saio guztiak hilabetean behin, eguenean izango dira, 18:00etatik 20:30era.
Apirilaren 23an izango da hurrengo saioa. Izenematea 669 05 80 33 telefonoan edo *berenaiara@yahoo.es* helbidera idatzita.

ARRASATE
**> Hasiberriei zuzendutako taila ikastaroa**
Hasierako maila martxoaren 23tik aurrera, Arrasateko Tailaginen Elkartean (Erguin 19, behea).
Izenematea 620 17 42 55 (Jose Mari) telefono zenbakian.

ESKORIATZA
**> Gatazkak konpontzeko ikastaroa**
Gurasoei zuzendutako ikastaroa, apirilean eta maiatzean. Ikastaroa lau saiotan egingo da kultura etxean, eguenetan, 18:00etatik 19:30era. Maria Eugenia Ramosek, Gizagune fundazioko kideak, zuzenduko ditu saioak.
Matrikularen prezioa 10 eurokoa da. Izenematea Udaleko Gizarte Zerbitzuetan edo 943 71 31 36 telefonoan, martxoaren 27a baino lehen.

ESKORIATZA
**> Masaje bateratua, Jose Luis Armendiarekin**
Mendebaldeko masajea (lasaigarria-kiromasajea) eta ekialdekoa (digitopuntura-yoga pasiboa) bateratzea izango du helburu.
Apirilaren 23tik ekainaren 18ra, eguenero, 17:45etik 19:45era kultura etxean. Prezioa: 40 euro. Izena emateko azken eguna: apirilak 8.

BERGARA
**> Kultura Zerbitzuak hainbat ikastaro antolatu ditu**
Break dancea (apirila, maiatza eta ekaina; egubakoitzetan, 19:00-21:00); eskulanak eta larrua (apirila, maiatza eta ekaina; eguaztenetan 18:30-20:30); zeruko izarrak ezagutzen (apirilak 28 eta maiatzak 5; 19:00-21:00) eta sendabelarrak (maiatzeko eguenetan; 18:30-20:30).

PROPOSAMENA

BERGARA
### > 'Jaque' antzezlana gaur Zabalotegin

Oihulari Klown taldearen azken antzezlana dugu *Jaque*. Virginia Imazek zuzenduta, Amaia Arriaran bergararra, Anduriña Zurututza, Jose Carmelo Muñoz, Andoni Egaña eta Txefo Rodriguez dira aktore protagonistak. Umorea tarteko, gizarteari kezka eragiten dioten gai serio eta potoloak jorratzen dituzte: kontsumoa, berotze globala eta beste hainbat. Gaztelaniazko bertsioa egingo dute gaur.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean; sarrerak 5 eurotan.



Izena emateko epea martxoaren 28ra arte zabalik dago kultura etxean. Argibide gehiago 943 77 91 59 telefono zenbakian.

OÑATI

**> Txalaparta ikastaroa apiriletik aurrera**

Jose de Azpiazu Musika Eskolak txalaparta ikastaroa antolatu du. Ikastaroak bi hilabeteko iraupena dauka eta Xabier Arakama *Trikizio* izango da irakaslea.

Izenematea martxoaren30era arte dago zabalik. 14 urtetik gorakoentzat zuzenduta dago ikastaroa. Argibideak 943 78 31 74 telefono zenbakian.

ARRASATE

**> Biodantza ikastaroak**

Rakel Ampudia eta Carlos Orellana dira irakasleak.

Argibideak eta izenematea: *biodanza-vitoria@gmail.com* edo 679 495 836 telefono zenbakian.

## Lehiaketak

BERGARA

**> Mendekoste jaietako kartel lehiaketa**

Pazkoetako egitarauaren azala egiteko lehiaketa deitu du Bergarako Udaleko Kultura Sailak. Bergaran erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte lehiaketan. Irabazleak 600 euro jasoko ditu.

Lanak entregatzeko epea apirilaren 28 arte dago zabalik. Argibideak Bergarako kultura etxean, 943 77 91 59 telefono zenbakian.

DEBAGOIENA

**> Ziberkomiki lehiaketa deitu du Diputazioak**

Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak ziberkomikien eskola lehiaketa antolatu du. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta DBHko ikasleek har dezakete parte. Lan onenendako sari bikainak izango dira.

Lanak entregatzeko epea apirilaren 30era arte dago zabalik. Argibide gehiago *www.gipuzkoaeuskara.net/ziberkomikia* webgunean.

ARRASATE

**> Film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak**

Arrasateko Emakume Txokoak film labur lehiaketa antolatu du. Emakumeengana-ko biolentzia da landu beharreko gaia. Iraupen mugatua izan beharko dute film laburrek. Lanak DVD euskarrian bakarrik aurkez daitezke eta bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketan.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte izango da zabalik.Argibideak 943 79 41 39 telefono zenbakian.

DEBAGOIENA

**> Elkar argitaletxeak ipuin ilustrazio lehiaketa deitu du**

Hamar urte arteko haurrei zuzendutako lehiaketa. Joxan Ormazabalen *Hitz eta zaunka* ipuin argitaragabea ilustratuz saria irabazteko aukera izango dute parte-hartzaileek.

Argibideak Elkar liburu dendetan edo *www.elkar.com* webgunean.

# Zinema



## Watchmen **

**Zuzendaria:** : Zack Snyder.
**Aktoreak:** Carla Gugino, Jeffrey Dean Morgan. AEB, 2008. 163 minutu.

Orain zinema bihurtuta heldu bazaigu ere, *Watchmen* 80ko hamarkadako oso komiki ospetsua da. Egileak Alan Moore eta Dave Gibbons dira eta zinemara egokitu duen gizona Zack Snyder da. Jarraitzaile ugari dituen arren, egia esateko, filma ikusi arte ez nuen komikiari buruz ideiarik ere, eta, ikusitakoaren arabera, istorioa bere garaian gehiegi kokatuta dagoela iruditzen zait. Bai, agertzen dira superheroi batzuk gizartearen zaindari. Horiek badute bere alde iluna; badakigu justizia bere esku hartzea oso arriskutsua dela; hau dela eta, zaindari talde honetan izango dira era desberdinetako pertsonaiak: batzuk, onak; beste batzuk, hiltzaile bihurtuko direnak. Alde horretatik, istorioak gaur egun indarrean jarraitzen du; badira nahi duten ordena mantentzeko azpijoko ugari erabiltzen duten gobernuak. Baina 80ko hamarkadan kokatuta dagoenez garrantzi handia ematen dio munduko bi indar nagusien gatazkari, biak beldur noiz iritsiko ote den bestearen eraso nuklearra. Eta mundua desagertzeko arriskuaren kontaketan dago istorioaren alde eskasena. DR Manhattan eta Ozymandias nahiko anakronikoak dira: Martera joateko ahalmena duen Jainko aizunak edo gaizkile handinahikoak ez dute horrenbesteko interesik.

*Watchmen* istorioaren aldetik ez zait askorik heltzen, baina baditu lorpenak ere: ez da ekoizpen komertzial arrunta. Istorioa kontatzeko *flash-back*-ak erabiltzen ditu, orainean iraganeko pisua azaltzeko, irudiei erritmo egokia ematen dio eta eszena askok badute indarra. Filmaren iraupena hiru ordueтara hurbiltzen bada ere, ez da luzea egiten. Irudiak, musika, erabilitako egitura erakargarriak dira, baina istorioak niri, behintzat, ez nau ukitzen. Komikiaren jarraitzaileei ez zaie horrelakorik gertatuko, eta filmarekin gozatzeko aukera izango dutela pentsatzen dut.

Antonio Zabala

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**La clase**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Un chihuahua en Beverly Hills**
Zapatua: 17:00.

**Nevando voy**
Eguena: 20:30.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**Las hermanas Bolena**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

**El espíritu del bosque**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Invisibles**
Eguena: 20:00.

**GAZTETXEA**

**24 hour party people**
Domeka: 18:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**La duda**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**El valiente Despereaux**
Domeka: 17:00.

**Hace mucho que te quiero**
Eguena: 20:00

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**Siete almas**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Street dance**
Domeka: 17:00.

**¿Por qué las mujeres siempre queremos más?**
Eguena: 20:00

### EIBAR

**UNZAGA**

**The reader**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

**GURIDI**

**Los abrazos rotos**
17:30, 20:00, 22:30.

**El curioso caso de Benjamin Button**
18:00, 21:00.

**Un chihuahua en Beverly Hills**
17:00.

**RAF**
18:45, 22:00.

**The code**
22:30.

**Watchmen**
22:00.

**Cerezos en flor**
17:30, 20:00, 22:30.

**La pantera rosa 2**
17:00, 19:00.

**Más allá de los sueños**
17:00, 19:00.

**Una pareja de tres**
17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

**FLORIDA-GURIDI**

**The reader**
20:00.

**Gran Torino**
17:30, 20:00, 22:30.

**The visitor**
18:00, 20:15, 22:30.

**Lejos de la tierra quemada**
17:30, 20:00, 22:30.

**En el séptimo cielo**
18:00, 20:15, 22:30.

**Capitán Abu Raed**
18:00, 20:15, 22:30.

**A ciegas**
17:30, 22:30.

**Slumdog millionaire**
17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

**YELMO-GORBEIA**

**Los abrazos rotos**
16:15 (zapatuan eta domekan), 1900, 21:45, 00:30.

**Duplicity**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:45, 21:30, 00:15.

**Una pareja de tres**
15:40 (zapatuan eta domekan), 17:55, 20:10, 22:25, 00:40.

**Underworld: la rebelión de los licántropos**
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**Gran Torino**
15:45 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**The code**
16:25 (zapatuan eta domekan), 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

**Watchmen**
15:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 21:30, 00:30.

**Slumdog millionaire**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:40, 19:55, 22:10, 00:25.

**Che: guerrilla**
20:10, 22:35.

**Push**
20:00, 22:00, 00:00.

**The reader**
17:45, 20:00, 22:15, 00:30.

**La pantera rosa 2**
16:20 (zapatuan eta domekan), 18:15.

**Siete almas**
20:10, 22:25, 00:40.

**El curioso caso de Benjamin Button**
15:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 21:30, 00:20.

**Un chihuahua en Beverly Hills**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15, 20:15 (zapatuan).

**Más allá de los sueños**
15:50 (zapatuan eta domekan), 17:50, 19:50.

**Hotel para perros**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:00 (zapatuan).

**Valkiria**
21:50, 00:05.

**Bolt**
15:55 (zapatuan eta domekan).

Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Gran Torino**
15:50, 18:05, 20:25, 22:40, 01:00.

**Slumdog millionaire**
18:00, 20:15, 22:30, 00:50.

**Hotel para perros**
16:00, 18:00, 20:00.

**Los abrazos rotos**
17:00, 19:45, 22:15, 00:45.

**The reader**
22:20.

**Duplicity**
17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**La pantera rosa 2**
16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

**El curioso caso de Benjamin Button**
22:00.

**The code**
16:05, 18:10, 20:15.

**Más allá de los sueños**
16:00, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Watchmen**
15:45, 18:45, 22:00.

**Lejos de la tierra quemada**
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

**Underworld: la rebelión de los licántropos**
16:30, 18:25, 20:30, 22:30, 00:45.

**Una pareja de tres**
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00

Martxoaren 26ra arte. Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.



**La clase** ***
Frantzia, 2008.
Zuzendaria: Laurent Cantet. 124 min.
Urrezko Palmondoa eskuratu zuen Cannesen. François eta gainerako irakasleek auzo gatazkatsu batean kokaturiko institutuan lan egiten dute eta ikasturte berriari aurre egiteko prestatzen ari dira. Asmo onez beterik eta beren ikasleei ahalik eta hezkuntza onena emateko gertu daude, eta beraz, etsipenari aurre egiteko prest. Baina ikasgeletan kulturek eta jarrerek talka egiten dute...

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**El intercambio** ****
AEB, 2008. Zuzendaria: Clint Eastwood.
Los Angelesen, 1928an girotutako filma. Langileak nagusi diren auzo baten ezkongabeko ama batek, Christine Collinsek, 9 urteko semea agurtuko du zapatu goiz argitsu baten, lanera joan aurretik... Hortik aurrera erabat aldatuko da Christine Collinsen bizitza... Benetako gertakarietan oinarrituta.

**Camino** ****
Espainia, 2008. Zuzendaria: Javier Fesser.
Hutsak harrotu dituen filma. Benetako gertakizun baten oinarrituta, 11 urteko Camino izeneko neskatoaren istorioa kontatzen du. Hilzorian dago, eta maitemindu egiten da... Sei Goya sari eskuratu ditu Fesseren lanak.

**Slumdog millionaire** **
Erresuma Batua, 2008.
Zuzendaria: Danny Boyle.
Zortzi sari jaso ditu azken Oscarretan. Jamal Malik Bombayko nerabe pobre bat da. Telebista lehiaketa batean dirutza irabazi ostean, poliziak atxilotu egingo du, tranpak egin dituelakoan.

**Revolutionary Road** ****
AEB, 2008. Zuzendaria: Sam Mendes.
50eko hamarkadan, Frank eta April Wheeler bikoteak amets eta itxaropen ugari dituzte. Bizilagunen aldean desberdinak direla pentsatzen dute, eta inguratzen dituen gizarte konformistatik aldendu nahi dute. Frankek gorrotatzen duen lan baten dabil eta Aprilek aktore izan nahi du Parisen. Gauzak korapilatzen joango zaizkie.

**The reader**
AEB, 2009. Zuzendaria: Stephen Daldry.
Michael Berg 15 urteko gaztea gaixotu egingo da etxetik eskolarako bidean, eta Hanna Schmitz emakumeak jasoko du. Haien artean pasiozko harreman bat piztuko da, Hanna desagertzen den arte... Nazien eskuetan eroriko da Hanna. Oscar saria Kate Winslet protagonistarendako..

**Valkiria**
AEB-Alemania, 2009. Zuzendaria: Bryan Singer.
II. Mundu Gerra, Alemania. 1944an, Claus von Stauffenberg armada naziko koronela Adolf Hitler hiltzeko plan bat aurrera eramaten ahaleginduko da. Thriller historikoa da, Tom Cruise aktore ezaguna filmeko protagonista nagusia dela.

**nire aukera**



Rakel Murgiondo
Goikobalu Gazte abesbatzako zuzendaria

## Aste bukaeran, entseatzera

Arrasateko abesbatzak 20. urteurrena beteko du aurten eta ospakizunen artean Mozarten *Requiem* lana eskainiko dute apirilaren 4an San Frantzisko elizan. Hori dela eta, entseguetan murgilduta dira eta bihar eta etzi goizez eta arratsaldez elkartuko dira Goikobaluko kideak. Beraz, ezin izan du eskapadatxoa egin San Joseko zubia aprobetxatuta.

Goikobaluko gazteen abesbatza zuzentzen du eta musikarekin izugarri gozatzen duela dio. Afizioa eta ofizioa du. Izan ere, Arizmendi ikastolan musika irakaslea dugu Murgiondo, DBH mailan.

**Musikarekin ez dago atsedenik, ala?**

Egia esateko, aste bukaeretan beti dugu zerbait: kontzertua ez bada, entsegua; eta entsegua ez bada, ezkontzaren baten abestu beharra... Baina niretako ez da sakrifizioa, aisialdiarekin lotzen baitut musika.

**Eta musikak tartetxoren bat uzten dizunean, zer?**

Bi seme dauzkagu eta gustatzen zait eguraldi ona dagoenean bizikleta bueltatxoa ematea, Garagartza aldera edo Urkulura bestela... Ez naiz oso kirolzalea, baina tira... Astebururetan nahiago dut lasai ibili, familiarekin disfrutatu eta lagunekin atera herri erdigunean buelta bat ematera.

**Goikobalu Gaztek ere 15. urteurrena beteko du...**

Bai, hala da. Ez dakit hain urteurren borobila den, baina bagabiltza ospakizunak gertatzen. Santa Zeziliaren inguruan egingo ditugu gehienak; tartean, Jagoba Astiazaranek guretako propio idatzitako lana estreinatu.

**Zure konpositore gustukoenak, zeintzuk?**

Euskal musika eta folklorea atsegin dut gehien, lan herrikoiak. Gazteekin lantzeko, berriz, dantzako eta mugimenduko lanak, afrikar doinuak eta horrelakoak.

Edu Mendibil

# Txakurra, lasterkarien lagun

**TXAKUR KROSA** Errenterian jokatutako lasterketan Arrasateko Javier Arconada eta 'Iron' txakurra bigarrenak izan ziren

**BI URTEKO TXAKURRA** 'Iron' bi urte eta erdiko txakurra da; martxoaren 29an Sorian jokatuko du beste lasterketa bat

**ARAUAK** Lasterketa horietako arauetako bat da txakurrak beti lasterkariaren aurretik joan behar duela

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Gaur egun kirol mota asko daude; batzuk beste batzuk baino ezagunagoak, ordea. Arrasateko Javier Arconadak arineketan egiten du, kirol aski ezaguna. Baina ez du bakarrik egiten: txakurraren laguntzarekin egiten du. *Canicross* edo *txakur krosa* deitzen zaio kirol mota horri.

Joan den domekan, Errenterian jokatutako proban bigarren sailkatu zen Javier Arconada *Iron* txakurrarekin. "Iaz ere parte hartu genuen eta orduan laugarren geratu ginen; aurten, podiuma egiteko asmoarekin etorri naiz", dio Arconadak. Gaineratu du zapatuan Oñatiko duatloia egin zuela eta horregatik nekatu samar iritsi zela domekako probara.

**ALDAPA ASKOKO LASTERKETA**

Errenteriako *Txakur krosa* 7,5 kilometroko lasterketa izan zen: "Nahiko gogorra izan zen: hiru aldapa gora eta beste hiru aldapa behera zituen zirkuituak. Esan behar da txakurrarekin egiteko oso lasterketa polita zela", dio Arconadak. Hasierako metroetatik lasterketako buru jarri zen arrasatearra.

Azkenean, baina, Pedro Etxeberria zumaiarrak eta *Zura* txakurrak irabazi zuten lasterketa. "Mendiko lasterketetan esperientzia handiagoa dauka Etxeberriak", azaldu du Arconadak. Arconadak garaikurra jaso zuen eta *Iron* txakurrak lehenengo arraren saria.

**BI URTE ETA ERDIKO TXAKURRA**

Arrasatearra egun baten bai eta hurrengoan ez entrenatzen da. Dio dagoeneko ezagunak direla herrian: "Dobermanarena deitzen naute", dio.

Bi urte eta erdiko txakurra da *Iron*. Errenteriako proban bi aldiz ibili da, eta hilaren 29an Sorian jokatuko den probara joango da. Lasterketa mota horretan beharrezkoa izaten da txakurra pertsona baino lehenago joatea. "Txakurra geratzen bada, zuk ere atzean geratu behar duzu", azaldu du Javier Arconadak.



**PODIUMA** Javier Arconada eta *Iron* txakurra bigarren sailkatu ziren Errenterian. GOIENKARIA

## ahobero

### "Hiesa ezin da gelditu kondoiak banatuz bakarrik; sexualitatea gizatiartu behar da portaera berriekin"

**Joseph Ratzinger** > Benedikto XVI.a aita santua

Arrazoia geldi daiteke, bada, bibliak banatuz? Dena dela, badirudi zerbaitetan Elizak edo Aita Santuak, bederen, aurrera egin duela, gutxienez onartzen du kondoiak gelditzen duela Hiesa. Baina sexua ez da, ba, nahikoa gizatiar?

## iturri onetik

### Aloña Mendik uztaileko lehenengo asteburuan egingo du III. garagardo festa

Ohiko bilakatu da Oñatin Aloña Mendi kirol elkarteak antolatutako garagardo festa. Aurten, hirugarren aldiz jarraian antolatuko dute; hain zuzen, uztailaren 2an, 3an, 4an eta 5ean. Dagoeneko eskatu diote baimena Udalari, eta hark eman egin die.

Kirol elkarteko sail ezberdinetako kideak ibiltzen dira lanean, elkartearentzat dirua ateratzeko. Garagardoa eta txerrikia egoten da salgai.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Miseriarik ez

Larunbatean ilara luzeak zeuden Bergarako pilotalekuan sartzeko. Arratsaldeko saioa oso ondo joan zela eta iluntzekoa aurkeztean tentsioa eskatu zien Alberto Gorritibereak antzezleei, loriatan ez zitezen lokartu. Baina ez, bikain aritu ziren bigarrenean ere, frontoia lepo eta ikusleak hunkituta.

Duela 15 urte ikusi nuen lehen *Miserableak* frontoi berean. Eta orduan bezala oraingoan ere txunditu egin nau bergararren kemenak, sekulako lana behar baita ikuskizun hori horrela emateko. Berrehun bat lagun aritu ziren bistan, beste mordo bat ere bai atzean, ziur.

Eta bereziki harrigarria egiten zait batez besteko kalitate maila, zenbaitek ez du profesionalen inongo inbidiarik. Amaieran ez zegoen miseriarik, harrotasun sanoa baizik.

## ai, ene!




### Zirkulazio seinaleak soberan daudenean...

"Ai, ene!" esango du, bai, autoarekin toki honetara iristen den gidariak. Zein seinaleri kasu egin? Geratu behar ote du?

www.planetacurioso.com

